

36

BIZITZAN
ZEHARREKO
IKASKUNTZA

HEZIKETA ENPLEGUA GAITASUNAK

lanerako koadernoak

PRESTATZAILEA

cidec

EKIMENAREN BABESLEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

DIRULAGUNTZA

EUROPAKO
GIZARTE
FONDOA



FONDO
SOCIAL
EUROPEO

36

**BIZITZAN
ZEHARREKO
IKASKUNTZA**

**BIZITZAN
ZEHARREKO
IKASKUNTZA**

LANERAKO KOADERNOAK
HEZIKETA • ENPLEGUA • GAITASUNAK

Ekimenaren babeslea: EUSKO JAURLARITZA – Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
Diru-laguntzailea: Europako Gizarte Fondoa

ARGITARATUTAKO ALEAK

1. EDUCACIÓN Y TRABAJO PRODUCTIVO
2. CAMBIO TECNOLÓGICO Y REPERCUSIONES EN EL EMPLEO
3. PREVER Y FORMAR
4. ANÁLISIS PREVISIONAL DE LOS EMPLEOS DEL COMERCIO MINORISTA EN DONOSTIA
5. EXPERIENCIAS DE FORMACIÓN CONTINUA PARA DIRIGENTES DE PYMES
6. LAS CUALIFICACIONES PROFESIONALES ANTE EL MERCADO ÚNICO
7. LAS MUJERES Y EL MERCADO DE TRABAJO EUROPEO
8. PARO DE LARGA DURACIÓN EN EUROPA: ESTRATEGIAS Y ACCIONES
9. INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO EN FORMACIÓN CONTINUA
10. FORMACIÓN DE FORMADORES: RETOS Y AVANCES
11. GUÍA 1 FORMACIÓN PARA LA PYME: COMPETENCIAS GENÉRICAS DE LOS FORMADORES Y ORGANIZADORES DE PROGRAMAS DE FORMACIÓN PARA PEQUEÑAS EMPRESAS
12. NUEVO CONTEXTO SOCIOECONÓMICO Y ESTRATEGIAS DE DESARROLLO LOCAL
13. CRECIMIENTO, COMPETITIVIDAD Y EMPLEO. ESTRATEGIAS EN LA UNIÓN EUROPEA. RETOS Y PERSPECTIVAS PARA EL PAÍS VASCO
14. MANUAL PARA LA ELABORACIÓN DE PROYECTOS DE DESARROLLO ECONÓMICO LOCAL Y EMPLEO
15. GUÍA 2 FORMACIÓN PARA LA CREACIÓN DE PYMES. COMPETENCIAS DE LOS FORMADORES PARA PROMOVER EL ESPÍRITU E INICIATIVA EMPRESARIAL Y LOS PROYECTOS DE CREACIÓN DE EMPRESA
16. ANÁLISIS Y EVOLUCIÓN DE LOS EMPLEOS DEL TERCIARIO DE OFICINA
17. ANÁLISIS Y EVOLUCIÓN DE LOS EMPLEOS DE LA INDUSTRIA METALMECÁNICA
18. FLEXIBILIDAD Y DISTRIBUCIÓN DEL TRABAJO
19. NUEVOS YACIMIENTOS DE EMPLEO
20. LA FORMACIÓN EN CENTROS DE TRABAJO
21. LA CALIDAD DE LA FORMACIÓN
22. TELETRABAJO. IMPACTO DE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS EN LA ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO
23. ORIENTACIÓN Y ASESORAMIENTO PROFESIONAL
24. PERFILES Y COMPETENCIAS PROFESIONALES EN EL SECTOR DE LA CONSTRUCCIÓN
25. LOS JUEGOS DE SIMULACIÓN, UNA HERRAMIENTA PARA LA FORMACIÓN
26. INSERCIÓN A TRAVÉS DE LA FORMACIÓN. INSTRUMENTOS PARA INNOVAR LOS PROCESOS DE FORMACIÓN-INSERCIÓN
27. COMPETENCIAS PROFESIONALES. ENFOQUES Y MODELOS A DEBATE
28. ORGANIZACIÓN Y DISEÑO DE LOS PROCESOS DE EVALUACIÓN
29. ESTRATEGIAS REGIONALES Y TERRITORIALES. EL PAPEL DE LAS AGENCIAS DE DESARROLLO
30. VALORIZAR EL CAPITAL HUMANO: RETO CLAVE PARA LA SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO
31. GESTIÓN DEL CONOCIMIENTO Y CAPITAL INTELLECTUAL
32. REORGANIZACIÓN DEL TIEMPO DE TRABAJO. MEDIDAS Y EFECTOS
33. NUEVAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y LA COMUNICACIÓN VERSUS CREACIÓN DE EMPLEO
34. PERTSONA ETA ERAKUNDEETAN JAKINTZAREN KULTURA ERAIKIZ
35. ERAKUNDEETAN ZEHARKAKO GAITASUNAK KUDEATZEKO GIDALIBURUA
36. ALEA
IZENBURUA: BIZITZAN ZEHARREKO IKASKUNTZA

CIDEC. Centro de Investigación y Documentación sobre problemas de la Economía, el Empleo y las Cualificaciones Profesionales

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Askatasunaren hiribidea 17-19. Telf.a 943 42 52 57 Faxa: 943 42 93 31 • E-mail: info@cidec.net

K.P. 20004

Inprimategia: Mitxelena Artes Gráficas S.L.

L.G.: SS-104-91

I.S.S.N.: 1135-0989

Salneurria: 25 €

AURKIBIDEA

	Or.
ATARIKOA	5
AURKEZPENA	7
1. BIZITZAN ZEHARREKO IKASKUNTZARI BURUZKO IKUSPEGI OROKORRA:	
TESTUINGURU ETA BILAKAERA	9
1.1. Kontzepturako hurbilpena	10
1.2. Kontzeptua berriro plazaratzen eragina izan duten faktoreak	15
1.3. Ikaskuntzaren nazioarteko diagnostikoa	18
2. BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IKASKETA GARATZEKO FAKTOREAK	25
2.1. Ikasketa iraunkorra izaera formaleko heziketa-azpisisistemetan sartzea	26
2.1.1. Heziketa- eta prestakuntza-sistemen erronkak	26
2.1.2. Hezikuntza- eta prestakuntza-sistemen helburu berriak	31
2.1.3. Helburuak eta arrakastarako estrategiak	35
2.2. Ikaskuntza ez formala eta informala onartzea eta balioztatzea	41
2.2.1. Ikasketa iraunkorraren esparruan ikasketa ez formalak duen garrantzia	41
2.2.2. Europako joerak: ebaluazioaren ikuspegiak aztertuz	43
2.2.3. Ikasketa ez formalak nola atzeman, ebaluatu eta onartu	48
2.3. Bizitza osoan zeharreko ikasketak finantzatzeko iturriak	55
3. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK	
IKASKUNTZAREN ETA PRESTAKUNTZAREN ZERBITZURA	68
3.1. Heziketa ireki eta urrutiko heziketaren kontzeptuetarako hurbilpena	69
3.2. Erakundeen rola heziketa iraunkorrean	75
3.3. Irakaskuntza iraunkorrerako eszenategi berriak eta baliabide berriak	79
3.4. Ikasketa birtualerako praktika onak	85
KONTSULTARAKO BIBLIOGRAFIA	93

ATARIKOA

Nahiz eta “biziarteko ikasketa” kontzeptua oraindik formalizatu gabe egon gizarte eta politikaren alorretan, biziarteko ikasketari edo heziketari buruzko ikuspegia aspaldiko kontua da hezkuntzaren alorrean; ez da beraz gauza berria. Biziarteko ikasketa, izatez, azken urteetan zenbait herrialdek, batez ere Europako Batasunekoek jakintzan oinarritutako ekonomia eta gizarterantz abiatzeko garatu duten borondatea da.

2000. urtean Europako Batzordeak ikasketa iraunkorrari buruzko memorandum argitaratu zuen, estatu-kideetan heziketara iristeko sarrera unibertsala eta betikoa lortzeko eta horretarako behar den estrategia orokor bat gauzatzeko; azken finean, Europako Batasunak jakintzaren gizartean modu jasangarrian parte hartu ahal izateko ildoak zehazten ditu aipatu txostenak.

Urte berean Eusko Jaurlaritzak dekretu bat argitaratu zuen, bizitza osoan zeharreko ikasketa iraunkorrerako irakaskuntza-proiektu berritzaileak abian jartzeko eta, ondorioz, horretarako laguntzak banatzeko; dekretu hura jarraituz eta bultzatuz, Eusko Jaurlaritzak Heziketa Iraunkorraren Zuzendaritza sortu berri du.

Erronka korapilatsua da alde batetik, baita liluragarria ere bestetik. Lehen mailako hezkuntzatik hasi, lanbidea bete eta erretiroa hartu arte balio handiko zeharkako gaitasunen bat garatu behar du pertsonak, eta horretarako, “ikasten ikastea” gaitasuna hezkuntzaren eginkizunetara gehitu behar da. Horrekin bat, ikasketa informala bidez lortutako gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko erremintak sortu behar dira, bai pertsona eta enpresentzat bai oro har gizarterantz interesagarriak izan daitezkeelako.

Jakintzaren gizarte honetan, informazioa, jakintzara eta, azken finean, baliabideetara irispideak dituztenen eta gizartearen barruan sortzen diren aukeretatik kanpoan gelditzen direnen artean haustura bat gertatzeko arrisku handia dago. Ez dago inolako zalantzarik Informazioaren Teknologia Berriek aukera aparta ematen dutenaz, adibidez, urrutiko hezkuntza baliabide teknologikoen gama zabal baten bidez garatzeko, baina argi dago horiek aldi berean elementu diskriminatzaile direla baliabide horietara iristeko aukerarik ez dutenentzat. Analfa-

betismo digitalari aurrea hartzeko borrokari ekin behar diogu lehenbailehen, ikasketa iraunkorraren aldeko gatazka galduko ez badugu.

Espero dugu Lanerako Koaderno berri honekin bizi osoan zeharreko ikasketari buruz hausnartzen hasteko ekarpen bat egiten dugula, gure giza kapitala aberasteko ekimenak abian jartzeko lehen urratsa ematen dugula, alegia.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko otsaila

Jesús MONREAL ZIA
Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta
Gizarte Segurantza Sailaren
Enplegua eta Prestakuntza zuzendaria

AURKEZPENA

Europako Batzordearen ikasketa iraunkorrari buruzko 2000ko memoranduma argitaratzeak une gogoangarria adierazten du maila guztietako heziketa arautuaren, lanekoaren eta iraunkorraren alorrean, garai batean lan-merkatuko enpleguari buruzko Liburu Zuria-rekin gertatu zenaren antzera.

Txosten horrek eztabaida bat sortu nahi du Europako Batasuneko herrialdeen artean, ikasketa iraunkorraren definizio zehatz bat bilatzeko, ikuspegi ekonomiko hutsetara mugatuko ez den eta/edo berariaz pertsona helduetara mugatuko ez den definizioa bilatzeko, alegia. Ez, aipatu memorandumaren helburua ez da definizio hutsak ematea, memorandumak baditu beste helburu batzuk ere, hala nola bizitzan zehar gizabanakoari berreskuratzen laguntzea; heziketa horrek, hasi eskolaurretik eta erretiroa hartu arte, jarraikotasuna izan dezan lortzea, eta merkatuak eskaintzen dituen aukera guztiak –ikasketa formaletik ikasketara informalerara artekoak- bistaratzea.

Europako Batzordearen bultzada horretaz baliatuz, orrialde hauetan ikasketa iraunkorrari buruzko eztabaidarako memorandumak funtsezkotzat jotzen dituen arazoetan sakondu nahi izan dugu. Adibidez, ikasketa iraunkorra nahitaez prestakuntza- eta heziketa-sistemetan integratzea, horiek dituzten erronkei aurre egitea, ikasketa informala onartzeak eta balioztatzeak dakartzan arazoetan sakontzea, edota helburu horiei guztiei aurre egiteko behar diren finantza-iturriak atzematea (publikoak eta/edo pribatuak). Antzeman daitekeenez, konponbide zaila dute arazo horiek guztiek, eta gainera gaian nahastuta dauden erakunde guztien hausnarketa eskatzen dute, jarduera-ildo bateratuak eta orekatuak bilatzeko.

Ikasketaren euskarria den esparru horretan, arreta berezia merezi du erakundeek langileen gaitasunetan (gizabanakoaren adimena) eta beren gaitasunetan (kolektibitatearen adimena) betetzen duten rolak.

Ez dugu baztertu nahi izan heziketaren berrikuntzari zor zaion arreta, hau da, pertsonen gaitasun eta abileziak garatzeko alorrean sortu berri diren gaiei zor zaiena; adibidez eta bakar batzuk aipatzeko baino ez: ikasketarako giro berriak edo heziketari aplikatutako teknologia berriak. Hala, pertsonen garapen pertsonal, profesional eta sozialera hurbiltzeko bidea errazten duten eszenategi berri horien ezaugarri batzuen zirriborroa eskaintzen da. Lan honetan jasotzen dira, halaber,

ohiko heziketari buruzko haustura dakarten eszenategiak ere: gune fisikoa (eskolatik –gune fisikotzat hartuz- ziberespaziora –hezkuntza ez gunetzat hartuz-); denbora (komunikazio sinkronoa eta asinkronoa), eta ikaslearen rol berria (ikasketa-denbora eta gunea kontrolatzen duena, baita erritmoa, jarduerak eta ebaluazioaren denbora ere).

Eszenategi berri horiek ikasteko beste metodo batzuetara jotzeko aukera ematen dute, eta adituek adierazten dutenez, metodo horien ezaugarriak irekitasuna, malgutasuna, eraginkortasuna, pribatutasuna eta, batez ere, elkarren arteko ekimena dira. Alabaina, etorkizuneko erronkak ere handiak dira: sistema berri hauen bertute eta akatsak sakontasunez diagnostikatzeko gehiago ikertu behar da; eta ikasketa-prozesu osoan parte hartzen duten giza baliabideak (heziketaren plangintza egiten dutenak, irakasleak, tutoreak eta metodologiaz arduratzen direnak, baita pantailak diseinatzen dituztenak ere) egokitu behar dira. Aukera birtual horiek guztiak jite presentziala duen ohiko heziketaren osagarri izan behar dute eta ez heziketa hori ordezkatzeko aukera, zenbait gaitasunek, batez ere heziketa praktikoagoa eskatzen dutenek, in situ esperimentatzea eta dagokion ekipamendua benetan erabiltzea eskatzen dutelako. Gainera, elkarren osagarri diren bi baieztapen izan behar dira kontuan: bata, teknologia berriak erabiltzeak ez duela bermatzen heziketaren edukia; bestea, inplementatutako erreminta eta metodoen kalitatea behar bezala ebaluatu behar direla, Sareak jarduera birtualen kopuru izugarria eskaintzen badu ere, horietako bakar batzuek baino ez dituztelako betetzen gutxieneko kalitate-eskakizunak.

CIDECen ari garenok, batez ere Lanerako Koadernoan bilduma honen bidez, hamar urte bete ditugu jada jakintza eta ikasketa iraunkorraren transferentzia hedatzeko ahaleginetan. Oraingo honetan ere espero dugu hemen eskaintzen ditugun arrazoiak baliagarri gertatuko zaizkiela erakundeei, eta batez ere pertsoneri, beren garapen sozial, pertsonal eta profesionalerako behar duten jakintzara hurbiltzeko.

Donostia-San Sebastián, 2002ko otsaila

Juan José De ANDRÉS GILS

CIDECeko lehendakaria

*1. Bizitzan zeharreko ikaskuntzari
buruzko ikuspegi orokorra:
testuinguru eta bilakaera*

1. Bizitzan zeharreko ikaskuntzaren ikuspegi orokorra: testuinguru eta bilakaera

1.1. KONTZEPTURAKO HURBILPENA

Gaur egun oraindik argitu, zehaztu eta mugatzeko dago “ikasketa iraunkorra” terminoaren adierazpena. Nazioarteko panoraman sortzen ari diren beste hainbat eta hainbat nozioekin gertatzen den bezala (telelana, teleheziketa, eta abar), termino horren kontzeptualizazioak nazioarteko foro eta eztabaidagune askotako arreta erakarri du.

Duela gutxi, Eurydice programak sustaturik, bizitzan zeharko ikasketara Europako Batasuneko herrialdeetako hezkuntza sistemek egin duten ekarpenari buruz egin den ikerketa batek¹ ikerketari ekin aurretik egindako azterlan bat aurkeztu du, herrialde bakoitzarentzat kontzeptu horrek adierazten duenaren inguruan. Honako xedez egin da azterlan hori: ea kontzeptu horren gainean definizio unibertsal bat ote dagoen ikustea edota herrialde bakoitzak bere terminoa duen; dauden definizioak ofizialak diren edota izaera informala duten; betiko ikasketa, ikasketa iraunkorra, betiko heziketa eta

Nazioarteko panoraman sortzen ari diren beste hainbat eta hainbat nozioekin gertatzen den bezala (telelana, teleheziketa, eta abar), termino horren kontzeptualizazioak nazioarteko foro eta eztabaidagune askoren arreta erakarri du

IKASKETA IRAUNKORRARI BURUZ HERRIALDE KIDEETAKO DEFINIZIOEN ZERRENDA

Herrialdea	Ikasketa iraunkorraren definizioa. ECOTEC txostena (1999)	Ikasketa iraunkorraren definizioa. EURYDICE txostena (2000)
Austria	Pertsonari, gizarteari eta herrialdeari garapen handigarako aukera ematen dion prozesua.	Heziketa iraunkorraren zentzuan erabiltzen da terminoa; heziketa- eta prestakuntza-eskaintzari, hezkuntza-programetara iristeko aukerari eta sistemaren iragazgarritasuna handitzeari buruzko erreferentzia egiten du.
Belgika	Ekonomia, gizarte eta teknologiaren aldetara egokitu beharri buruzko kontzientzia areagotu beharra.	Ez zuten eman inolako definizio ofizialik. Alabaina, terminoa heziketa eta ikasketa iraunkorarekin uztartzen dute.
Danimarka	Pertsonen aukera ematen die berriro hezkuntza-sistemara itzultzeko.	Pertsonen beren bizitza-etapa guztietan ikasten dutela adierazten du, hala nola pertsonak bere gaitasunak eguneratzeko edota beste berri batzuk eskuratzeko erantzukizuna duela. Kontzeptuak gaitasun guztiak hartzen ditu bere baitan, baita orokorrak, lanekoak eta pertsonalak ere.
Finlandia	Pertsonaren eta gizartearen garapena barnebiltzen du, garapen hori edonolako eta maila guztietakoa delarik. Pertsonaren, balore demokratikoen, gizarte-sendotasunaren eta elkarbizitzaren garapena sustatzen du eta berrikuntza, produktibitatea eta ekonomiaren hazkundera areagotzen.	Hautzaro eta zahartzaroaren bitarteko aldiari aplikatzen da eta ikasketaren inguru guztietara iristen da, hala nola, heziketa formalera eta hain formalak ez direnetera, adibidez, lana, komunitatea, Internetet eta abar.

EURYDICE. *Lifelong Learning: the contributions of education systems in the Member states of the European Union*. 2000

IKASKETA IRAUNKORRARI BURUZ HERRIALDE KIDEETAKO DEFINIZIOEN ZERRENDA

Herrialdea	Ikasketa iraunkorraren definizioa. ECOTEC txostena (1999)	Ikasketa iraunkorraren definizioa. EURYDICE txostena (2000)
Frantzia	Pertsonak bizitzan zehar egiten duen heziketa iraunkorra deskribatzen du.	Prestakuntza iraunkorraren ideia zabaldu egiten du.
Alemania	Hezkuntza orokorraren kalitatea gehitzen du, hala nola bizitzan zeharreko lanbide-heziketa eta prestakuntza-ren kalitatea. Laneko prestakuntza eta lanbide-prestakuntza hartzen ditu baitan eta aukera ematen du garpén sozial eta politikoetan parte hartzeko.	Ez dago definizio ofizialik. Alabaina, uste da kontzeptuak espekro zabal bat hartzen duela eta heziketa- eta prestakuntza-politikatik isurtzen dela. Halaber, uste da ikasketa iraunkorra bizi plan bat dela eta herritarrek horren erantzukizuna bereganatu behar dutela.
Grezia	Definizio asko egin dira. Arruntena honakoa da: jakintza eta gaitasun eguneratuak eskuratzeko metodoa.	Emandako definizioa zabal da, dimentsio anitzeko kontzeptuaren aipamena egiten duena. Kontzeptu horrek bere baitan hartzen ditu bai heziketa formala zein formala ez dena, batez ere helduena.
Irlanda	Ikasketan pertsona guztien partaidetza bultzatzen du. Kontuan ditu hezkuntzarako irisgarritasuna, bizitza eta ikasketaren arteko sinergiak, ikasketa-metodo malguak eta egokitzeak, gizabanakoaren premiak asetzeko.	Ikasketa erabilgarrirako jarduera oro, formala zein informala izan, betiere etengabe burutzen bada jakintza, gaitasunak eta abileziak hobetzeko.
Italia	Zerikusi handiago dauka herritarrekin eta hezkuntza orokorrekin, laneko prestakuntzarekin baino. Batez ere oro har herritarren heziketari dagokio, lan-merkatutik kanpon daudenen heziketari.	Prestakuntza formala eta formala ez dena adin-talde desberdin guztietara zabaltzean oinarritzen da, eta hezkuntza eta prestakuntzarako erakundeen eginkizuna onartzen du, horiei dagokien sistema edozein delarik ere.
Luxemburgo	Pertsonen ikasi beharrez konturatzeko laguntzen die.	Ez dago definizio ofizialik, baina terminoak laneko prestakuntza iraunkorri eta helduen heziketari buruzko aipamena egiten du.
Herbehereak	Herritarrek eta langileek gizaratearen eta lan-merkatuaren aldaketei aurre egiteko behar dituzten jakintza, gaitasunak eta jarrerak eskaintzen dizkien hezkuntza, heziketa eta ikasketak hartzen ditu baitan.	Edozein ikaskuntza erabilgarri, forma zein informala izan, betiere modu etengabean eta jakintza, gaitasunak eta abileziak hobetzera bideratutakoa bada.
Portugal	Prozesu iraunkorra da, horren bidez gizabanakoek beren burua garatzeko balio duena.	Adierazpen bikoitza du: a) bizi zikloarekin bat datorren hezkuntza- eta prestakuntza-prozesua eta, b) ekonomian eta gizaratean ematen diren aldaketei lotutako sistema garatzeko erreferentzia-markoa.
Espania	Gehiago da hezkuntza orokorri buruzkoa laneko prestakuntzari buruzkoa baino. Oraintsu hartu da aintzat heziketa iraunkorra.	Ez dago definizio formalik, egungo sistema aldatzeko erreferentzia-marko bat baizik. Legeak iraganean eman zaien dimentsioa baino ikuspegi zabalagoa ematea azpimarratzen du, eta pertsonen bizi aldi orain arte pentsatu izan dena baino gehiago luzatuz.
Suedia	Lan-bizitzan eta eguneroko bizitzan hartzen den hezkuntza eta prestakuntza iraunkorra da, eta herritar guztiek ikasteko duten eskubidean oinarritzen da.	Ohiko hezkuntza-kontzeptuaz haraindi doan ikasketari buruzko jarraia deskribatzeko erabiltzen den dimentsio anitzeko kontzeptua da. Bere baitan hartzen ditu bai sistema formalak zein informalak.
Erresuma Batua	Laneko indarraren gaitasun maila areagotzearekin erlazionatzen da eta erakunde eta teknologiaren premiei ematen zaien erantzun bezala ikusten da. Eragin handia du gizaratean zein kulturean.	Ez dago definizio formalik, baina kontzeptuak badu zerikusi jakintza-ren gizarate garatzeko konpromisoarekin. Gizarte horrek, bere zirkunstantziak edonolakoak izan da ere, aukerak ematen dizkie pertsonen ikasteko eta beren gaitasunak areagotzeko bizitza osoan zehar.

Iturria: Eurydice

helduen heziketa terminoak adierazpen edo esanahi desberdinez erabiltzen diren edo ez eta, azkenik, horien guztien artean nahasterik ote dagoen atzematea. Azterlanaren ondorioetan, adituek eman dituzten hausnarketak adierazten dira.

Herrialde kide guztietan bizitzan zeharreko ikasketari buruzko definizio formalik eza ikusten da, nahiz eta termino horri buruzko ulerpen bat atzematen den. Oro har, ikasketa hori azterketa-prozesuan dagoen terminotzat jotzen da. Beraz herrialde gehienak Europako Batasunak edo OCDEk ikasketa iraunkorrari buruz aldarrizten dituzten kontzeptuetan oinarritzen dira. Alabaina, honako adostasunak identifikatu dira definizioaren gainean²:

- Pertsonak bizitzan zeharreko etapa guztietan ikasten dute.
- Gaitasun eta abilezia orokorrak, profesionalak edo pertsonalen gama zabal bati buruzko erreferentzia egiten du.
- Hezkuntza eta lanbide-heziketarako sistema formalek, hala nola sistema horietatik kanpo antolatzen diren jarduera ez-formalek antzeko garrantzia erakusten dute.
- Premiazkotzat jotzen da erakunde publiko zein pribatuen lankidetzatza, ikasketa iraunkorreko edozein estrategiarako.
- Garrantzi berezia ematen zaio hasierako ikasketan oinarri sendoa lortzeari, eta batez ere ikasteko gogoia eta motibazioa berpizteari.

UNESCOren *Learning: the treasure within* agerkariak, Delors txostena (1996) bezala ezagutzen denak, ikasketa iraunkorraren kontzeptua jasotzen du eta testuinguru jakin batean kokatzen du. Txosten horretan adierazten denez, XXI. mendean heziketa oso ugaria da, forma zein eginkizunei dagokienez, eta jarduera mota guztiak hartzen ditu bere baitan; hartara, pertsonak aukera dute haurtzarotik zahartzarora munduari, beste pertsonen eta beraiei buruz ere jakintza bizi bat eskuratzeko. Aipatu txostena 40 hizkuntza baino gehiagora itzuli da eta abiapuntutzat hartu izan dute gaiari buruzko adituen eztabaida askotan. Alabaina, bizitzan zeharreko ikasketa kontzeptu operatibo bihurtu nahi duten foro gehienetan, lan-munduari gertuago dagoen definizioa hobetsi dute, hau da, OCDEk formulatutako kontzeptutik hurbilago dabilta.

2. Alemanez eta flamenkoz hitz egiten duten Belgika, Frantzia, Luxenburgo eta Austriako komunitateetan, ikasketa iraunkorraren, hezkuntza eta/edo heziketa iraunkorraren eta/edo biziartekoaren hala nola helduen heziketaren kontzeptuak bata zein bestea erabiltzen dituzte gauza bera adierazteko. Gainontzeko herrialdeetan nabarmenagoa da terminoen arteko berezitasuna.

XXI. mendean heziketa ugaria da forma zein eginkizunei dagokienez, eta jarduera mota guztiak hartzen ditu bere baitan; hartara pertsonak aukera dute haurtzarotik zahartzarora munduari, beste pertsonen eta beraiei buruz ere jakintza bizi bat eskuratzeko

Zehazki, OCDEk pertsonaren eta gizartearen maila eta egoera guztietako garapena barnebiltzen duen ikuspegi bat gehitzen du ikasketa iraunkorraren kontzeptura: formalki, lanbide heziketako eskola eta erakundeetan, goi-mailako hezkuntzan eta helduen heziketan; eta ez formalki, etxean, lanean eta gizartean.

Gaur egun, Europako Batasunak ahalegin eta baliabide ikaragarriak jartzen ditu herrialde kideetako ikasketa iraunkorra dinamizatzeko. Lisboan egin zen Europako Batzordeak bizitzan zeharreko ikasketan oinarritzen diren estrategiak aipatu ditu, jakintzan oinarritzen den ekonomiara eta gizartera aldatzeko arrakastaren gakoizat. 2000. urtean³ argitaratutako ikaskuntza iraunkorrari buruzko memorandumak gaiari buruzko hausnarketa bateratua berpiztu du Europako Batasuneko herrialdeetan.

Txosten hori Europa mailako eztabaida sortzeko xedez egin da, baita gai honetan adituak direnen iritzi eta hausnarketak biltzeko ere. Jaso diren erantzunek ikasketa iraunkorraren definizio zabalagoa eskatzen dute eta ez ikuspegi ekonomikora mugatuta dagoena eta/edo helduen irakaskuntzara murriztuta dagoena. Gainera, aureskolan eta erretiroa hartu ostekoan garatutako ikaskuntza azpimarratu da, ikaskuntzaren espektro osoa barne: formala, ez formala eta informala. Egindako kontsultak, halaber, agerian jarri ditu ikaskuntzaren helburuak herritar aktiboak, pertsonaren garapena eta gizarteratzea hartzen dituela bere baitan. Ikasketa iraunkorraren azpian dauden printzipioek, ikasketa hori gidatzen dutenek, alegia, ageri-agerian jarri dute ikasleek funtsezko eginkizuna betetzen dutela eta aukera-berdintasuna, kalitatea eta ikasteko aukera oso garrantzitsuak direla.

Txosten horretan, honela definitzen da ikasketa iraunkorra: bizitzan zehar ikasteko egiten den jarduera oro, jakintza, gaitasunak eta abileziak hobetzeko xedez eta betiere pertsonaren, herriaren eta gizartearen edo enpleguaren ikuspegian oinarriturik⁴. Definizio horrek ikasketa-jardueren gama oso bat barnebiltzen du:

- **Erabilgarritasuna.** Jarrera, informazioa, jakintza, ulerkuntza, jokabidea, balore eta gaitasunak hobetzera bideratutako jarduerak.

3. *Ikaskuntza iraunkorrari buruzko memorandumua.* (SEC-2000-1832). Europako Komunitateen Batzordea. Brussela, 2000.

4. *Ikasketa iraunkorrerako Europako gune bakarra egia bihurtzea.* Batzordearen Jakinarazpena. Europako Komunitateen Batzordea. 2001.

Ikasketa iraunkorraren azpian dauden printzipioek, ikasketa hori gidatzen dutenek, alegia, ageri-agerian jarri dute ikasleek funtsezko eginkizuna betetzen dutela eta aukera-berdintasuna, kalitatea eta ikasteko aukera oso garrantzitsuak direla

- **Jarraitasuna.** Jarduerak modu iraunkorrean garatzen dira, hau da, ez dira ustekabekoak edo zoriak ekarritakoak, iraunkortasunaren edo jarraitasunaren elementuak dituztenak baizik, hots, printzipioz denboran gutxiengo mugarik gabeko elementuak dituztenak.

BIZITZAN ZEHARREKO IKASKUNTZAREN ZEDARRIAK

1970: Paul Legrand-ek⁵, *Bizitza osoan zeharreko ikasketarako sarrera bat*⁶ txostena aurkeztu zuen UNESCOk antolatutako hitzaldian. Txosten horretan oinarriturik, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) Hezkuntzaren Garapenerako Nazioarteko Batzordea sortu zuen, eta hori arduratu zen nazioarte mailan hezkuntzaren egoera aztertzeaz.

1972: Batzorde horrek *Izateko ikastea. Hezkuntzaren mundua orain eta etorkizunean*⁷ txostena kaleratu zuen. Horretan pertsona bakoitzak bere bizitzan zehar ikasteko duen eskubidea eta premia berresten dira. Berebat, ikasketa ematen den testuinguru formal eta informalak elkarren artean estu-estu lotuta egon behar dutela gomendatzen da, eta bi testuinguru horien artean baliabideak banakidetasunaz banatu behar direla, baita gazteenen eta zaharrenen hezkuntzetarako baliabideak ere.

1973: OCDEk *Hezkuntza iraunkorra: bizitza osoan zeharreko ikasketarako estrategia bat*⁸ txostena argitaratu zuen. Txostenean ikaskuntza iraunkorrari buruzko eztabaida proposatzen da eta aldi berean ekonomia globalaren eta lehiakorraren eskakizunak zehazten dira eta ikaskuntza laneko jarduerarekin eta ikasketa indibidualarekin erlazionatzen. Oinarritzko hezkuntzaren eginkizuna onartzen badu ere, ikaskuntza iraunkorraren kontzeptuak batez ere hezkuntza eta derrigorrezko hezkuntzaren osteko prestakuntza aipatzen ditu.

1973: Europako Batasunean ikaskuntza iraunkorraren terminoa *Jane txostena*⁹ izeneko agirian plazaratu zen. Kontzeptua, izatez, nazioarteko erakundeen laguntzaz atera zen eta aditu askoren begiradak erakarri zituen. Alabaina, 70ko hamarkadaren erdialdera, terminoa, bere ideia eta guzti, gaitzetsi egin zuten atzerapenaren eta horrek gastu publikora ekarri zuen murrizketaren ondorioz. Laurogeita hamarreko hamarkadan kontzeptua berriro plazaratu zenean, jatorrizko kontzeptua sortu zeneko egoeraren guztiz zirkunstantzia desberdinetara atera zen. Langabeziaren kontrako borroka eta geroz eta handiagoa zen lehiakortasuna dira kontzeptuaren sorkuntza berriaren zio nagusiak; gaur egun agenda politikoen jo-mugarik garrantzitsuena da.

1995: Europako Batzordearen SOKRATES programak heziketa irekia eta urrutikoa gehitu du, nazioz gaindiko lankidetzarako interes bereziko eginkizun bezala.

1996: Europako Batzordeak bizitza osoan zeharreko ikasketaren urtetzat onartu zuen.

2000: Europako Batzordeak ikaskuntza iraunkorraren gaineko memoranduma argitaratu zuen.

5. UNESCOren Helduen Hezkuntzarako Dibisioa, Hezkuntza Ataleko zuzendari izana.

6. *An introduction to lifelong learning*, UNESCO, 1970

7. *Learning to be. The world of Education Today and Tomorrow* UNESCO, 1972

8. *Recurrent education: a strategy for lifelong learning*, OCDE, 1973

9. Commission of the European Communities (1973) *For a Community policy on education (the "Jane report")* Bulletin of European Communities, 10/73 gehigarria

- **Bereizketa, ikasketa formala edo ez formala izatetik.** Ikasteko jarduera desberdinak sartzen dira atal honetan, adibidez, ikasleek egiten dituzten praktikak, bigarren aukerako eskolak, laneko heziketa eta prestakuntza eta lanetik kanpokoa edo autoikasketa:

- **Ikaskuntza formala:** ohiz hezkuntza- edo prestakuntza-zentro batek ematen duena, jite egituratua (helburu didaktikoan, iraupenean edo euskarrian) duena, eta amaierako ziurtagiria ematen duena. Ikasketa formala gurarizkoa da ikaslearen ikuspegitik.

- **Ikaskuntza informala:** lanarekin, familiarekin edota aisialdiarekin erlazionatutako jardueretatik eratorria. Ez dago egituratuta (helburu didaktikoetan, iraupenezkoan eta euskarritzkoan) eta ohiz ez dago ziurtagiri bat lortzera bideratuta. Ikasketa informala gurarizkoa izan daiteke baina gehienetan ez da hala izaten (ezustekoa edo aleatorioa izaten da).

- **Ikaskuntza ez formala:** ez da hezkuntza- edo prestakuntza-zentroan ematen eta ohiz ez dago amaierako ziurtagirira bideratuta. Alabaina, jite egituratua du (helburu didaktikoan, iraupenean edo euskarrian). Ikaskuntza ez formala gurarizkoa da ikaslearen ikuspegitik.

- **Bereizketa, finantzaketa iturritik.** Jarduerak sektore publikoak, pribatuak edo modu indibidualean finantzatutakoak izan daitezke.

- **Bereizketa, emateko modutik.** Baliabide tradizional edo modernoak erabiliz, adibidez, informazio eta komunikazioko teknologiak.

1.2. KONTZEPTUA BERRIRO PLAZARATZEN ERAGINA IZAN DUTEN FAKTOREAK

Zergatik da lehenasunezko gauza ikaskuntza iraunkorra OCDE-ko herrialdeetako gobernu gehienentzat? Zertan datza bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko egungo kezka arrazoia? OCED¹⁰ berak adierazten duenez, herrialde gehienetan gaur egun ekonomia eta gizartearen alorrean gertatzen ari diren aldakuntzek, alde batetik, desberdintasun ekonomikoak areago-

Ikasketa iraunkorra honela definitzen da: bizitzan zehar ikasteko egiten den jarduera oro, jakintza, gaitasunak eta abileziak hobetzeko xedez eta betiere pertsonaren, herriaren eta gizartearen edo enpleguaren ikuspegian oinarriturik

10. *Economics and Finance of Lifelong Learning*. OCDE, 2001

tzea ekarri dute eta, bestetik eta horren ondorioz, lanaren arloan segurtasunik eza sortu dute, eta kasu batzuetan, pobrezia eta gizarte-bazterketa. Gainera, lan-sektore askok berriro lekutu behar izan du. Langile askok beren eguneroko lana egun batetik bestera aldatzen ikusi du.

Gobernu gehienek aldaketa horiei erantzun egokia eman beharra onartzen dute; elkarri lotuta dauden aldaketa horiek, batez ere teknologiaren berrikuntzarekin, globalizazioarekin, kontsumoan eta produzioan gertatu diren aldaketekin eta jakintzaren gizarterantz bideratutako bilakaerarekin zerikusi dute. Gaur egun, inoiz baino gehiago, informaziorako sarbidea eta jakintza eguneratua, hala nola, baliabide horiek banan banaka eta modu adimentsuan erabiltzeko motibazioa eta gaitasuna, lehiakortasuna indartzeko eta lan-munduan sartzeko ahalmena eta eskulana hobetzeko giltzarri bihurtu dira. Lanbide-gaitasunak egokitzeak, berritzeak eta eguneratzeak, inbertsio bezala begiratuz, iraganean baino garrantzi handiagoa hartu dute.

Bizitzan zeharreko ikaskuntzaren aldeko interesa, hein handi batean, lan-merkatu berriaren ezaugarriek sortu dute. Aurreko atalean esan denez, langabeziaren kontrako borroka nozio hori herrialde gehienek agendetako lehentasunezko gaien artean jarri du. Ondoren datoz egungo lan-merkatua definitzen duten ezaugarri batzuk.

- **Langabezia.** Langabezia herrialde guztiak ukitzen dituen arazo bihurtu du, baita industrializatuak ere. Langabetuen portzentaia ikaragarriak arriskuan jarri ditu gizarte-kohesiorako finkatutako estrategiak. Gazteak babesik gabe daude lanaren alorrean eta unibertsitari graduatu berriek ere ez dute lanpostua aurkitzeko segurtasunik ikasketak amaitzean. Alabaina, ikerketek erakusten dutenez, hezkuntza maila zenbat eta handiagoa hainbat eta errazago lan-munduan sartzea. Geroz eta gehiago dira unibertsitatera itzuli diren langabetuak, beren gaitasunak hobetu eta areagotzera eta horrela lanpostu bat eskuratzeko aukerak zabalaztera. Egoera horrek ikaskuntza iraunkorra beharizan¹¹ bihurtu du.

11. *Lifelong Learning for Equity and Social Cohesion: A new challenge for Higher Education.* Suzi Halimi. European Conference on Lifelong Learning Inside and Outside Schools. <http://www.erill.uni-bremen.de/lios/plenary/halimi.html>.

Informaziorako sarbidea eta jakintza eguneratua, hala nola, baliabide horiek banan banaka eta modu adimentsuan erabiltzeko motibazioa eta gaitasuna, lehiakortasuna indartzeko eta lan-munduan sartzeko ahalmena eta eskulana hobetzeko giltzarri bihurtu dira

- **Geroz eta desberdintasun gehiago.** Azken hiru hamarkadetan zehar, soldata eta enpleguaren banaketak desberdintasun nabarmenak erakutsi ditu. Bereziki, lanbide-gaitasun urriko langile-riaren egoera kezkatzeko mailara iritsi da. Egun batetik bestera areagotzen ari den soldata-barreiadurak agerian utzi du bizitza osoan zehar ikasi beharra. Joera hori eragotziko duen neurririk hartzen ez bada, langileak elkarrengandik urrutiratutako bi taldetan banatzeko egiazko arriskua sortuko da: alde batetik, teknologia berrietan sartuta daudenak, ekonomia berrian bizitzeko eta aurrera egiteko aukera dutenak; bestetik, adineko jendea, etnia gutxiak eta aurrerakin eta iragan sozio-ekonomiko aldrebesak izan dituztenak, geroz eta baztertuago izateko arriskua dutenak¹².
- **Enpleguaren gorakada zerbitzuen sektorean.** Ondasunak produzitzetik zerbitzuak produzitzera aldaketa gaur egun errealitate bihurtu da herrialde industrializatuetan. Une honetan, zerbitzuen sektoreko enpleguak jardura osoaren %65 hartzen du OCDEko herrialdeetan, eta batzuetan %75era ere iristen da. Gainera, sektore honek enplegu-tasa garbiaren hazkuntzarik handiena beregantzen du. Alabaina, joera horren ondorioak ez dira errazak kategorizatzen, hein handi batean, zerbitzuen sektoreak heterogeneotasun handia erakusten duelako. Hala ere, egia da zerbitzuen sektorean eskatzen diren kalitatea, gaitasunak eta heziketa nabarmen¹³ aldatzen dela leku batetik bestera; baina

Egun batetik bestera areagotzen ari den soldata-barreiadurak agerian utzi du bizitza osoan zehar ikasi beharra. Joera hori eragotziko duen neurririk hartzen ez bada, langileak elkarrengandik urrutiratutako bi taldetan banatzeko egiazko arriskua sortuko da: alde batetik, teknologia berrietan sartuta daudenak; bestetik, horretarako aukerarik ez dutenak

ENPLEGUA ZERBITZUEN SEKTOREAN

	Guztira, ondasun-produzioko sektorean	Guztira, zerbitzuen sektorean	Zerbitzuen azpisektoreak			
			Produktio-zerbitzuak	Banaketa zerbitzuak	Gizarte-zerbitzuak	Pertsonal-zerbitzuak
Ratioa gaitasun ertaina-baxua/gaitasun altua	1,25	0,45	0,24	0,67	0,26	1,00
Langile unibertsitate-ikasketadunen ratioa, unibertsitate-ikasketarik ez duten langileei dagokienez	0,07	0,24	0,45	0,09	0,46	0,08

Oharrak: "gaitasun baxua" ISCED 0-2 da eta "gaitasun ertaina/altua" ISCED 3-7 "unibertsitate-ikasketak" ISCED 6-7 da eta "unibertsitatekoak ez diren ikasketak" ISCED 0-5 Iturria: OCDE (2000b)

12. *Economics and Finance of Lifelong Learning*. OCDE, 2001

13. *Economics and Finance of Lifelong Learning*. OCDE, 2001

nolanahi ere garbi dago sektore horretan hezkuntza mailarik handienak dituztenak saritzen dituela.

- **Lana berriro antolatzea enpresetan.** Azken hamarkadan, OCDEko kide diren herrialdeetako enpresek lanpostuak berriro diseinatzeko prozesuei ekin die eta erantzukizunen banaketa berria eratu dute; oso denbora gutxitan, aldaketa nabarmenak gehitu dira lanaren antolamendura. Berregituraketa horren indar bultzatzaile nagusia teknologiaren aldaketak ekarri du. Horren osagai nagusiak datoz ondoren laburbildurik:
 - Masan produzitzetik lanaren malgutasunera.
 - Taldean lan egitearen garrantzia eta eginkizun anitzeko lanpostuak.
 - Gaitasun eta eginkizun anitzetarako antolamenduaren diseinua.
 - Erabakiak deszentralizatzea, eta erakundeetako hierarkiak arintzea.
 - Langileek partaidetza handiagoa erabakietan.
- Azken buruan, esan daiteke teknologiaren egungo aldaketa azkarak areagotu egin dituela langile gehienek behar dituzten gaitasunak. Nahiz eta oraindik lan-merkatuak ohiko gaitasun eta abileziak eskatzen jarraitu, asko dira beren eginkizunean lehiakorrek izateko beste gaitasun batzuk ere eduki behar dituzten langileak. Lanaren antolamendurako ikuspegi berriak saritu egiten ditu honako gaitasunak: malgutasuna, moldagarritasuna, ikasketa iraunkorra, esperientzia transferitzeko abilitatea eta eginkizun desberdinetarako gaitasuna. Argi eta garbi, biziarteko heziketa eskatzen duen mundua da gaurkoa¹⁴.

1.3. IKASKUNTZAREN NAZIOARTEKO DIAGNOSTIKOA

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko eztabaidan funtsezko arazoa da, ikaskuntza hori garatzeko estrategiak landuko dituen herrialderik dagoen jakitea. Arazo horrek ikaskuntzaren eta zenbait gaitasunetan dagoen mentsaren garrantzia aztertu beharra eskatzen du. Horretarako, hain zuzen, herrialderik garatueneke ere zenbait abilezia eta gaitasunetan gabeziak dituztela erakusten duten hiru

Lanaren antolamendurako ikuspegi berriak saritu egiten ditu honako gaitasunak: malgutasuna, moldagarritasuna, ikasketa iraunkorra, esperientzia transferitzeko abileziak eta eginkizun desberdinetarako gaitasuna

14. *Economics and Finance of Lifelong Learning*. OCDE, 2001


ebidentzia mota zehazten dira.

1. ebidentzia.- Bigarren goi-mailako hezkuntzan eskolatu gutxi

1. grafikoak bigarren goi-mailako ikasketarik ez duen jarduneko populazioa (25 urtetik 26ra) erakusten du. Grafiko horretan ikus daitekeenez, portzentaia %60tik gorakoak dira honako herrialdeetan: Turkia, Portugal, Luxenburgo, Espainia eta Italia; eta hiru dira bakarrik portzentaia hori %20tik beharokoa dutenak. Bestalde, 2. grafikoak ikasketa horiek 25 urtetik 34ra arteko jarduneko populazioa eta jarduneko populazio osoa alderatzen ditu. Azken horretan, desberdintasun esanguratsuak ikus daitezke talderik gazteenaren eta guztirakoaren artean, batez ere Espainia, Grezia, Korea edo Australia bezalako herrialdeetan.

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko eztabaidan funtsezko arazoa da, ikaskuntza hori garatzeko estrategiak landuko dituen herrialderik dagoen jakitea. Arazo horrek ikaskuntzaren eta zenbait gaitasunetan dagoen mentsaren garrantzia aztertu beharra eskatzen du


1. grafikoa.-
BIGARREN GOI-MAILAKO IKASKETARIK GABEKO JARDUNEKO POPULAZIOAREN (25-64 URTE BITARTEKOAK) EHUNEKOA



Iturria: OCDE (1998). Education at a Glance

2. grafikoa.-

BIGARREN GOI-MAILAKO IKASKETARIK GABEKO JARDUNEN POPULAZIOAREN EHUNEKOAK, ADINEZ ADIN



Iturria: OCDE (1998). Education at a Glance


Bigarren goi-mailako hezkuntza lan-merkatuan egoera ona lortzeko ezinbesteko bihurtu dela kontuan izanik, grafikoan erakusten diren emaitzek OCDEko herrialde askotako adineko populazioaren artean dauden gabeziak erakusten dituzte.

Batez beste, aztertu diren herrialdeetako adineko populazioaren %40ak ez du bigarren goi-mailako ikasketarik eta garapen maila handiko herrialde batzuek gainera ehuneko hori ere gainditu egiten dute. Begi bistakoa da, populazio-talderik gazteenei buruzko datuek herrialde askotan emeki-emeki ematen ari diren hobekuntzak adierazten dituztela. Alabaina, aztertutako herrialdeen erdian edo gehiagotan populazio gaztearen %25ak edo gehiagok ez du bigarren goi-mailako ikasketarik.

Bigarren goi-mailako hezkuntza lan-merkatuan egoera ona lortzeko ezinbesteko bihurtu dela kontuan izanik, grafikoan erakusten diren emaitzek OCDEko herrialde askotako adineko populazioak dauzkan gabeziak erakusten dituzte

3. grafikoa.-

GOI-MAILAKO IKASKETAK EGIN DITUEN 25-64 URTE BITARTEKO POPULAZIOAREN PORTZENTAIA (1999)



Iturria: Eurostat 1999

Goi-mailako heziketa aztertuz gero, partaidetza-portzentaiak nabarmen jaisten dira, batez ere Portugal, Austria eta Italian, horietan ez baita %12 gainditzen. Adierazgarria da Europako Batasunaren datua: %20ko partaidetza-portzentaia. Halaber, ebidentziak erakusten duenez, emakumeen kolektiboa da batez beste kaltetuena eta maila honetako prestakuntzan gutxien agertzen dena.


Aurreko lerroetan erakutsi diren errealitateak, adierazgarriak dira eta bizitzan zeharreko ikasketaren premia zuritzen dute. Alabaina, 4. grafikoan ikus daitekeenez, edozein motatako hezkuntza eta prestakuntzan parte hartzen duen adineko populazioaren portzentaia, hau da, betiko ikasketarako joera duenarena, baxua da modu nabarmenean, %20ra ere iristen ez baita (2001. urtean Alemanian izan ezik). Herrialde gehienetan ikasketa iraunkorrerako

Halaber, ebidentziak erakusten duenez, emakumeen kolektiboa da batez beste kaltetuena eta maila honetako prestakuntzan gutxien agertzen dena

jardunean parte hartzen duen populazioa geroz eta handiagoa bada ere, grafikoak adierazten duenez, premiazkoa da jarduera batzuk martxan jartzea, adineko populazioak edozein motatako hezkuntza eta prestakuntza jardueretan duen parte hartzea areagotzeko.

4. grafikoa.-

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZAN PARTE HARTZEN DUEN 25-64 URTE BITARTEKO POPULAZIOAREN PORTZENTAIA (1999-2001)



Iturria: Eurostat 2000


Giza kapitalaren stocka eta herrialdeen hezkuntza-ahalegina ebaluatzeko asmoz, neurketako adierazle nagusiak matrikulazioari begiratzen dio. Adierazle alternatibo bat, ikasketa iraunkorrari dagokionez lehentasunezko politikak erabakitzen lagun ditzakeena, alegia, herrialdean herrialdeko pertsonak gaur egun dauzkaten (edo ez dauzkaten) gaitasunetan ikus daiteke

2. ebidentzia.- Gabeziak hezkuntza mailako lorpenetan (nazioarteko konparaketa)

Giza kapitalaren stocka eta herrialdeen hezkuntza-ahalegina ebaluatzeko asmoz, neurketarako adierazle nagusiak matrikulazioari begiratzen dio. Adierazle alternatibo bat, ikasketa iraunkorrari dagokionez lehentasunezko politikak erabakitzen lagun dezakeena, alegia, herrialdean herrialdeko pertsonak gaur egun dauzkaten (edo ez dauz-

5. grafikoa.-

1 ETA 2 MAILEN AZPITIK 1 IRAKURKETAREN LITERAZIA-MAILETAN DAUDEN IKASLEEN PORTZENTAIA.



Iturria: OCDE PISA, 2001

katena) gaitasunetan ikus daiteke. Horretarako, *Bizitzarako Jakintza eta Gaitasunak*¹⁵ (Ikasleek bizitzarako duten jakintza eta gaitasunak ebaluatzeko OCDEk nazioartean antolatu duen programa).

Literazia hitzaren adierazpena, oro har, honela define daiteke: “etxean, lanean eta komunitatean egiten diren eguneroko lanetan informazio idatzia ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna”. Literazia, hortaz, gizabanakoaren jomugak lortzeko eta jakintza pertsonala garatzeko bitartekoa da.

Proiektuan, hiru alderdiren inguruan ebaluatu da ikasleria: informazio garrantzitsua eta berezia identifikatzeko gaitasuna; irakurtzen ari dena ulertzeko gaitasuna, eta irakurritakoa adierazteko eta ebaluatzeko gaitasuna. Proba bakoitzean lortutako puntuazioaren

Giza kapitalaren stocka eta herrialdeen hezkuntza-ahalegina ebaluatzeko asmoz, neurketako adierazle nagusiak matrikulazioari begiratzen dio. Adierazle alternatibo bat, ikasketa iraunkorrari dagokionez lehentasunezko politikak erabakitzen lagun ditzakeena, alegia, herrialdean herrialdeko pertsonak gaur egun dauzkaten (edo ez dauzkaten) gaitasunetan ikus daiteke

15. *Knowledge and Skills for life*. OCDE, PISA. 2001

arabera, batez besteko balio bat eman zaio aztertuari. Ondoren batez besteko balio hori alde zuzenetik finkatutako 6 mailako batean kokatu da (1. mailaren azpitik, 1, 2, 3, 4 eta 5 mailak). Ondoren, berariaz mailarik baxuenak azaltzen dira (1. mailaren azpitik, 1 eta 2 mailak), gaitasun maila baxuetako intzidentzia erakusteko asmoz.

Mailarik apalenetan sartzen diren gaitasunen izaera arrunta kontuan izanik, adierazgarri gertatzen da, azterlanean sartu diren ia herrialderik gehienetan, ikasleen ia %25ak ez dituela aipatu mailak gainditzen. Badira kasu batzuk, Belgika, Frantzia eta Estatu Batuak, adibidez, portzentaia hori %40era iristen dena; Espainia, Italia, Alemania, Grezia eta Portugalen, ordea, ehunekoak %40 eta %50 bitartean daude, hau da, ikasleriaren erdia ia-ia.

Ebidentziak erakusten duenez, agian hezkuntza-sistemek ez dituzte eman lortu nahi ziren emaitzak. Garbi dago literazia maila apalen zergatiak konplexuak direla. Alabaina, ikasketa iraunkorraren testuinguruko alderdi batzuk azpimarra daitezke. Literazia maila apalak kaltegarriak izan daitezke bai pertsonen lan-merkatuan arrakasta lortzeko eginkizunean, bai beren bizi-kalitatea hobetzerakoan.

Beste azterlan batzuek¹⁶ agerian uzten dute literazia estu-estu lotuta dagoela soldata mailari, lan-indarraren partaidetzari, egonkortasun profesionalari, lan-irizpide baxuagoari eta helduen heziketari. Hortaz, zaila da sinestea literaziako mentsa ekonomiaren aurrerapenerako eta gizartearen kohesiorako oztopo ez denik.

Garbi dago literazia maila apalen zergatiak konplexuak direla. Alabaina, ikasketa iraunkorraren testuinguruko alderdi batzuk azpimarra daitezke. Literazia maila apalak kaltegarriak izan daitezke bai pertsonen lan-merkatuan arrakasta lortzeko eginkizunean, bai beren bizi-kalitatea hobetzerakoan

16. *Literacy Skills for the knowledge Society. OCDE eta STATISTICS CANADA. 1997*

2. Bizitza osoan zeharreko ikasketa garatzeko faktoreak

2. Bizitza osoan zeharreko ikasketa garatzeko faktoreak

Europako Batzordeak ikasketa iraunkorrari buruz egindako memorandumak Europako kide diren herrialdeetan pertsona guztientzako ikasketa iraunkorra sustatzeko estrategia koherenteak eta neurri praktikoak zehazteko aholku batzuk ematen ditu. Aldi berean, ikasketa iraunkorra bai maila indibidualean zein instituzionalean egia bihurtzeko Europa mailako estrategia bat finkatzeko eztabaida ireki nahi da Europan.

Aipatu memorandumak honako aholkuak ematen ditu, besteak beste:

- **Oinarrizko lanbide-gaitasun berriak denontzat.** Helburua mundu guztiari ikasketa iraunkorrerako sarrera bermatzea da, hau da, jakintzaren gizartean era jasangarrian parte hartzeko behar diren gaitasunak lortzeko eta eraberritzeko behar den ikasketa iraunkorrerako aukera ematea.
- **Gehiago inbertitzea giza baliabideetan.** Giza baliabideetako inbertsioa modu nabarian areagotzea, Europako kapital garrantzitsuenari, hau da, giza baliabideari lehentasuna emateko.
- **Berrikuntza irakaskuntza eta ikaskuntzara.** Irakaskuntza eta ikaskuntzarako metodo eta testuinguru eraginkorrenak garatzea, bizitza osoan zeharreko ikasketarako.
- **Ikasketa baloratzea.** Ikasketan parte hartzea eta ondoriozko emaitzak ulertzeko eta baloratzeko bideak era adierazgarrian hobetzea, batez ere ikasketa ez formal eta informalarik dagokienez.
- **Orientazioa eta aholkularitza berriro definitzea.** Helburua da Europako hiritar guztiek beren bizitzan zehar ikasteko aukerei buruzko informazioa eta kalitateko aholkularitza izan ditzaitezen lortzea.
- **Ikasketak etxera hurbiltzea.** Hau da, interesatuei ikasketa iraunkorrerako aukerak eskaintzea beren lekutik ahal denik eta hurbilenera eta, egoki denean, informazio eta komunikaziorako teknologien laguntzaz baliatzea.

Herrialde kideek jada martxan jartzen ari dira mezu horiek areagotzera edo sustatzera bideratutako estrategiak, horiek garatzeko ekimen eta programen bidez. Nolanahi ere, bizitzan zeharreko ikasketari buruzko eztabaida honako hiru bide nagusietan zehar doa:

- Ikasketa iraunkorra heziketa-sisteman sartzea

Europako Batzordeak ikasketa iraunkorrari buruz egindako Memorandumak Europako kide diren herrialdeetan pertsona guztientzako ikasketa iraunkorra sustatzeko estrategia koherenteak eta neurri praktikoak zehazteko aholku batzuk ematen ditu

- Ikasketa ez formala onartzea eta baloratzea.
- Finantza-bideak.

Horiexek dira kapitulu honetan aztertuko ditugun gaiak.

2.1. IKASKETA IRAUNKORRA IZAERA FORMALE-KO HEZIKETA-AZPISISTEMETAN SARTZEA

Bizitzan zeharreko ikasketan oinarritzen diren azterlanen arabera, heziketa- eta prestakuntza-sistemak ikasketa iraunkorrerako edozein estrategiaren oinarrian daude.

Heziketa eta prestakuntza hiru helburu nagusi hauen atzetik bideratu behar dira: pertsonaren garapena, bere lanbide-gaitasuna eta nor-tasuna indar osoz adieraz ditzan; gizartearen garapena, batez ere per-sona eta/edo taldeen arteko desberdintasunak murriztuz; eta ekono-miaren garapena, erakundeei lagunduz laneko indarrak gaitasunezko-ak izan daitezen.

Dohmen-ek adierazten duenez, bizitzan zeharreko ikasketaren erronkarik nagusia geroz eta jende gehiago heztea da, geroz eta modu eraginkorragoan eta geroz eta inguruabar heterogeneoagotan, eta aldi berean gastu publikoa murriztea¹⁷. Zentzu horretan, ahalegin ikaragarriak ari dira egiten erakundeek erronka horri aurre egiteko bideak aurkitzeko.

Inguruabar horretan, premiazkoa egiten da hiru gai interesgarri ukitzea: ikasketa iraunkorreko estrategia baten barruan hezkuntza-sistemak aurre egin behar dizkien erronkak; aipatu erronkak gaindi-tzeko, sistema horiek bete behar dituzten helburuak, eta hirugarrena, oztopoak gainditzeko eta helburuak lortzeko Europa mailan hartzen ari diren estrategiak

2.1.1. Heziketa- eta prestakuntza-sistemen erronkak

Aldez aurretik adierazi denez, pertsonak beren bizitza-esperien-tziako etapa guztietan ikasten dute eta, ondorioz, hezkuntzako siste-ma eta maila guztiek dute erantzukizuna helburu hori lortzeko egin-kizunean, edo gutxienez lagundu egiten dute horretan. Alabaina, hez-kuntza-sistemek zenbait erronka dituzte aurrez aurre ikasketa iraun-korreko estrategiak gehitzeko zereginen.

a) Berrikuntza irakaskuntzan eta ikaskuntzan.

Ikasketa iraunkorrari buruzko memorandumean adierazitako mezu batek prestakuntzaren berrikuntzari buruzko aipamena egiten

17. Dohmen, G. (1998) *The future of continuing education in Europe. Lifelong learning fo all in changing learning environments*. Bonn, Hezkuntza eta Ikerkuntzarako Ministerio Federala.

Dohmen-ek adierazten duenez, bizitzan zeharreko ikaskuntzaren erronkarik nagusia geroz eta jende gehiago heztea da, geroz eta modu eraginkorragoan eta geroz eta inguruabar heterogeneoagotan, eta aldi berean gastu publikoa murriztea

du eta honako helburua finkatzen: bizitzan zeharreko ikasketa iraunkorrerako metodo eta testuinguru eraginkorrak garatzea.

Jakintzaren gizarteak erro-errotik aldatu du ikaskuntzari buruzko kontzeptua, ikasketa non eta nola egiten den eta zertarako denari buruzkoa, alegia. Metodoek eta testuinguru didaktikoez geroz eta anitzago diren interes, premia eta iguripenak ezagutu eta islatu behar dituzte. Pertsonak jardunez ikas dezaten, premiazkoa da egungo praktikak hobetzea eta ikuspegi berri eta anitzak garatzea. Testuinguru horretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak funtsezko zutabetzat jotzen dira irakaskuntza eta ikaskuntza berritzeko lanean.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak eskaintzen duten ahalmena alde batera utziz, metodo eta testuinguru berri eta eraginkorrak garatzeak zera eskatzen du: irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuari buruzko kontzeptu berriak, prozesu horretan ikaslearen partaidetza areagotu egiten delako; abilezia emozional eta intelektualei arreta ematea maila desberdinetan; pertsonak prestatzea gizarte aldakorrean erantzukizunak bereganatzeko, eta ikasleentzat malgutasuna bizitzan zeharreko prestakuntza eskatuko dien lan-munduan sartzeko¹⁸.

Testuinguru horretan ikasleen rol berri bat sortu da, honako ezauzgarriak dituena:

- Ikasteko baliabide-aukera guztietara iristeko erraztasunak: bibliotekak, datu-baseak, softwareak, multimedia paketeak, edukietan adituak, komunikazio-sistemak, eta abar.
- Ikasketa-baliabideen kontrol aktiboa: hau da, informazioa antolatze eta maneiatzeko aukera, alde aurretik diseinatutako pantailetak erantzun soila baino konplexuago diren egitura kognitiboak antolatzea, eta abar. Azken finean, informazio erremin-tak erabiltzeko gaitasunak edukitzea eta horietara iristeko ahalmena eskaintzea.
- Ikasleek parte hartzea beren abilezia, jakintza, interes eta helburretan oinarritutako gizabanakoaren ikasketa-esperientzietan. Argi utzi behar da gizabanakoaren irakaskuntzak ez duela esanahi irakaskuntza isolatua, irakaskuntzan parte hartzen duen bakoitzaren premietara egokitutako irakaskuntza baizik.

18. SALINAS, J. (1.997): *Nuevos ambientes de aprendizaje para una sociedad de la información*. Pensamiento Educativo aldizkaria. PUC Txile. <http://www.uib.es/depart/gte/ambientes.html>

Metodoek eta testuinguru didaktikoez geroz eta anitzago diren interes, premia eta iguripenak ezagutu eta islatu behar dituzte. Pertsonak jardunez ikas dezaten, premiazkoa da egungo praktikak hobetzea eta ikuspegi berri eta anitzak garatzea

- Lankidetzta bidezko ikaskuntza-taldeetarako irispidea, ikasleak beste ikasleekin batera lan egin dezan heldutasun, arrakasta eta aresetan pertsonaleko helburu komunak lortzeko.
- Egungo eta etorkizuneko lanpostuetan garrantzi handia izan dezaketen arazoak konpontzeko jardueretan (sortzen diren zailtasunak konpontzea eta ez bakarrik alde aurretik jarritakoak) parte hartzea.

Irakaskuntzak, halaber, datozen hamarkadetan sortuko diren aldaketei aurre egin beharko die: irakasleak eta hezitzaileak gida, tutore eta bitartekari bihurtzea. Horien egungo rola ikasleei laguntza integrala ematera bideratu behar da, eta ikasleak izango dira, ahal den neurrian behintzat, beren ikasketa kudeatuko dutenak. Beraz, irakaskuntza eta ikaskuntzarako metodoak garatzeko eta praktikatzeke gaitasuna, funtsezko lanbide-eskakizuna bihurtuko da, testuinguru formaletan zein ez formaletan. Ikasketa aktiboak izatez ikasteko gogoia eskatzen du, iritzi kritikoa emateko gaitasuna eta nola ikasi behar den jakiteko ahalmena. Irakaskuntzaren funtsezko eginkizuna zera da, sortzeko eta bereganatutako jakintza aplikatzeko gizakiak duen gaitasuna elikatzea.

b) Oinarrizko ikaskuntza indartzea¹⁹

Ikaskuntza iraunkorreko estrategiaren helburuen gainean eskolaurreko eta derrigorrezko hezkuntzak daukaten eraginari buruz gutxi ikertu da. Ezbairik gabe, hezkuntzari buruzko estrategia politiko gehienak batez ere 16 urtetik gorako biztanleriarengana begiratzen dutelako etorri da egoera hori.

Alabaina, OCDEk²⁰ oraintsu egin duen ikerketa batek agerian utzi duenez, oinarrizko hezkuntzan lortzen den jakintzak funtsezko eragina dauka irakaskuntza iraunkorraren arrakastarako. Zentzu horretan, premiazkoa da: eskola-porrotaren eta abandonuaren kontrako borroka, hezkuntzarako irispidea zabaltzea eta hezkuntzaren kalitatea ezartzea, “kartara” eskaintzen diren hezkuntza-jarduera, teknologia berriak eta hezkuntza-metodo berriak gehitzea, diziplina arteko ikasketak sartzea, ikasi beharra erakustea, irakasleen profila areagotzea eta sektore ez formalekin eta gurasoekin loturak finkatzea. Beraz, oinarrizko hezkuntzak ikasketa iraunkorrera egiten duen ekarpenak jada aipatu diren hezkuntza-alorrei buruzko aipamena egiten du.

19. *Lifelong Learning: the contribution of education systems in the Member States of the European Union*. EURYDICE 2000.

20. *Lifelong learning for all: meeting of the Education Committee at ministerial level*, 1996ko ekainaren 16-17. Paris. OCDE

Ikasketa aktiboak izatez ikasteko gogoia eskatzen du, iritzi kritikoa emateko gaitasuna eta nola ikasi behar den jakiteko ahalmena. Irakaskuntzaren funtsezko eginkizuna zera da, sortzeko eta bereganatutako jakintza aplikatzeko gizakiak duen gaitasuna elikatzea

Diferentzia zera da, ordea, azaldu diren kezka desberdinak elkarri lotuta egon beharko liratekeela, sistema guztiak sendotasun eta koherentzia handiagoa izan ditzaten.

c) Goi-mailako hezkuntzarako irispideak erraztea eta hezkuntza horren eskaintza areagotzea²¹

Europako Batzordearen Ikerkuntzarako Zuzendaritza Nagusiak azterlan batzuk hasi ditu ohiz goi-mailako hezkuntzara²² iristen ez diren populazio-taldeek maila horretara iristeko duten aukerei buruz.

Beste ikerlari batzuek, adibidez, Rowley et alius, oro har lanbide-ikasleengan oinarritu dituzte ikerketak eta bereziki horien beharizantetan, eta horretarako, jakintzaren gizartean kolektibo horrek beren aurrekoekiko dauzkan gabeziak ikertu dituzte. Sektore horren eskaeriak asetzeko, denboran eta espazioan sarrera erraza duten ikastaroak eskaini behar zaizkie, hezkuntza-modulu laburragoak ezarri behar dira, langile-ikasleen partaidetza areagotzeko metodoak erabili behar dira eta gaitasuna etengabe eguneratzea planifikatu behar da. Premia horiek guztiak asetzeko, ikerlari batzuek proposatzen dutenez, goi-mailako hezkuntza ikasten duen erakunde bihurtu beharko litzateke, bere inguruari irekita dagoen erakundea izan beharko litzateke, batzuetan heziketa eskaintzen edo beren prestakuntza-departamentuak dituzten sozioekin (enpresekin, adibidez) elkarri laguntzeko hitzarmenak egiten dituen erakundea.

Inguruabar aldagarri horretan, unibertsitateek era askotako presioak jasan behar dituzte azken bolada honetan. Edward Thomas²⁴ irakasleak atentzioa deitu du duela gutxi, lehiakortasuna areagotzen ari delako, unibertsitateek beren matrikulazioak areagotu behar dituztelako, teknologia- eta lanbide-edukiak eta ikastaroak zabaldu behar dituztelako eta tamaina murriztu behar dutela modulu-egitura egoikiagoa lortu behar dutelako, nahiz eta horretarako dauzkaten baliabideak txikiak izan.

21. EURYDICE 2000. *Lifelong Learning: the contribution of education systems in the Member States of the European Union*.

22. Horixe da *Políticas de acceso a la Universidad para adultos en la Unión Europea 1994-1998* Ikerketa eta Teknologiaren Garapenerako IV. Programa Markoaren barruan finantzaturako proiektuaren helburua. Ildo berean, Sokrates programak ikasketa ez formalaren ebaluazioari buruzko gaiak ukitzen dituen APEL (*Assesment of Prior Experimental Learning*) bezalako proiektuak laguntzen ditu.

23. Rowley, J., Lujan, D.H., Dolence, M.G. (1998) *Strategic choices for the academy- how demand for lifelong learning will create higher education*. San Frantzisko, Jossey-Bass Publishers.

24. F2000 European Higher Education Expert Forum, *Increasing Lifelong Learning in European Higher Education: The challenges and the Prospects*, Edward Thomas profesoreak, Unibertsitate eta Hezkuntza Iraunkorrerko Europako Sareko (EUCEN) Idazkari Nagusia, Forum-era

Premia horiek guztiak asetzeko, ikerlari batzuek proposatzen dutenez, goi-mailako hezkuntza ikasten duen erakunde bihurtu beharko litzateke, bere inguruari irekita dagoen erakundea izan beharko litzateke, batzuetan heziketa eskaintzen edo beren prestakuntza-departamentuak dituzten sozioekin (enpresekin, adibidez) elkarri laguntzeko hitzarmenak egiten dituen erakundea

Holako inguruabarretan, unibertsitateek rol berri bati egin behar diote aurre: geroz eta handiagoak diren kolektiboei irakastea, geroz eta esperientzia handiagoa dutenei eta, ziur-ziur askoz ere gehiago eskatzen dutenei. Unibertsitateek, halaber, beren eskaintza areagotu egin behar dute, geroz eta anitzagoa den eskaria ase behar dute eta geroz eta malguago den hezkuntza eskaini. Nolanahi ere, gizarteak unibertsitateengan egiten duen presioa, horiek beren jarduerak lan-mundura begira antola ditzaten, hezkuntza-erakunde hauen oinarrizko eginkizunari kontrajarrita dago, hau da, irakaskuntza eta ikerketa.

Premia eta motibazio horiei guztiei aurre egiteko, Jónasson²⁵-ek galdetzen du ea egokiago litzatekeen arestian deskribatu diren bezain talde heterogeneoentzat hezkuntza eskainiko lukeen sistema bateratu bat ezartzea. Ikerlari horrek, ordea, Unibertsitateetako curriculumean hezkuntza eta prestakuntza iraunkorreko ikastaroak sartzea gomendatzen du, baita bi ikasketa mota horiek erakunde bakoitzean elkarrengandik bereiztea, lanbide-ikasle berri horiek lor ditzaketen etekin netoak (eragin positiboa) atzeman ahal izateko. Rowley *et alius*-ek²⁶ antzeko jarrera hartzen dute, unibertsitate bakarreko aukerari gogorik eza erakustean, eta beren eskaintza zabaltzera jo duten erakundeen egokitasuna azpimarratzean: unibertsitate desberdinen arteko lehiakortasuna gutxitzeaz batera, aniztasunak aukera emango luke kolektibo anitzago eta ugariagoetara heziketa eta prestakuntza hedatzeko.

2.1.2. Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen helburu berriak

Erronka horiek guztiak gainditzeko eta irakaskuntza iraunkorra bete-betean hezkuntza-sistemetan txertatzeko, hezkuntza-sistemek helburu jakin batzuetara bideratu behar dute arreta; helburu horien artean honakoak dira aipagarrienak²⁷:

a) Kalitatea

Heziketa-sistemen kalitatea hobetu behar da, bai gazte eta helduen ikasketa-prozesuetan bai irakaskuntza-prozesuetan (hezitzaileen hasierako irakaskuntzarako eta ikaskuntza iraunkorrera adierazten duenarekin), bai pertsonen ikasten laguntzeko eskuragarri dauden baliabide eta materialei dagokienean. Eta hori guztia honako xedez:

25. Jónasson, J.T. (1999) *Traditional University responds to society?* Lifelong Learning in Europe, 4. alea.

26. Rowley, J., Lujan, D.H., Dolence, M.G. (1998) *Strategic choices for the academy. How demand for lifelong learning will create higher education.* San Francisco, Jossey-Bass Publishers.

27. Europako Komunitateen Batzordea. *Futuros Objetivos precisos de los Sistemas Educativos.* 2001

Nolanahi ere, gizarteak unibertsitateengan egiten duen presioa, horiek beren jarduerak lan-mundura begira antola ditzaten, hezkuntza-erakunde hauen oinarrizko eginkizunari kontrajarrita dago, hau da, irakaskuntza eta ikerketa

- Hezitzaileen prestakuntza hobetzea. Lehenago adierazi denez, premiazkoa dute beren gaitasunak garatzea, gizarteak dituen aldaketei eraginkortasunez erantzuteko, eta beraiek ere hobeto egokitze-ko tartean diren taldeen ugaritasunera.
- Alfabetatzea eta oinarrizko aritmetika-prestakuntza areagotzea, kontuan izan behar baita jende guztiak ikasi behar duela irakurtzen, idazten eta oinarrizko aritmetika-kalkuluak egiten. Oinarrizko heziketa hori funtsezkoa da gainontzeko ikasketa-gaitasun guztiak eskuratzeko eta enplegurako sarbidera iristeko. Nahiz eta errealitate horrek zerikusi handiagoa izan hasierako heziketarekin, geroz et jende gehiago dago gaitasun horiek galtzen duena (batez ere irakurketa eta idazketarekin zerikusi dutenak) ikasketa formalararen testuingurua utzi ondoren.

b) Sartzeko erraztasuna

Ikasketarako irispidea heziketaren unibertsaltasunari eta ikasketak gizarte-bazterketaren kontrako borrokara egiten duen ekarpenari, bere barne koherentziari eta gazte eta helduengan duen erakargarritasunari buruzko eztabaidaren gune bihurtu da. Piramide demografikoan ikusten den aldaketak (gazteen proportzioa gizartearen barruan ez da izan gaur baino baxuagoa) are garrantzitsuago egiten du adineko jende-taldeak ikasten jarraitzera animatzea.

Ikasketa iraunkorreko sarbideak zabaltzeko asmoz, sistemek geroz eta demokratikoagoak izan behar dute eta, batez ere, gehiago aprobetxatu behar dute informazio eta komunikaziorako teknologia berriek pertsonen heziketa-ibilbidea indibidualizatzeko eskaintzen duten aukera. Alabaina, heziketa zabaltzeak badu berarekin bat konpondu beharreko zenbait arazo, adibidez: ordutegiak familia-erantzukizunak dituzten pertsonen premietara egokitzea, kolektibo horrentzat gizarte-zerbitzuak (osasuna, haurtzaindegia...) egokitzea, edota jende horrek lehendik daukan eta irakaskuntza eta ikaskuntzako bide formaletatik kanpo lortutako esperientzia aintzatestea. Balizko ikasle horientzat ikasketa erakargarriago izan dadin, beren soldata mailak aldatu gabe heziketara iristeko behar dituzten pizgarri edo finantzabideak (partekatua izan edo ez) antolatze-ko aukerak aztertu behar dira.

c) Edukia

Premiazkoa da jakintzaren gizarterako oinarrizko gaitasunen definizioa eguneratzea. Gaitasun horiek, gizarteak heziketaren bidez areagotzeko eskatzen dituenak, gizabanakoari bere bizitzarako eta lanerako oinarri sendoa ematen diote. Gaitasun horien barruan sartzen

Ikerketa iraunkorreko sarbideak zabaltzeko asmoz, sistemek geroz eta demokratikoagoak izan behar dute eta, batez ere, gehiago aprobetxatu behar dute informazio eta komunikaziorako teknologia berriek pertsonen heziketa-ibilbidea indibidualizatzeko eskaintzen duten aukera

dira, beraz, bai lanerako izaera duten gaitasunak bai izaera pertsonalekoak edo gizartekoak, hau da, zeharkako gaitasunak²⁸. Gizarte eta ekonomiaren aldakuntzarako geroz eta erritmo azkarragoak eta, batez ere, informazio eta komunikaziorako teknologia berriak gehitzeak gaitasun horiek etengabe ikuskatzea eta modu iraunkorrean eguneratzea eskatzen dute. Aldi berean, ahaleginak egin behar dira gaitasun berri horiek sortu aurretik heziketa formala utzi zutenek aukera izan dezaten eskuratzeko. Zehazki, premiazkoa egiten da heziketa-sistemek honako alderdiak kontuan hartzea:

- Pertsona guztiei informazio eta komunikaziorako teknologia berrietara sartzeko aukera ematea: informazio eta komunikaziorako teknologia berriek hainbat erronka sortzen dute heziketa-sistemetan. Lehenik, irakaskuntza-erakunde guztiek Interneterako sarbidea edukitzea, multimedia-baliabidea eskuratzeko, ekipamendu eguneratua eta banda zabaleko konexioak edukitzea bermatu behar da. Bigarren, ikasketa egokien eta marko pedagogiko dituen edukiak bermatu behar dira, ikasketa-paradigma berrietik ahal denik eta etekinik handiena ateratzeko (adibidez, Internet bidez lankidetzaren areagotuz).
- Irakasleak Internet eta multimedia-materialak erabiltzeko prestakuntza, hala nola horiek estrategia pedagogiko berrietan gaitzea, pertsonak informazio eta komunikaziorako teknologia berriak erabiltzeko gaitasun bereziak garatzera animatzeko: informazioa hautatzea, aztertzea eta ondoren informazio hori jakintza eta gaitasun bihurtzea.

d) Irekitasuna

Prestakuntza-sistemek inguru anitzetara irekitzeko erronka dute aurrean: tokian tokikoak, nazionalak eta nazioartekoak. Horregatik, etorkizuneko estrategiek honako xederako jarduerak aurreikusi behar dituzte:

- Hizkuntzen irakaskuntza hobetzea, herrialdeek beren potentziala, ekonomia, kultura eta gizartea garatzeko. Hainbat ikerlanek erakusten dutenez, hizkuntzen irakaskuntza goiztiarra funtsezkoa da pertsonaren etorkizuneko hizkuntza-gaitasunak areagotzeko.
- Mugikortasunarekin eta trukatzeararekin zerikusi duten jarduerak sustatzea. Jarduera horiek munduaren irudi berria ematen diote beraietan parte hartzen dutenei eta bereziki hizkuntzak ikasteko era praktikoa

28. Gai honi dagokionez, ikus Lanerako Koadernoaren 35. alea: *Erakundeetan zeharkako gaitasunak kudeatzeko gida*. www.lanbide.net (argitalpenak)

Gaitasun horiek, gizarteak heziketaren bidez areagotzeko eskatzen dituenak, gizabanakoari bere bizitzarako eta lanerako oinarri sendoa ematen diote. Gaitasun horien barruan sartzen dira, beraz, bai lanerako izaera duten gaitasunak bai izaera pertsonalekoak edo gizartekoak, hau da, zeharkako gaitasunak

dira, eta bide batez beste pertsonen alderdi positiboak estimatzen erakusten diete. Ikasketa prozesuaren ikuspegi desberdina ematen dute, eta irakasleei praktika onak eta jakintza atzerriko irakasleekin trukatzeko aukera eskaintzen diete. Nolanahi ere, jarduera horietan parte hartzen duten ikastegiak eta heziketa-erakundeak gama zabaldu beharra dago. Halaber, premiazkoa da hedapen-kanpainak antolatzea jarduera horiek beharrezko inbertsioa egiten duten zentroetara ekartzen dituzten etekinak ezagutzera emateko.

- Enpresa munduarekin lankidetzara ildoak irekitzeak berebiziko garrantzia dauka pertsonen enplegurako aukera ziurtatzeko. Ikastegiak beren eskualdeetako enprekin dituzten harremanak aprobetxatu behar dituzte, enpresa-eredu eraginkorrak hornitzeko, beren gizarte-prestakuntzarako programen atal bezala. Testuinguru egokiak sortu behar dira enpresa berritzaileak martxan jartzeko eta garatzeko. Ikastegiak eta heziketa-erakundeak beren ikasketa-planetara gehitu beharko lukete elementu hori eta ziurtatu beharko lukete gazteek gaitasun horiek txiki-txikitatik garatzeko aukera izan dezaten.

e) Eraginkortasuna

Oro har, esan daiteke prestakuntzara bideratzen diren aurrekontuak geroz eta zuzkidura txikiagoak dituztela. Heziketa-erakundeetako arduradunek behartuta daude eskura dituzten baliabideei (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) ahal denik eta etekinik handiena ateratzera. Baliabide horiei etekinik handiena ateratzeko zera behar da:

- Kalitatea ziurtatzeko sistemak finkatzea, zerbitzu-eskaintza ebaluatzearen eta gune ahulak identifikatzearen, baita hobe daitezkeen alderdiak atzematearren.
- Baliabideak beharizanetara moldatzea. Aurrekontuak murrizteak eta emaitza onak lortzeko presioak baliabideak lehentasunezko beharizanetara bideratzea eskatzen dute. Horren ondorioz, jarduneko agintariak heziketa-erakunde desberdinen funtzionamendua sakontasunez ezagutu beharra sortzen da. Hortaz, agintari horiek irizpide estandarizatuak eduki behar dituzte, heziketa-zentroen arrakasta neurtzeko (progresioaren indizeak), errealitateen aniztasuna aztertzeko eta erakunde horietan eragina duten testuinguru sozioekonomikoa ezagutzeko.

f) Agintea deszentralizatzea

Praktikan, arazoak maila lokalean sortzen dira, hau da, eskoletan eta heziketa-erakundeetan. Kudeaketa-agintaritza deszentralizatzea

Kudeaketa-agintaritza deszentralizatzea modu askotara egin daiteke eta, eredu perfekturik ez badago ere, joera orokorra da herrialde gehienetan

modu askotara egin daiteke eta, eredu perfekturik ez badago ere, joera orokorra da herrialde gehienetan. Ikastegiek askatasun handiagoa dute era guztietako hartu-emanak finkatzeko herri-agintaritzarekin eta erakunde pribatuekin. Harreman mota horren kontrako oztupoak kentzea heziketa-erakundeei eskuragarri dauden baliabideei (finantza-kapitala, giza baliabideak eta gizartearenak) probetxurik handiena ateratzen laguntzeko modu emankorra da.

2.1.3. Helburuak eta arrakastarako estrategiak

Europako Batasuneko herrialde kideetako heziketa-sistemek ikasketa iraunkorreko praktiketara²⁹ egin duten ekarpenari buruz Eurydice-k egin duen azterlanean zenbait ondorio agertzen dira ikasketa iraunkorreko estrategiak integratzeko erabaki diren praktikei buruz. Ondoren datoz ondorio horiek, ikasketa iraunkorreko mailak edo bizi zikloak izango liratekeen eskema baliokidearen arabera; horrez gain, arrakasta izan duten ekimen batzuk ere eskaintzen dira.

a) Eskolaurrean partaidetza areagotzea

Arazoa zera da, ikasketa iraunkorra abian jartzeko asmoz eskolaurrean inplementatu izan diren jarduerak identifikatzea. Herrialde askotan, honako ezaugarriak eskuartzeak jarri dira martxan:

- Eskaintza eta parte hartzea areagotzea.
- Erreferentzia-marko nazionala garatzea, curriculumen xede eta edukien helburuetarako kalitate-estandarretan oinarrituz.
- Eskaintza zabaltzea (zerbitzu berriak). Toki mailan hitzarmenak egitea haur eta gazteen segimendua egiteko, hasi eskolaurretik eta nerabe izatera iristen direnerainoko aldian.
- Familiek jasan behar dituzten gastuak murriztea.

b) Derrigorrezko hezkuntzatik hasita ikasteko abilezia eta gogoia piztea

Derrigorrezko heziketa-fasea funtsezkotzat jotzen da pertsonarengan ikasteko gogoia sortzeko. Herrialde kideek, ildo horretan, honako jarduerak inplementatu dituzte:

- Curriculum-edukietan zeharkako gaitasunak identifikatzea: ikasten ikastea, garapen pertsonala, gizarteko abileziak, ikasketa autonomoa, herritargoarekin zerikusi duten balore eta jarrerak, irizpide kritikoa, literazia eta abar.
- Eskola-porrotaren eta abandonuaren kontra borrokatzea, diskriminazio positiborako politikak gehituz eta bortxakeriaren eta absen-

Derrigorrezko heziketa-fasea funtsezkotzat jotzen da pertsonarengan ikasteko gogoia sortzeko, baina horretarako premiazkoa da curriculumaren edukietan zeharkako gaitasunak identifikatzea: ikasten ikastea, garapen pertsonala, gizarteko abileziak, ikasketa autonomoa, herritarrekin zerikusi duten balore eta jarrerak, irizpide kritikoa, literazia, eta abar

29. *Lifelong Learning: The contribution of education systems in the Member States of the European Union*. EURYDICE (2000)

tismoaren kontrako neurriak hartuz heziketa pertsonalizaturako gida-liburuak eskainiz, alor jakin batzuetara baliabideak gehituz edo laguntza psikologikoa emanez eskola-porroterako arrisku-egoeran daudenei.

- Zentroetara informazio eta komunikaziorako teknologia berriak gehitzea, ikasleak horiek erabiltzera ohitzeko eta baliabide horiek beren lanbideetan erabiltzen gaitzeko.
- Ikasleriarengan ikasteko joera eta motibazioa sustatzea.
- Hezkuntzaren forma eta metodo berriak gehitzea, hala nola irakaskuntza-material berriak aukeratzea, ikasleen partaidetza aktiboa areagotzeko asmoz, horiek etorkizunean beren hezkuntzaz eta prestakuntzaz ardua daitezen eta bizitzan eta gizartean behar bezala integra daitezen.
- Derrigorrezko heziketaren helburuak berraztertzea.
- Derrigorrezko bigarren mailako azken etapak zabaltzea, ikastaro eta espezialitate berriak sartuz, ikasleek aukera izan dezaten beren gustuko materialarekin eta ikuspegiekin bat datozenak aukeratzeko.
- Administrazio bide berriak finkatzea, tokiko agintariei eta heziketa-zentroei autonomia handiago emanez.
- Derrigorrezko hezkuntzaren adina areagotzea, edo heziketa eta prestakuntza jardueretan parte hartzeko derrigortasuna 18 urtetara luzatzea.
- Gazte guztiei aukera ematea bigarren mailako hezkuntzaren ziurtagiria lortzeko eta derrigorrezko hezkuntza amaitzeko gutxiengo adinera iritsi beharrik gabe.

c) Bigarren mailako heziketa zabaltzea eta dibertsifikatzea

Europako herrialde kideek ezarri dituzten jarduera eta estrategia gehienak aurreko atalean aipatu direnen antzekoak dira (zeharkako gaitasunak identifikatzea, eskola-porrotaren kontrako borroka, eskaintzaren aniztasun handiagoa), nahiz eta jarduera batzuk bereziak izan:

- Ikastegi, unibertsitate eta enpresen artean lankidetzaz garatzea, ikasleek eta irakasleek harreman handiagoa izan dezaten lan-munduarekin; horretarako, laneko sektoreekin, tokiko agintaritzarekin eta sektore pribatuarekin itunak eginez.
- Malgutasun handiagoa, ikastaroak antolatzerakoan, ikasleak onartzeko baldintzetan eta kredituak lortzeko aukeretan, horrekin gutxiarekin ikasketak konbinazioa errazteko eta ikasten ari diren ikastaroan zehar ikasgaiak aldatu ahal izateko.

Bigarren mailako heziketaren ostean laguntzen duten eskuartze espezifikoak dira honakoak: ikastegi, unibertsitate eta enpresen artean lankidetzaz garatzea, ikasleek eta irakasleek harreman handiagoa izan dezaten lan-munduarekin; ikastaroak antolatzerakoan malgutasun handiagoa eta ikasleak onartzeko baldintzak arintzea, baita kredituak lortzeko ere; azken finean heziketa-lana konbinazioa erraztu behar da

- Heziketa aukerei buruzko aholkularitza, informazioa eta laguntza handiagoa.
- Leku libreak eta kalitatea areagotzea.

FRANTZIA: AUKERA BERRIAK PROGRAMA (NOUVELLES CHANCES)

Hezkuntza Ministerioa, ikasketa iraunkorrerako estrategiaren atal bezala, sistema hobetzera eta ikasleen premiei erantzutera bideratutako politika ari da burutzen, batez ere pertsonak behar dituen gaitasunak lortu baino lehen gerta daitekeen eskola porrotari aurre hartzeko. Politika hori lehentasunezko zatitza jotzen diren zenbait heziketa-alor eta sektoreetan nabarmen-tzen da, eta gaitasunak lortu gabe heziketa-sistema uzten duten (57.000 lagun 1998/1999ko bitartean), edo uzteko arriskuan dauden, gazteentzako programaren bidez areagotzen da.

Hiru dira programaren oinarriko printzipioak

- “Neurrirako” ikastaroak eta erantzunak. Gazte bakoitzaren premien arabera antolatzen dira, eskola-porrotaren zioak oso konplexuak eta anitzak direlako.
- Berrikuntzari eta ekimenari laguntza ematea, antzeko gaietan lankidetzan ari diren irakasle-ek partze hartzeko eztabaida guneak ezarriz.
- Eskolatik lan-mundurako bidean dauden gazteei laguntzeko asmoz, honako erakunde-arten elkarteak sortzea: gobernu zentrala, tokiko agintaritzak, eskualdeetakoak, elkarteak, enpresak eta lanarekin zerikusi duten sektoreak.

Honakoak dira programaren helburu nagusiak:

- Eskola-porrotari aurrea hartzea, ikasle bakoitzari eguneroko klase-jardunean laguntza per-sonalizatua emateko neurriak areagotuz eta/edo egoera horretan dagoen ikasleari lagun-tzeko klase bereziak antolatuz.
- Laneko izaera edo oro har izaera “moldatua” duten gaitasunetara iristeko bideak erraztea, heziketa egokituen aukeretatik gozatzen ari diren gazteen %75ari, hiru urteko epean, beren lanbide-heziketako lizeoetan edo lanbide-ikasleen zentroetan edo heziketa egokituko eskualde-eskoletan (ikasleak egoitza osoko erregimenean hartzeko aukera duten sektore publikoko erakundeak) jarraitzeko aukera emanez.
- Azterlan bat egitea, alor honetan eskualdeen artean ematen diren desberdintasunak diag-nostikatzeko eta egoki izan daitezkeen neurriak hartzeko.
- Derrigorrezko hezkuntza utzi duten 16 urtetik beherako gazteak berriro eskolaratzeko proiektu aitzindariak garatzea (gaur egun 6 proiektu daude abian).
- Prestakuntzaren 5. maila³⁰ dibertsifikatzea, edukiak inguruko errealitatera egokituz eta enpresa eta eskualdeekin elkarteak garatuz, urte anitzetako heziketa-planak programatuz.
- *Fresh opportunities* programaren antzeko irismeneko Europako ekimenetara luzatzea.

Oro har, ikasteko zailtasunak dituzten gazteek laguntza pertsonalizatua jasoko dute eta aldi berean heziketa-zentroetara joango dira; halaber, diziplina arteko ikasketa proiektuak burutu-ko dira. Zentzu horretan, Eskola Lorpenetarako Kontseilu Nazionala (*Conseil National pour la réussite scolaire*) sortu da.

Iturria: *Lifelong Learning: The contribution of education systems in the Member States of the European Union*. EURYDICE (2000)

30. ISCEDren (*International Standard Classification of Education*) sailkapenaren arabera

d) Goi-mailako hezkuntza merkatuko eskarira egokitzea

Goi-mailako hezkuntzak funtsezko eginkizuna betetzen du ikasketa iraunkorrerako estrategian. Herrialde kideek burutu dituzten jarduerak gehienbat honako lau helburuetarantz bideratu dira:

- Eskaintza dibertsifikatzea eta komunitateko (tokikoa zein herrialdekoa) eta oro har gizarteko lan-merkatuetako beharri-zanetara egokitzea, baliabideak modu eraginkorrean erabiliz. Ikastaroak antolatzea premiazko arazoa denez, ahaleginak egin dira ordutegi malguagoak antolatzeko, ikastaldi erdiko ikastaroak emateko edo urrutiko hezkuntzako ikastaroak emateko informazio eta komunikaziorako teknologia berriak modu trinkoan erabiliz, eta Urrutiko Unibertsitatea sortzeko. Edukiak antolatzeari dagokionez, egitura modularrez ukitutako pertsonen lehentasuna eman zaiela ikusi da ikastaroetan antolatutako eskaintzaren gaitetik. Bestalde, unibertsitateak gehiago sartu dira hezkuntza iraunkorra emateko orduan eta enpresetako praktiketan parte hartzeari dagokionean; unibertsitateak interes gehiago jartzen du lan-merkatuaren eta komunitatearen premiei erantzuna emateko, ikasketak eta lana konbinatzeko programak antolatuz eta programa horien bidez I+Dn lortutako gaitasunak eta emaitzak transferituz.
- Eskaintza areagotzea. Herrialde batzuetan dibertsifikatzeak partaide kopuru handiagoa erakartzeko helburua dauka. Hezkuntza-zentroek eta beste erakunde batzuek modulu berriak garatzen ari dira titulatu berrien gaitasunak eguneratzeko. Helduen hezkuntzarako eskaintza berezia geroz eta handiago da, eta unibertsitateek ere geroz eta leku gehiago eskaintzen dute horretara, bai hezkuntza irekiaren bidez bai urrutiko irakaskuntzaren bidez.
- Orain arte unibertsitateetan ordezkari askorik eduki ez duten sektoreei sarbideak irekitzea. Bigarren aukerako programen bidez, unibertsitate irekien bidez eta finantza-laguntzen bidez goi-mailako hezkuntzara sarbiderik izan ez duten populazio-taldeak (minusbaliatuak, eskatzen diren gaitasunak ez dituzten 25 urtetik gorakoak) partaidetza sustatzen ari dira.
- Eskola-porrotaren eta abandonuaren kontra borrokatzea, batez ere goi-mailako prestakuntzaren hasierako etapan.

Goi-mailako hezkuntzak funtsezko eginkizuna betetzen du ikasketa iraunkorrerako estrategian. Herrialde kideek burutu dituzten jarduerak gehienbat honako lau helburuetarantz bideratu dira: eskaintza dibertsifikatzea eta lan-merkatuko beharri-zanetara egokitzea; eskaintza areagotzea; orain arte hezkuntzara iristeko aukera handirik izan ez duten sektoreei sarbideak erraztea; eskola-porrotaren eta abandonuaren kontra borrokatzea

ITALIA: GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZA ETA HEZIKETA INTEGRATUA. INSTRUZIONE FORMAZIONE SUPERIORE INTEGRATA (IFST) SISTEMA

IFST delakoa sistema berri eta malgua da. Eskolatzeko maila desberdinak gehitzen ditu: bigarren mailako hezkuntza ostea, lanbide hezkuntza, helduen hezkuntza eta lan-merkatua. Sistemak honako aukerak ematen ditu:

- Graduatu berriei: lan-merkatuak eskatzen dituen gaitasun aurreratuak lortzea; hartara erraz eta azkar integratu daitezke lan-munduan, eta aldi berean ikasten jarrai dezakete.
- Lanean ari diren helduei: beren jakintza eguneratzea eta lanean lortutako lanbide-gaitasunak onartuko zaizkiela ziurtatzea.
- Langabezia-egoeran dauden helduei: enplegu edo autoenplegurako aukera berriak bilatzen laguntzea.

IFSTa lau kidez osatutako erakunde batek administratzen du: goi-mailako erakunde publiko bat, lanbide hezkuntzako zentro bat, unibertsitate bat eta enpresen elkarteak.

IFST programak honako ezaugarriak ditu:

- Proiektu tekniko eta zientifikoaren batzorde formal bat eratzea erakundeko ordezkariekin, proiektuaren plangintza egiteko, proiektu horren garapenaren segimendua egiteko eta bitarteko ziurtagiriak emateko.
- Heziketa-kredituen sistema bat onartzea, IFST ikastaroa amaitu ondoren lortzeko.

Honakoak dira ikastaroen ezaugarriak:

- 2 seihilekotik 4 seihileko bitarteko iraupena eta gutxienez ere 1.200 ordu. Batez besteko gastua 206,583 euro inguru dabil.
- Enpresetako praktikak gutxienez ere ordu-kopuru osoaren %30 izango dira eta horiek enpresetan sartuko dira.
- Gutxienez irakasleriaren %50ak lan-munduan aritutakoa izan behar du.
- Heziketa-jarduerak herri desberdinetan antolatzen dira, beren helburu berezi eta lokalen eskuragarritasunaren arabera.
- Laguntza-neurriak gehitzen dira, ikasleak ikastaroan parte hartzera bultzatzeko (segimendu pertsonalizatua, gaitasunen ebaluazioa, tutoretzak, eta abar).

Iturria: *Lifelong Learning: The contribution of education systems in the Member States of the European Union*. EURYDICE (2000)

e) Adinekoen hezkuntza indartzea eta modernizatzea

Zenbait herrialdetan lehentasunezko zat jotzen da adinekoen hezkuntza, eta horregatik, hainbat eskuartze egitarau garatu dute; aipagarri dira horietan honakoak:

- Hezkuntzarako sarbideak sustatzea eta erraztea, helduen berezitasunei egokitutako metodoak erabiliz, ordutegiak antolatzerakoan

malgutasunik handiena eskainiz, finantza-iturriak bideratuz, irispideak arinduz, gobernuek diruz lagundutako laneko prestakuntzako ikastaroetara sartzeko erraztasunak emanez, eta urrutiko hezkuntzaren aukerei etekinik handiena atereaz.

- Eskaintza hobetzea eta areagotzea, informazio eta komunikaziorako teknologia berriak erabiliz, ikasgaien eta espezializazioen abanikoa zabalduz, lanbide-jardueretan oinarritzen diren ikastaroak areagotuz, lanbide-gaitasun txikiak dituztenentzako programak instituzionalizatuz eta eskolatze-prozesua garaiz aurretik utzi dutenentzat bereziki antolatutako programak abian jarritz.
- Bigarren mailako hezkuntzatik eta helduen hezkuntzarako bidea erraztea eta gardentasuna eskaintzea, eta horretarako antolamendua hobetzea ikasketak, modulu eta horniketa bideei dagokienez, edota ikasketako kreditu-transferentziarako sistemak zabaltzea edo hasierako hezkuntza eta hezkuntza iraunkorraren arteko hartu-emana hobetzea.
- Enpresari, sindikatu eta tokiko agintarien artean lankidetzarako bideak garatzea, hezkuntza lanaren inguruan antolatzeko asmoz; era guztietako erakundeak hezkuntza- eta prestakuntza-sistemekin batera aritzeko aukerak sustatzea, bakoitzak bere indar bereziekin lagundu ahal izateko.
- Eskuragarri dagoen hezkuntzako eskaintzaren gaineko aholkularitza eta informazioa hobetzea.
- Formalki onartzen ez diren gaitasunak balioztatzea, adibidez, aldez aurreko lanbide-esperientzia onartzen duten sistemen bidez, hau da, diplomekin balioztatzen eta ziurtatzen duten sistemen bidez, edota ziurtagiri-sistemak bateratuz.
- “Gizabanakoaren ikaskuntzarako kontuak” (gai hau ondorengo ataletan azalduko eta aztertuko da) delakoak sustatuz.

Zenbait herrialdek lehentasunezkoztat jotzen dute adinekoen hezkuntza, eta horregatik hainbat eskuartze-egitarau garatu dute; horietan aipagarri dira honakoak: helduak hezkuntzara iristeko bideak erraztea (ordutegiak, dirulaguntzak, eta abar); informazio eta komunikaziorako teknologia berriak modu trinkoan erabiltzea; agente sozialekin lankidetzan aritzea; formalki onartu ez diren gaitasunak eta “heziketarako gizabanako kontuak” balioztatzea

SUEDIA: ADINEKOEN URRUTIKO IKASKUNTZA

1998an, Suediako Gobernuak informazio eta komunikaziorako teknologia berrietan oinarritutako ekimen bati ekin zion, adinekoen urrutiko hezkuntzarako metodo berriak garatzeko. Horrez gain, lan-talde bat eratu zuen arlo honetako proiektuak sustatzeko eta jaulkitzeko. Ekimen hark helduen hezkuntzarako bi eskola nazionalen partaidetza jaso zuen. Eginkizuna, azken finean, zera zen helduen hezkuntzarako udal erakundeek antolatutako urrutiko hezkuntza eskuragarriagoa lortzea helduentzat.

Ahalegin haien ondorioz, martxan dira jada hainbat proiektu eta produktu, hala nola:

- Helduen urrutiko hezkuntzarako metodologia: kolektibo hauekin lan egiten duten irakasle-entzat prestakuntza-ikastaroak doan.
- Urrutiko hezkuntzarako dauden baliabideei buruzko katalogoa; horretan sartzen dira, besteak beste, eskualde bakoitzean eskuragarri dagoenaren inbentarioa, maila altuagoan ere erabil daitekeena, baliabideen bikoizketa ekiditeko. Proiektua gainera laguntza orokorreko eginkizunak betetzen ari da, adibidez, hezkuntzarako erakunde malguen ereduak antolatzen, edo karrerak balioztatzeke, laguntzeko, orientatzeko eta abarretarako.
- Informazio eta komunikaziorako teknologia berrietan oinarriturik, urrutiko hezkuntzarako baliabide aurreratuak garatzea.
- Tokian tokiko hezkuntza-sareak antolatzea, eta horretarako lankidetzaren metodoak garatzea hezkuntza-hornitzaile desberdinen artean; eta helduen hezkuntzarako bideak areagotzeko sistema formalak edo kanpokoak eratzea.
- Urrutiko hezkuntzarako estiloak: era askotara eskaintzen diren urrutiko hezkuntzarako ikastaro desberdinen ereduak eguneratzea, ikasteko estilo anitzak kontuan izanik; hezkuntza-ikertzaile eta teknologia adituen arteko lankidetzaren sustatzea, gizabanakoarengan oinarritutako ikasketa-estrategiak garatzeko.
- Entzumen-arazoak dituzten gazteentzat hezkuntza-ikastaroak antolatzea: ikasle berezi horiek urrutiko hezkuntzaz ohitzeko suediera eta ingelesa ikasteko ikastaro bereziak antolatzea.
- Weben baliabideak eskaintzea: Internet bidez programa-eredu honetako proiektu guztiei buruzko informazioa eskaintzea, eta plataforma bateratu bat eskaintzea urrutiko hezkuntzarako nazio mailan dauden baliabideei buruz.

Iturria: *Lifelong Learning: The contribution of education systems in the Member States of the European Union*. EURYDICE (2000)

2.2. IKASKUNTZA EZ FORMALA ETA INFORMALA ONARTZEA ETA BALIOZTATZEA

Hezkuntza arautuko sisteman, ikasketa gizarte modernoaren ezaugarria da eta ebaluaziorako metodo estandarizatuak ditu; ikasketa ez formala, ordea, askoz ere zailagoa da atzematea eta ebaluatzea eta jada alor guztietan –gizabanakoaren zein gizarte osoaren alorrean– gaitasunen garapena kaltetzen duen arazotzat jotzen da.

Izatez, Europako Batzordearen ikasketa iraunkorrari buruzko memorandumean ematen diren aholkuetako batek lehentasuna ematen dio ikasketen balorazioari eta helburutzat jartzen du ikasketetan parte hartzeari eta ikasketen emaitzak ulertzeko eta baloratzeko moduak hobetzeari, batez ere ikasketa ez formalari eta informalarari dagokienez.

2.2.1. Ikasketa iraunkorraren esparruan ikasketa ez formalak duen garrantzia

Azken hamarkadan, gure inguru hurbileko herrialde askotan ikasketak eta gaitasunak identifikatzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko bide

eta metodologiak eratu eta inplementatu dituzte. Asmo orokor hori, J. Bjornavold³¹-ek adierazten duenez, hiru ikuspegi desberdin eta elkarren osagarri diren oinarritzen da:

- **Pertsonak:** ikasketa informala egiaztatzeak edo onartzeak pertsona prestakuntza-sistema arautuan sartzeko erraztasunak eman ditzake, eta ondorioz, pertsona horiek lan-merkatuan sartzeko aukerak zabal ditzakete.
- **Enpresak:** ikasketa eta gaitasun informalak egiaztatzea edo onartzea interesgarria izan daiteke, enpresek giza baliabideen kudeaketan beren ahalbideak areagotzeko.
- **Gizartea oro har:** baliabide horiek interesgarriak izan daitezke alor desberdinen artean (heziketa, lana, etxea) gaitasunen transferentzia errazteko eta baliabideen esleipena hobetzeko.

Herrialde horiek inplementatu dituzten helburu, aukera eta erronka politikoak kontuan izanik, hiru jarduerara-ildo bateratu ikus daitezke, ikasketa ez formal eta informalerara geroz eta arreta gehiago erakarri dituztenak³².

a) Hezkuntza eta prestakuntza berriro diseinatzea

Ikasketa iraunkorreko sistema bat sortzeak arreta gehiago jartzea eskatzen du pertsonaren prestakuntzako alor bakoitzean eta bizitzako etapa desberdinetan ikasketak hartzen dituen forma anitzen arteko hartu-emanetan. Sistema arautua, ordea, hasierako hezkuntzan eta prestakuntzan oinarritzen da gehienbat. Ikasketa-sistema iraunkorrak heziketa formal eta informalaren eremu anitz guztiak elkarren artean lotzeko erronkari erantzun behar dio. Lotura hori egokitzen jotzen da bi premia-tipologia asetzeko: bata, gizabanakoak bere jakintza etengabe berritzeko eta zabaltzeko premiari erantzuteko eta, bestea, inguru ez segurua eta etengabe aldatzen ari den honetan enpresek dituzten premiei erantzuteko. Lanbide-gaitasunak atzeman, ebaluatu eta onartzeak berebiziko garrantzia dauka, horiek oso-osorik integratu nahi badira ikasketa iraunkorreko eta jakintza berritzeko estrategian.

b) Gaitasun-gakoak

Zeharkako gaitasunak definitzea, atzematea eta garatzea, edo ikasketa informalak ebaluatzeko arazoa elkarrekin estu-estu lotuta daude, nahiz eta sarri elkarrekin zerikusirik ez duten bezala aztertu izan. Eztabaida honek txanpon beraren bi aurpegiak erakusten ditu:

31. *La evaluación del aprendizaje no formal: calidad y limitaciones de las metodologías.* Jens Bjornavold. CEDEFOP aldizkaria, 12. alea.

32. CEDEFOP, 2000. *Making Learning Visible: Identification, assesment and recognition of non-formal learning in Europe.*

Hezkuntza arautuko sistematan, ikasketa gizarte modernoaren ezaugarria da eta ebaluaziorako metodo estandarizatuak ditu; ikasketa ez formala, ordea, askoz ere zailagoa da atzematea eta ebaluatzea

eraketaren eta teknologiaren bilakaera paregabea duen gizartea honen barruan zenbait heziketa- eta gaitasun-betebeharrak geroz eta gehiago hobesten direla ikus daiteke.

Ikasketa informalak atzemateko, ebaluatzeko eta onartzeko metodologia eta sistemak gaitasun-gakoak bistaratzeko eta indartzeko erreminta praktikotzat jo daitezke. Alabaina, ikasketa ez formala eta ikasketa informala terminoek ez dute askorik laguntzen gai horri buruz, gaitasun-gakoen eduki, erreferentzia-profil edo kalitateari buruz ia ez dutelako informazio interesgarririk gehitzen. Ordea, esan daiteke, kontzeptua berez oso garrantzitsua dela, arreta guztia irakas-kuntza eta heziketa arautuko sistemetatik kanpo dauden ikasketa-eremu eta moduen eskaintza ikaragarrira erakartzen duelako. Ondorioz, gaitasun-gakoekin harreman estuagoak finkatu beharra dago, gaitasun-gakoak formula heterogeneoetatik sor daitezkeelako edo horien bidez eskura daitezkeelako. Ikasketa formal eta informalaren arteko lotura gaitasun-gakoen alorrean adierazten diren helburuak gauzatzeko eta gorpuzteko modutzat jo daiteke.

c) Hurbilpen-bideak sustatzea

Dauden baliabide guztiak aztertuz, esan daiteke ikasketa informala neurketa eta ebaluaziorako metodologiak gehienbat eskaintzan eta, noizbehinka, eskarian (bottom up estrategiak) oinarritu direla. Laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren bosturtekoan, joera hori indarberrituta agertzen da; aldi horretan, era berean, Europan eratu ziren zenbait programa (Adapt edo Leonardo da Vinci).

Programa horiek eskaini dituzten baliabide ekonomikoek ikasketa informala ebaluatzeko tresna eta lanabesak garatzen lagundu dute. Nahiz eta proiektu horiek eman dituzten emaitzak era askotakoak izan, horiek erakunde eta instituzio parte hartzaileetan epe luzera izango duten eragina ez da gutxietsi behar. Etorkizunak erakutsiko du mugimendu horrek, eskaintzan oinarriturik bultzatu zenak, erabilitzailerik aurkitzen duen sektore mailan edo enpresa mailan eta horiek gaiari buruz egindako ahaleginak estimatzen dituzten eta baliabideak beren erakundeetan aplikatzen dituzten.

2.2.2. Europako joerak: ebaluazioaren ikuspegiak aztertuz

1995. urtean *Irakatsi eta ikasi. Jakintzaren gizarterantz* liburu zuriak ikasketa informala ebaluatzearen arazoa gardentasunez konpontzen lagundu zuen, eta aldi batera nazio mailan eta sektore mailan erabiltzen ziren metodoetan lagundu zuen. Arestian esan denez, Europako zenbait programek (Leonardo da Vinci edo Adapt) aukera eman dute

Ikasketa formal eta informala arteko lotura gaitasun-gakoen alorrean adierazten diren helburuak gauzatzeko eta gorpuzteko modutzat jo daiteke

inoiz ezagutu gabeko neurri esperimentalak finantzatzeko. Europako Batzordeak gaiari buruzko interesa sustatu du eta esperimentazio metodologikoa eta instituzionala modu praktikoan garatzen lagundu du.

Europako herrialdeetan inplementatu diren baliabideen analisiak, elkarrizketa eta orientazioan oinarritutakoak, jite telematikoko sistema adituen erabileran oinarritzen diren baliabideetara hurbiltzeko aukera ematen dute.

Bjornavold³³-ek dioenez, baliabide horiek, ikuspegi desberdinak eskaintzen badituzte ere, hiru zutoinetan oinarritzen dira:

- **Gastuak:** hezitzaileen partaidetza barnebiltzen duten metodoak, noizbehinka funtzioen ebaluazioarekin konbinatuz, garestiak ateratzen dira eta beren finantzaketarako zalantzak eragiten dituzte: herri-administrazioak finantzatu behar ditu, enpresak ala gizabakoak?
- **Gaitasuna:** prozesuen konplexutasunak ebaluazioaren xedeko izangaien kopurua mugatzen du eta hartara murriztu egiten du sistemak eskaintzen duen potentzial globala.
- **Neutraltasuna/objektibotasuna:** erkatzeko zerrendak eta alde zaurretik finkatutako prozedurak erabiltzen badira ere, zalantza asko sortu da ebaluazio horien fidagarritasunari buruz, batez ere horien erantzukizuna dutenen (ebaluatzaileak, aholkulariak) subjektibotasuna kontuan izanik, ez baita ahaztu behar emaitza kontrajarrietara eramane gaitzaketa.

Nolanahi ere, joeren aniztasunak bost herrialde-talde handi eta jarduerak identifikatzeko aukera ematen dute Europa mailan³⁴. Nahiz eta talde horietako bakoitzean sartzen diren herrialde bakoitzak bere bereizitasuna erakutsi sistema eta aukera metodologiko eta instituzionalei dagokienez, beren hurbilpen geografikoak eta instituzionalak badirudi motibatu egiten dituztela kasu guztietan ikas-kuntza eta konponbide bateratuak eta hein handi batean komunak.

Sistema bikoitzerako joera: Alemania eta Austria

Ikasketa ez formala atzematea, ebaluatzea eta onartzeari buruz bi herrialde horiek duten ikuspegia antzekoa da. Interesgarri gertatzen da, beren heziketa-sisteman (sistema bikoitzarekin) lanerako praktika modurik sistematikoenean gehien erabili duten bi herrialde horiek,

33. *La evaluación del aprendizaje no formal: calidad y limitaciones de las metodologías*. Jens Bjornavold. CEDEFOP aldizkaria, 12. alea

34. *Identificación, evaluación y reconocimiento de los aprendizajes no formales: tendencias europeas*. Jens Bjornavold. CEDEFOP

Etorkizunak erakutsiko du mugimendu horrek, eskaintzan oinarriturik bultzatu zenak, erabiltzailerik aurkitzen duen sektore mailan edo enpresa mailan eta horiek gaiari buruz egindako ahaleginak estimatzen dituzten eta baliabideak beren erakundeetan aplikatzen dituzten

egundaino joera berri hau onartzeko erreserba gehien jartzen duten herrialdeak direla ikustea.

Erreserba hori sistema bikoitzak bai pedagogia mailan (irakas-kuntza formalaren eta laneko esperientziaren konbinazioa) bai gaitasunen mailan (ikasle kopuru handiaren partaidetza) lortu duen arrakastaren ondorio da. Faktore bat baino gehiago dira sistema bikoitzeko ziurtagiri formalek lortu duten estimu handia. Bestalde, adierazi behar da heziketa- eta prestakuntza-sistema bete-betean hasierako heziketan oinarritzen direla: ez dago beste bide batzuk erabiltzeko ohiturarik, eta are gutxiago horiek sistema formaletik kanpokoak badira.

Edozein modutara, jarrera aldaketa sortzen ari da eta ikasketa informalei geroz eta garrantzi handiago ematen zaie. Zentzu horretan, funtsezko konponbidetzat jotzen da malgutasuna modulatzearen bidez areagotzeko aukera, horrela egiteak hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorraren arteko harremanak hobetzeko eta estutze-ko aukera emango luketelako.

Badira ekimen batzuk, adibidez, *externenprüfung* (heziketa informalearen eta formalaren arteko zubia egiten duena), esperientzia duten langileei beta ematen dietenak artisautzat (*abschlussprüfung*) antolatzen diren amaierako azterketetan parte hartzeko, sistema bikoitzeko heziketa-ibilbidea egin duten ikasleekin batera.

Leonardo da Vinci eta *Adapt* bezalako programen barruan gartu diren proiektuek aukera eman dute eskuartze-ildo honetan sakontzeko.

Mediterraneo aldeko joera: Grezia, Italia, Espainia³⁵ eta Portugal

Herrialde hauetan ikasketa informalerako sistema eta metodologia bereziak sartzeari buruzko jarrera aldekoa da erabat. Bai esparru publikoan bai pribatuan ageri-agerian jarri da prestakuntza-prozesu horien erabilgarritasuna.

Nolanahi ere, herrialde horietako (Grezia, Italia, Espainia eta Portugal) ekonomien zati handi baten oinarri den ikasketa informalak duen garrantziak gardentasun handiagoa eskatzen du. Gauza ez da bakarrik jada dauden gaitasunak erabiltzeko erraztasunak ematea, inplementatu diren baliabideen kalitatea ere hobetu egin behar da.

Finkatutako metodologiak sistemen kalitatea hobetzeko joera duten erremintatzat jotzen dira, eta hori funtsezkoa da ez zaielako

35. Espainiako egoeran gehiago sakontzeko, ikus CIDEDEC, Lanerako Koadernoak, 27 zk. (www.lanbide.net webean, argitalpenak esteka).

Alemania eta Austrian badira ekimen batzuk, adibidez, externenprüfung (heziketa formalaren eta informalearen arteko zubia egiten duena), esperientzia duten langileei beta ematen dietenak artisautzat (abschlussprüfung) antolatzen diren amaierako azterketetan parte hartzeko, sistema bikoitzeko heziketa-ibilbidea egin duten ikasleekin batera

bakarrik langile edo enpresa indibidualei aplikatzen, baita bestelako jarduera-sektoreei ere.

Herrialde horiek argi eta garbi erakusten dute sistemak martxan jartzen direnetik eta bere aplikazio praktikoraino dagoen ibilbidea luzea dela. Eragin desberdinetako hezkuntza-erreformek jite legal eta politikoko aldaketak ekarri dituzte, nahiz eta ebaluatzeko eta onartzeko praktika benetan ezartzeak garapen handiagoa eskatu. Mediterraneo aldeko herrialdeetako joera honek publikoki finantzatu diren proiektuek jokatu duten eginkizun garrantzitsua ikusteko beta ematen du. Proiektu horiek metodologia- eta baliabide-gama anitzeko proiektuak planteatzen dituzte eta batez ere honako hiru ikuspegietan oinarritzen dira:

- Izaera bereiziko eztabaidak, gutxi gorabehera egituratuak. Horietan nagusi dira interesatuen adierazpenak.

- Ezaugarri pertsonalen autoebaluazioa, tresna berezien bidez.

- Autoebaluazioak, taldeetako praktiken bidez.

Hurbileko etorkizunak erakutsiko du eskuartzeko horiek pertsona eta enpresei benetan interesatzen zaien ala ez.

Joera eskandinaviarra: Finlandia, Norvegia, Suedia eta Danimarka

Ezin da hitz egin eredu eskandinaviar batetaz, ez zentzu zorrotzean behintzat, herrialde horiek, nahiz eta elkarrekin heziketa-prestakuntza alorrean tradizio komun garrantzitsua izan, bakoitzak bere sistema aukeratu duelako bakoitzak dituen eta erabiltzen dituen estrategiak ere desberdinak direlako. Baina Finlandia, Norvegia, Suedia eta Danimarkaren artean dauden desberdintasunek ez dute eragotzi lau herrialdeek, lege-ekimenez eta instituzioen bidez, heziketa eta prestakuntza arautuko sistemaren eta eskolatik kanpo egiten den heziketaren arteko harremanak sendotzeko neurri bateratuak hartzea.

Aipatu lau herrialde horietako instituzio eta antolamenduen aukera-aniztasun hori laneko prestakuntzari ematen zaion garrantziari buruzko ikuspegi desberdinei atxikita doa. Finlandia eta Norvegiako erreformek laneko esperientziaren bidezko prestakuntzaren garrantzia azpimarratzen dute, eta zentzu horretan instituzioetan aldaketa egitea inplementatu duten bitartean, Suedian holako joerarik ez da garbi ikusi. Danimarkari dagokionez, adierazi behar da oso gertu dagoela aurreko lerroetan aipatu den joera bikoitzetik, bertako hasie-

36. Adierazi behar da Finlandian eta Norvegian ikaskuntza ez formalaren gaia hizpide nagusi bihurtu dela heziketa eta prestakuntza publikoari buruzko eztabaidetan; beste bi herrialdeeta ordea eta batez ere Suedian, gai honek ez du interes berezirik sortu.

Nolanahi ere, herrialde horietako (Grezia, Italia, Espainia eta Portugal) ekonomien zati handi baten oinarri den ikasketa informalak duen garrantziak gardentasun handiagoa eskatzen du. Gauza ez da bakarrik jada dauden gaitasunak erabiltzeko erraztasunak ematea, inplementatu diren baliabideen kalitatea ere hobetu egin behar da

rako lanbide-heziketa, jite bikoitza duena, egokitzen jotzen delako lantokiko prestakuntza barnebiltzeko.

Alabaina, herrialde horien artean elkarren arteko ikasketa eta transferentzia ikusi ohi da, eta azken bizpahiru urteetan joera hori areagotu egin da. Finlandia eta Norvegiako sistemek Suediako arazoari buruzko dokumenturik gaurkoenetan izan duten eragina lotura horri buruzko adibidea da. Finlandia eta Norvegiak argi eta garbi ikasketa ez formalak ikasketa iraunkorraren estrategia orokorreko ataltzat jo dituzte. Suedia eta Danimarkan aurkeztutako egitasmoek joera bera erakusten dute, eta datozen urteetara begira gai hauetan sakondu beharra azpimarratzen dute.

NVQen joera: Erresuma Batua³⁷, Irlanda eta Herbehereak

Herrialde horietan errendimendura bideratutako eta emaitzetan oinarritutako hezkuntza eta prestakuntza eredu bat ezarrita dagoela ikusten da. Herrialde horietan, oro har, heziketa- eta prestakuntza-erakundeek kanpoko prozesutzat jotzen da ikasketa, baita gaitasunak lortzeko bide garrantzitsu eta onargarriztat ere; eta horixe da hain zuzen joera honen ezaugarria. Zailtasuna, alabaina, ideia hori benetan gauzatzeko baliabidean datza, hau da, ezaugarri horietako sistema bat ezartzeko moduan. Britainia eta Herbehereetako esperientziak instituzio, metodologia eta praktikaren alorreko arazo batzuk islatzen dituzte, eta horiek berarekin bat dakarte ikasketa ez formala beren egituraren barruan integrazteko sistema bat sortu beharra.

Sistema horien erronkarik handiena nazio mailan eta, ondorioz, kalitatean (kontuan izan behar baita ebaluazioa arau horietan eta horiek gauzatzeko irizpideak garatu beharrean oinarrituta egiten dela) onartutako gaitasunen arau batzuk garatu beharrean oinarritzen da. Britainiako esperientziak ageri utzi ditu orokorreki eta gehiegi bereizitako gaitasunen deskribapen eta definizioaren arteko oreka bilatzeak dakartzan zailtasunak.

Britainia eta Herbeheretako kasuetan ageri dagoen beste arazo batek ebaluazioen baliozkotasuna eta fidagarritasuna jartzen ditu zalantzan.

Azkenik, adierazi behar da herrialde horiek beren lanbide-heziketaren sistemari egitura modulatu eman diotela, eta faktore horrek badi-rudi metodologiak eta instituzioak modu azkar eta eskala handian aplikatzeko erraztasunak ematen dituela, ikasketa ez formalaren alorrean.

37. Erresuma Batuko kasuan eta NVQen ikuspegian sakontzeko jo CIDEC, Lanerako Koadernoak 27 zk.ra (eskuragarri www.lanbide.net webeko argitalpenak estekan).

Finlandia, Norvegia, Suedia eta Danimarkaren artean dauden desberdintasunek ez dute eragotzi lau herrialdeek, lege-ekimenez eta instituzioen bidez, heziketa eta prestakuntza arautuko sistemaren eta eskolatik kanpo egiten den heziketaren arteko harremanak sendotzeko neurri bateratuak hartzea

Frantziar joera: Frantzia eta Belgika

Frantzia ikasketa ez formalak atzemateari, ebaluatzeari eta onartzeari dagozkien zenbait arazotan Europako herrialderik aurreratuenetakotzat jo daiteke. Belgikak ere, nahiz eta Frantzia bezain ekimen handikoa ez izan, azken urteetan neurri batzuk hartu ditu hein handi batean Frantziako esperientziaren eraginez.

1985. urtetik datoz Frantziako lehen ekimenak, orduan jarri baitzuten abian hezkuntza formaletik kanpo eskuratutako gaitasunak onartzeko bilan de compétences sistema. Horren xedea enpresari eta langileari lanbide-gaitasunak atzematen eta ebaluatzen laguntzea da, hala nola karrerak eta gaitasun horiek lanaren munduan erabiltzera bultzatzea.

Frantziar bigarren ekimen garrantzitsuak 1992ko uztaileko Legeari (instituzio formaletatik kanpo lortutako gaitasunak balioztatzearena) buruzko aipamena egiten du. Lege hori, bestalde, zuzenean lotuta dago titulu eta ziurtagiriak emateko sistema nazionalarekin, berdintasuna onartzen baitie sistema arautuaren barruan edo kanpoan lortutako gaitasunei. 1992. urtetik hona zenbait mailatako lanbide ziurtagiriak (*Certificate d'aptitude professionnelle*) lor daitezke laneko esperientziaren bidez lortutako gaitasun ez formalen ebaluazioen bidez.

Hirugarren lekuan, Frantziako Merkataritza eta Industria Ganberrek hartutako ekimen bat azpimarratu behar da, horren helburua prestakuntzaren sistema arautua bereizirik ebaluatzeko prozedura eta mailan sortzea delako. Pertsonalari ziurtagiriak emateko prozedurei buruzko EN45013 Europako araua abiapuntutzat hartuz, Frantziak oso emaitza arrakastatsuak lortu ditu.

Belgikan, ordea, egoera bestelakoa da erabat, gai honi buruzko eztabaida sakon bakar batik ere ez baitago. Alabaina, gaur egun Frantziako antzeko jarduerak garatzen ari dira, arestian aipatu dugun Europako arau horretan oinarriturik.

2.2.3. Ikasketa ez formalak nola atzeman, ebaluatu eta onartu

Aurreko ataletan ikasketa ez formalera hurbiltzeko interesa eta zailtasuna erakutsi dira, gehienbat ikasketa-mota hori ebaluatzeari eta onartzeari dagokienez. Alabaina, gai honen garrantziak oso prozedura neketsuetan sakontzera behartzen gaitu. Horregatik, eta gaingiroki

1985. urtetik datoz Frantziako lehen ekimenak, orduan jarri baitzuten abian hezkuntza formaletik kanpo eskuratutako gaitasunak onartzeko bilan de compétences sistema. Horren bidez heziketa formalaz kanpo lortutako gaitasunak onartzen dira. 1992. urtetik hona, zenbait mailatako lanbide ziurtagiriak (*Certificate d'aptitude professionnelle*) lor daitezke laneko esperientziaren bidez

bada ere, ondoren zentzu horretan doazen ekimenak garatzeko funtsezkoak diren bi arazori begiratu bat emango diegu: alde batetik, ikasketa hauen tipologia neurtzeko kontuan izan behar diren arazo batzuk ikusiko dira eta, bestetik, sistema horiek ikuspegi instituzional eta politikotik onartzeko eta legezatzeko zenbait arazo aztertuko dira.

Maila metodologikoko funtsezko arazoak

Anitzak dira ikuspegi metodologikotik begiratuta, ikasketa ez formalaren arazoa aztertzerakoan egin beharreko galderak.

- a) Gaitasun ez formalak atzemateko eta neurtzeko metodologiak garatu ote daitezke? Ikasketa informalearen ebaluaziorako metodologiek oraindik bide luzea egin behar badute ere, heziketa-sistema arautuetako ikasketek praktika, ikerketa eta teoriako historia luzea egin dute jada. Lanaren eta aisialdiaren alorretan ebaluazio sistemen egungo aplikazioa nahitaez sistema formaleen tradizio honi lotuta dago.
- b) Pentsa daiteke heziketa-sistema eta prestakuntza-sistema arautuen barruko ebaluazioak bi helburu nagusi dituela: heziketa helburua, ikasketa prozesuak laguntzen duena, eta helburu gehigarria, heziketa-sekuentzia jakin bat burura eraman dela erakusten duena. Ebaluazio-sistema berezi batek ematen duen konfiantza, oro har, fidagarritasun (emaitzak errepikatu egiten dira ebaluatzen duena edozein delarik ere) eta baliotasun (lortu nahi dena neurtzen da) irizpideetara lotzen da. Nolanahi ere, irizpide horiek erreferentzia-puntuekin, epaitze-irizpideekin, prestakuntza mailekin, eta abarrekin lotzen dira. Bi dira erreferentzia-puntuak eta irizpideak finkatzeko printzipioak: lehenbizi, heziketa-sistema arautuen barruan ohiz arau bati buruzko erreferentzia erabiltzen da (talde baten inguruabarrari buruzkoa). Bestetik, erreferentzia-puntu bat sortzeak errendimendu jakin bat irizpide jakin batekin erlazionatzea adierazten du. Irizpideetan oinarritutako ebaluazio batek jakintza- eta gaitasun-eremu bat mugatzea eskatzen du eta irizpide orokorrak garatzen saiatzen da, alor jakin batean atzemandako heziketa-errendimenduan oinarriturik.
- c) Ikasketa ez formala ebaluatzeko erabiltzen diren ikuspegi metodologiko eta instituzionalen beste arazo bat zera da: jakitea ea beraiek dauden iguripenei erantzuteko gai diren eta balio duten

Ikasketa informalearen ebaluaziorako metodologiek oraindik bide luzea egin behar badute ere, heziketa-sistema arautuetako ikasketek praktika, ikerketa eta teoriako historia luzea egin dute jada

gaitasun-gakoen diagnosis egiteko edota heziketa- eta prestakuntza-sistemak berriro diseinatzeko gauza diren.

d) Joera desberdinak aurkezteko aurreko ataletan, gaur egun ebaluaziorako erabiltzen diren hainbat proposamen metodologiko azaldu dira. Heziketa- eta prestakuntza-sistema formaleta-ko ebaluazioaren egungo egoera eta ikasketa ez formalean erabiltzen diren metodologiak elkarrekin erkatzen badira, azken horiek berrikuntza handirik ez dutela izan ikusi ahal izango litzateke. Bestalde, eginkizun horren konplexutasunak praktika aniztasunera jo du, eta hori interpretatzeko bi ikuspegi daude:

- Bata, izaera positiboa duena. Aniztasunak ikasketa ez formalak duen testuinguru-izaera eta izaera partziala tratatzeko behar diren ikuspegi askotarako aukera ematen du.
- Bestea, ikuspegi negatiboa. Aniztasun horrek gehiegizko heterogeneotasuna dakarrelako eta, ondorioz, sendotasun gutxi erakusten duelako eredu orokorra sortzeko.

e) Aurreko ataletan aztertu diren esperientzien bidez ondorio batzuk atera daitezke ikuspegi desberdinak aztertzerakoan kontuan izateko:

- Dauden ekimen askok helburu gehiegi lortu nahi dituzte aldi berean. Batzuetan, metodologiaz lortu nahi diren helburuak zehaztu eta ulertu baino lehen aukeratzen dira.
- Beste batzuetan, metodologiak bai helburu gehigarrietan bai heziketa-helburuetan oinarritzen dira, aldezturik bi eginkizun horien arteko tentsioak garbitu gabe.
- Azken finean, ondoriozta daiteke, garrantzitsuena ez dela erabilitako metodologia, helburuak zehaztasunez argitzea baizik. Bistakoa dirudi ikasketa ez formala atzemateak, ebaluatzeak eta aintzatesteak ikuspegi metodologiko aniztatan oinarritu behar du, eta ikuspegi metodologiko horiek xehetasunez definitu behar diren helburuekin bat konbinatu behar direla. Gaur egun esan daiteke erronka guzti horiek aldi berean konponduko dituen metodologia bateraturik ez dagoela.

Azkenik, ondoren zenbait hausnarketa eskaintzen dira ikasketa ez formala analizatzen laguntzeko. Ondoren datoz hausnarketok galdera eta erantzun moduan.

Heziketa- eta prestakuntza-sistema formaleta-ko ebaluazioaren egungo egoera eta ikasketa ez formalean erabiltzen diren metodologiak elkarrekin erkatzen badira, azken horiek berrikuntza handirik ez dutela izan ikusi ahal litzateke. Bestalde, eginkizun horren konplexutasunak praktika aniztasunera jo du

Galderak:

Prestakuntza-funtzioa ala funtzio gehigarria bete behar dute ikasketa informalak atzemateko, ebaluatzeke eta aintzatesteke metodologia berriek (eta sistema instituzionalek)? Zein funtzio bete behar dute ikasketa informalak atzemateko, ebaluatzeke eta aintzatesteke metodologia berriek (eta sistema instituzionalek)? Edo arazoa ikasketa indibidualeko edo enpresaritzako prozesuak orientatzeko baliabide eta erreminta horiek erabiltzen ikastean datza? edo arazoa funtzio gehigarria baino ez da, leku bat, mugatuagoa, ikasketa informala heziketa eta prestakuntza arautuaren testuinguruan sartu dela ziurtatzeko baino ez dena?

Erantzunak

Ebaluazioen helburua, arlo informalean zein formalean, erabakigarria izango da onartzen diren metodologietarako, eta azken finean, prozesu osoaren arrakastarako. Jada ilustratu denez, funtzio horiek ez daude beti argi eta garbi berezita. Sarritan, funtzio gehigarriaren eta heziketa-funtzioaren konbinazio moduan agertzen dira, “norbere gaitasunen Europako txartela” atalean ilustratu den bezala. Metodologia eta sistema hauen garapenak arrakasta izan dezan, funtzio horiek zorrotzasunik handienaz zehaztu behar dira edota era baikorrean eta errealistan konbinatu.

Galderak:

Heziketa-prozesuen eta testuinguruaren aniztasunak honako galdera egitera derrigortzen gaitu: mailan honetan lortu ahal daiteke sistema arautuetako fidagarritasun bera.

Erantzunak

Heziketa-prozesuen eta testuinguruaren aniztasunak oso gaitz bihurtzen du proba estandarizatuaren (adibidez, erantzun anitzeko galdetegiak) antzeko fidagarritasuna lortzea. Arazoa zera da, alor berri honetan fidagarritasuna (eta zer motatako fidagarritasuna) nola lor daitekeen jakitea. Fidagarritasuna ebaluazio-prozesuan (mailak, prozedurak, eta abar) gardentasunik handienaz lortu behar da eta maila guztietan eta funtzio guztietan praktika sistematikoak eta gardenak erakustean oinarritu behar da.

Galderak:

Ikasketa testuinguruari lotuta egoteak eta hein batean tazitua izateak zaildu egiten dute balioztapenaren bilaketa eta, ondorioz, honako beste galdera hau egitera behartzen gaitu: metodologia hauek arazoari behar bezala erantzuteko moduan diseinatu eta eratu al dira?

Erantzunak

Ikasketaren testuinguruari lotuta egoteak eta hein batean tazitua izateak zaildu egiten du ebaluazioak balioztatzea. Aurreikusitakoaz bestelakoa den zerbait neurtzeko arriskua benetan gerta daitekeen gauza da. Izangaiaren eta heziketa-eremuaren irudi lausotua ekidin behar da, eta bere autentikotasuna bilatu. Metodologiek eginkizunaren konplexutasuna islatu behar lukete eta elementu bakanak eta testuinguruari buruz bereziak direnak atzemateko gauza izan beharko lukete.

Galderak:

Erreferentzia-puntuena (“mailak”) funtsezko gaia da: eremu jakin baten mugak (gaitasunen irismena eta edukia barne) behar bezala zehaztu al dira?

Erantzunak

Erreferentzia-puntuen kontu hau funtsezko gaia da ikasketa formalak zein informalak ebaluatzeko. Ikasketa informalak ebaluatzeko testuinguruak ez du gogo bizirik eragiten (batez ere, bertan barnebiltzen diren gaitasunen aniztasunaren ondorioz); zenbait errendimendu-arauei eta irizpideei edo eremu jakin batzuei buruzko aipamena, ordea, oinarritzko elementutzat jotzen da. Gaitasun-eremuen eta eremu horietan gaitasunek har ditzaketen formen mugak (irispinak eta edukiak) zehazteak berebiziko garrantzia dauka. Zenbat eta eremu zabalagoa, are zailago izango da benetako ebaluazio-sistemak diseinatzea. Horrek, bide desberdinetatik bada ere, sistemak bete behar dituen funtzioen arazora garamatza: ikasketa-prozesuak hobetu behar dira edo titulazio horiek ziurtatu? Bi asmoak bidezkoak bezain erabilgarriak dira. Baina erreferentzia-puntuak erabakitzea aldatu egiten da modu nabarmenean aukeratutako asmoaren arabera.

Maila politikoan eta instituzionalean funtsezkoak diren arazoak

Ikuspegi politiko eta instituzionaletik begiratuta, egoeraren gaineko azterketak honako arazoak mahairatzen ditu:

- a) Ikasketa informala ebaluatzeko eta onartzeko sistemen etorkizuneko funtzioa ezin da mugatu metodologia-kalitatearen arazora. Metodologia fidagarriak eta baliozkoak garrantzitsuak badira ere, ez dira nahikoa izango hezkuntzako pertsonak, enpresek eta erakundeek ebaluazioak fidagarritzat eta ontzat emateko, are gutxiago ebaluazio horiei eginkizun gehigarria ematen bazaie, hau da, lan-merkatuan edo prestakuntzan lanpostu baten bila ari direnen gaitasunak ziurtatzeko eginkizuna ematen bazaie.
- b) Ebaluazioek benetako balioa har dezaten, premiazkoa izango da alde aurretik jite politiko eta instituzionaleko zenbait baldintza betetzea. Adibidez, zenbait neurri lege-oinarria emateko erabaki politikoak hartzea eta neurri horientzat prozesu osagarria eratzea, baliabideen jabetasuna, kontrola edo erabilgarritasuna zehazteko. Hartara, ikasketa ez formalaren ebaluazioa irizpide tekniko eta instrumentalen (fidagarritasuna eta baliozkotasuna) arabera epaituko litzateke, eta baita araugintza-irizpideen (legetasuna eta legeztatzea) arabera ere.
- c) Ez du zentzurik ikasketa ez formala identifikatzeko, ebaluatzeko eta onartzeko metodologiak edo baliabideak garatzea, ikasketa horiek egingo diren lekuko politika, kultura eta gizartearen inguruabarrak kontuan hartu gabe. Lehen metodologia-eskakizuna (gaitasunak onartzeko xede eta funtzioa) bete ondoren,

Ebaluazioek benetako balioa har dezaten, premiazkoa izango da alde aurretik jite politiko eta instituzionaleko zenbait baldintza betetzea. Adibidez, zenbait neurri lege-oinarria emateko erabaki politikoak hartzea eta neurri horientzat prozesu osagarria eratzea, baliabideen jabetasuna, kontrola edo erabilgarritasuna zehazteko

ebaluazio-sistema baten inplementazio instituzional eta politiko bi estrategiaren bidez egin daiteke: bata, diseinu instituzionalean oinarritua eta, bestea, elkarren ikasketan. Bada hirugarren alderdi bat, alor honetako ekimen praktikorako printzipioak adierazten dituena.

- d) Diseinu instituzionalak, ordea, funtsezko eskakizun batzuk bete beharko ditu, ikasketa ez formalen ziurtagiriek heziketa eta prestakuntza araturako ematen direnen antzekoak izan behar badute. Beste ezer baino lehen, izangaiek ezaugarri horietako sistemaren sorkuntzan eta funtzionamenduan parte hartu behar dute. Kontuan izanik ikasketa informalak onartzeko sistemek zuzeneko eragina izango dutela soldaten finkapenean eta lan-merkatuko enplegu eta lanpostuen banaketan, begi bistakoa da arazoak interesen arteko oreka bilatu behar duela (nahiz eta orain arte gehiegirik ez hitz egin horretaz). Zeinek parte hartu behar duen eta zein iritzi izan behar den kontuan zehazteak berebiziko eragina izango du hurbileko etorkizunean. Bigarrenez, premiazkoa da prozesu osoa informazio garrantzitsuz elikatzea: horren jite ordezkatzailerik kontuan izanik, arauak eta erreferentzia-puntua definitzeak eta artikulatzeak informazio nahikoa eta orekatua bilatzea eskatzen dute bereziki. Hirugarrenez, egitura eta prozeduren gardentasunak ere nahitaezko jitea dute. Funtzioak (arauak, ebaluazioak, baliabideak, kalitate-kontrola) garbi eta argi banatzen dituzten egiturak sortu ahal dira; prozeduren gardentasuna guztiz derrigorrezkoa izango da, hori onartzea eta gizarteak legitimatzea lortu nahi bada. Ikerlari eta politikoei arreta osoa jarri beharko dizkiete etorkizun hurbilera gai horiei guztiei.
- e) Bestalde, proiektu, erakunde eta herrialdeek elkarren arteko ikasketa bilatu eta sustatu behar dute. Gaur egun, ikasketa horren potentzialak erraz gainditzen du praktikan gertatzen dena. Ikasketa-mekanismo horien sorkuntzan beraiekin lortu nahi diren helburu eta funtzioak islatu behar dira. Azkenik, behar-beharrezkoa da koordinazioa areagotzea eta Europa mailan zein nazio mailan antolatzen diren jarduerak laguntzea, batez ere horiek gaur egun bidean dauden proiektu, programa eta erreforma instituzional anitzei etekinak ateratzeko direnean.
- f) Ikasketa ez formalaren identifikazio, ebaluazio eta onarpenaren

Kontuan izanik ikasketa informalak onartzeko sistemek zuzeneko eragina izango dutela soldaten finkapenean eta lan-merkatuko enplegu eta lanpostuen banaketan, begi bistakoa da arazoak interesen arteko oreka bilatu behar duela (nahiz eta orain arte gehiegirik ez hitz egin horretaz). Zeinek parte hartu behar duen eta zein iritzi izan behar den kontuan zehazteak berebiziko eragina izango du hurbileko etorkizunean

alorrean Europa mailako foro edo sare bat eratu beharko litzateke; foro horretan, gainera, epe luzera lan egingo litzateke, emeki-emeki nazioarteko panorama eta sistema desberdinen sendotasuna hobetzeko lan egingo litzateke. Foroaren oinarriko planteamenduak zabalak izan beharko lirateke, ikuspegi desberdinak jasotzeko, eta bertan gobernu desberdinak eta gizarteko agenteak ere egon beharko lirateke. Foro horren helburua bilgune bat bilatzea izango litzateke, bertan bildu eta eskuz aldatzeko ikasketa ez formala identifikatzeko, ebaluatzeko eta onartzeko informazio eta asmoak. Lana honako helburuen atzetik antolatuko litzateke:

- Ikasketa ez formala identifikatzeko, ebaluatzeko eta onartzeko metodologiaren eta sistemen sendotasunak eta ahuleziak ulertzen laguntzea batak besteari.
- Alorrari buruzko ikuspegi orokorrari laguntzea eta metodologia eta sistemak hobetzeko oinarriak finkatzea.
- Alor honetan berrikuntza sustatzea; eta
- Aholkularitza praktikoa ematea nazio eta Europa mailako agintariei.

Oso garrantzitsua da ikuspegi orokor bat lortzeko eginkizunean indar berezia jartzea; esperientzia horiek elkarrekin trukatzeko garrantzi handia dauka metodologiaren kalitatea hobetzeko eta instituzio eta sistemen legitimitatea lortzeko.

Ikasketa ez formalaren identifikazio, ebaluazio eta onarpenaren alorrean Europa mailako foro edo sare bat eratu beharko litzateke. Foro horren helburua bilgune bat bilatzea izango litzateke, ikasketa ez formala identifikatzeko, ebaluatzeko eta onartzeko informazio eta asmoak bertan biltzeko eta eskuz aldatzeko

IKASKETA EZ FORMALA EBALUATZEKO METODOLOGIAK

1. KASUA 1: BILAN DE COMPÉTENCES (FRANTZIA)

Frantziako Bilan de Compétences delakoak era honetara antolatzen ditu ikasketa arautuko sistematik kanpo lortutako gaitasunak:

- **Hasierako fasea:** ebaluazioaren xedeko izangaiak berak zehazten eta aztertzen ditu bere beharrianak. Etapa honetan xehetasunik handienaz adierazten zaio izangaiari bera ebaluatzeko erabiliko diren metodologia eta teknikak.
- **Ikerketa-fasea:** fase honetan izangaiari laguntza pertsonala ematen zaio bere balore, interes eta asmoak, jakintza eta gaitasunak eta abilezia orokorrak eta lanekoak identifikatzeko; fase honetan, halaber, izangaiek beren egungo egoerari eta etorkizunekoari aurre egiteko duten motibazioa diagnostikatzen da.

- **Itxierako fasea:** etapa honetan Gaitasunen Balantzearen egoera aztertzen da, izangaiari egindako elkarrizketaren bidez. Amaierako lantzat izangaiaren txostena egingo da eta izangaiak txosten hori izango du eskura etorkizunean erabili ahal izateko.

2. KASUA: ACCREDITATION OF PRIOR LEARNING (ERRESUMA BATUA)

Accreditation of Prior Learning-ek zubiarena egiten du ikasketa formalen eta ez formalen artean. Prozesua sistemarik ohikoenetan erabiltzen dutenaren antzekoa da, nahiz eta honetan izangaiak alde aurretik lortutako gaitasunak erakutsi behar, prestakuntza-ikastaroan lortutako gaitasunak erakutsi ordez. Metodologia honen garapena honako etapetan eratzen da:

- **Aldez aurreko fasea:** etapa honetan izangaiari APLaren markoan erabiliko diren metodologia eta praktikei buruzko argibideak emango zaizkio.
- **Garapen-fasea:** izangaiak, tutore baten laguntzaz, bere esperientzia, gaitasunak eta abileziak aurkeztuko ditu. Tutore-laguntza horren zati bat ebaluazio eta kalifikazio bera lortu nahi duten izangaien multzoarentzat antolatutako mintegietan eman daiteke. Tutoreak esperientzia, lanpostuetan izandako erantzukizuna, lortutako produktu edo emaitzak, eta abar jasoko dituen karpeta egiten lagunduko du.
- **Amaierako fasea:** ebaluatzaileak izangaiaren karpeta ebaluatzen du eta lortutako emaitzak aztertzen ditu izangaiari egindako elkarrizketaren bidez.

3. KASUA: HERBEHEREAK

Herbeheretan aukeratu duten metodologiak aurreko kasuetan azaldu diren joeren antzeko bidea hartu du. Honen faseak era honetara laburbil daitezke:

- **Hasierako fasea:** eginkizun bati dagozkion jardueren plangintza egin aurretik, elkarrizketa bat egiten zaio izangaiari. Horretan ebaluatzaileak eta izangaiak parte hartzen dute.
- **Garapen-fasea:** ebaluazioaren oinarri nagusiak alde aurretik finkatutako jarduera bat hartzen du bere baitan, eta egoera erreal batean edo simulatuan gauzatzen da. Jarduera horretan ikusten da izangaiak dituen gaitasunak eskatzen direnak direla. Prozesu honetan laguntzeko, ebaluatzaileak datuak erkatzeko zerrenda bat egiten du izangaiak gaitasuna erakutsi duen edo ez egindako jardueran.
- **Amaierako fasea:** jardueraren proba egin ondoren, izangaiak berak egindako probari buruzko iritzia emango du, eta bere lanbide alorreko beste egoera edo zeregin batzuk konpontzeko egingo lukeena adieraziko du.

Iturria: La evaluación del aprendizaje no formal: calidad y limitaciones de las metodologías. Jens Bjornavold. Revista . CEDEFOP aldizkaria, 12. alea.

2.3. BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IKASKETAK FINANTZATZEKO ITURRIAK

Europako Batzordeak ikasketa iraunkorrean implementatu behar diren estrategietako giza baliabideak areagotzea sustatzen du. Alabaina, ez dago garbi zeinek finantzatu behar dituen eskuartze horie-

tarako baliabideak. OCDE³⁸-ren iritziz ikasketa iraunkorra ezartzea ez da izan behar bakarrik gobernuen erantzukizuna. Gobernuak heziketa eta prestakuntzan inbertsioak egiten jarraituko badute ere, gobernuen baliabideak mugatuak direnez, sektore pribatua kontuan hartuko duten finantza-iturri berriak bilatu beharra dago. Ondoren datoz alternatiba horietako bakoitzeko alderdi interesgarri batzuk.

a) Herri-administrazioen partaidetza ikasketa iraunkorraren finantzaketan

Ugari dira ikasketa iraunkorrean herri-administrazioaren partaidetzarako arrazoiak ematen dituzten argudioak, adibidez, gizarte-berdintasunaren printzipioa, hau a, ikasketa maila guztietara iristeko aukera-berdintasunarena. Hala, estatuak ziurtatuko du kolektibo bakar bat ere kanpoan ez gelditzea aukera-berdintasunetik eta horren ondoriozko onuretatik.

Sektore publikoaren baliabideak, oro har, honako iturrietatik datoz:

- **Baliabide berriak:** ikasketa iraunkorrari esleitutako baliabideen gehikuntza netoen ondoriozkoak. Egiazko per capita errenta hazten denean, zergen bidez gobernuak biltzen duen dirutzak gora egiten du eta heziketa eta prestakuntzako gastuen ratioek gehikuntzak ekar ditzakete heziketa eta prestakuntzara BPNarekiko. Bestela esanda, zerga tasen eta gastu iraunkorraren aurrean, hazkunde-dibidenduak baliabide berriak sortzen ditu, eta horietako batzuk ikasketa iraunkorrera ere hel daitezke. Alabaina, per capita errentak hazkunderik ez badu, biziarteko ikasketaren finantzaketak edo zergak gehitzea edo mailegu bereziak eskatzea ekarriko du, jakina, herri-zorra areagotuz. Kasu askotan gobernuak ez daude mekanismo horiek aplikatu ahal izateko moduko egoeran.
- **Dauden baliabideak berriro kokatzea gastu-kategoria desberdinen artea.** Ikasketa iraunkorraren gastuak, edo horren osagai berezienak, nahiko arrazoi dituenean (adibidez, giza errendimenduaren tasa altuak lortzea espero denean) justifikatuta egon daitezke, ikasketa iraunkorra aurrekontuko beste kontusail batzuetatik egindako transferentzien bidez finantzatzea.
- **Dauden baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea,** etekinak gehitzeko edo gastuak gutxitzeko estrategiak erabiliz.

Azken arazo hori gordez, adituek zenbait estrategia eskaintzen dute eraginkortasunaren mailak areagotzeko:

38. OCDE. 2001. *Economics and Finance of Lifelong Learning*.

OCDE-ren iritziz ikasketa iraunkorra ezartzea ez da izan behar bakarrik gobernuen erantzukizuna. Gobernuak heziketa eta prestakuntzan inbertsioak egiten jarraituko badute ere, gobernuen baliabideak mugatuak direnez, sektore pribatua kontuan hartuko duten finantza-iturri berriak bilatu beharra dago

- Ziurtapena eta informazioa hobetzea. Komenigarritzat jotzen da ikasleak heziketa aukera desberdinetan lortutako emaitzak hobetzea. Funtsean, ikasketak kalifikatzeko eta ziurtatzeko sistemak eraberritzea garrantzitsutzat jotzen da, horrela egiteak ikasketa iraunkorreko prozesu bakoitzean lortutako gaitasunak eta abileziak hobeto ezagutzea badakar. Hori horrela izateak ikasketa iraunkorrean egindako inbertsioaren etekin potentzialak areagotzea ekar dezake, hala nola ikasketa iraunkorreko osagai bakoitzaren errendimendu-tasak metatzea.
- Informazio eta komunikaziorako teknologia berrien erabilera sustatzeak berebiziko garrantzia dauka ikasketaren eraginkortasuna areagotzeko. Teknologia horiek hezkuntzaren testuingurua malgutzen dute edozeinentzat eta edozein lekutan. Ikasketa iraunkorren testuinguruan informazio eta komunikaziorako teknologia berriak erabiltzeak ikasketa iraunkorren hornitzaile edo eskatzaileek erabili beharreko informazioaren kantitatea eta kalitatea hobeto ditzake, heziketaren gastu unitarioak murriztu eta ikasketarako aukerak zabaltzeko.
- Eraberritze administratiboak egitea heziketa- eta prestakuntza-sistemetan, ikasketa iraunkorren helburuak lortzeko.

b) Beste finantzaketa-aukera batzuk, sektore publikoaren berariazko finantzaketaren aurrean

Ikasketa iraunkorrean bestelako finantza-erakundeak sartzeko asmoz, ondoren izaera berriko zenbait alternatiba eskaintzen dira sektore publikoaren berariazko finantzaketaren aurrean.

- **Dauden baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzea.** Ikuspegi honetatik begiratuz, lau alternatiba ikus daitezke:
 - 1. alternatiba: lehia areagotzea.** Kontuan izanik OCDEko herrialde batzuek diru-fondo publiko eta pribatuak dituztela hirugarren sektorerako eta helduen hezkuntzarako, lehen eta bigarren mailako hezkuntzek, batez ere sektore publikoak finantzatutakoek, aukera handiak dituzte beren lehiakortasuna areagotzeko. Zentzu horretan, heziketa-zentro askok bere inguruan duten monopolioa amaitu ahalko lukete, derrigorrezko heziketarako zentro berriak sortuz. Hartara, lehiarako esparru berri bat sortuko litzateke, eta finantzaketan aldaketa bat; eta finantzaketa hori instituzioetatik ikasleengana (sistemaren erabiltzaileak) aldatuko litzateke. Ikasle batek heziketa-erakunde desberdinetan aukeratzeko beta duenean, eta ins-

Per capita errentak hazkunderik ez badu, biziarteko ikasketaren finantzaketak edo zergak gehitzea edo mailegu bereziak eskatzea ekarriko du, jakina, herri-zorra areagotuz. Kasu askotan gobernuak ez daude mekanismo horiek aplikatu ahal izateko moduko egoeran

tituzioek ikasle matrikulatu bakoitzeko dirulaguntzak jasozten dituztenean, dirulaguntza horiek hezkuntzaren kalitatea erakusteko balio behar dute.

- 2. alternatiba: zerga-pizgarriak.** Instituzioei pizgarriak emateko aukera dago, beren gastuen eraginkortasuna hobetzeko, adibidez, gastuan egindako edozein aurrezpenagatik lortutako etekinak beren esku gordetzeko. Danimarkako “Taximeter” eskemak praktika horren adibidea ematen du.

DANIMARKAKO “TAXIMETER” ESHEMA

Finantzaketa-eskema hau instituzioen pizgarriak indartzeko diseinatu da (batez ere goi-mailako heziketan eta helduen heziketan), hala nola gastua murriztuz baina kalitatea gutxitu gabe eraginkortasuna areagotzeko.

Ezaugarri nagusiak

- Gastuak murrizteko pizgarria “zerga-neurgailu”an (“taximeter”) ezarritako tasa batzuk identifikatuz eta ikasle bakoitzaren gastu zenbatetsian (horretan azpiegituraren gastua ere sartzen da) oinarrituz eta merkatuan dauden heziketa-programak kontuan hartuz zehazten da. Hala kalkulaturako gastuak tasak gainditzen baditu, ez da ordainketa gehiago egiten: kasu horretan zeharkako laguntzak bilatzen dira, heziketa-erakundearen barruan eraginkorrenak diren programentzat. Bestalde, *expost* gastua “zerga-neurgailu”ak emandako tasaren azpitik badabil, erakundeak beretzat gorde dezake aurreztutakoa edo “eraginkortasun-hobaria”, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta heziketa-ekimen berriak garatzeko.
- Epe luzera instituzioek ezin dute sistema honetaz abusatu, adibidez, hezkuntza-kalitatea murriztuz eta berariaz eta bakarrik hobari horiek lortzeko lan eginez. Sistema gehienbat eskarian oinarritzen denez (ikasleek askatasun osoa dute beren hezkuntzarako erakundea aukeratzeko), erakundeek heziketa eta prestakuntzaren kalitatea erakutsi behar dute, izangai berriak ekarri nahi badituzte. Lehian sartzen ez badira, ez dute ikasle berririk erakarriko eta jasotzen dituzten dirulaguntzek behera egingo dute.

Sistemaren zailtasunak

- Taximeter edo zerga-neurgailuaren arabera onartutako ordainketak matrikulazioen arabera gauzatzen direnez, sistemak eskaintzen dituen dirulaguntzak aurreikustea oso zaila gertatzen da. 1998an, helduen hezkuntzarako zenbait gaietan gorakada ikaragarria izan zuten matrikulek, eta Hezkuntza Ministerioak ustekabeko ordainketa eskergari egin behar izan zion aurre. Gaur egun, arazo horietatik itzurtzeko, egoerak aurreikusteko oinarriak finkatzen ari dira. Hala, adibidez, erreserba batzuk finkatu dira ustekabeko eskari horiei aurre egiteko: matrikulazio-kopuru mugatuak ezartzea eta ikasleen matrikulazio-tasak aldatzeko askatasuna.
- Atzeman diren arazoetan bat da, zerga-neurgailu delakoaren tasak zenbat denboratik zenbat denborara doitu behar diren jakitea. Tasak behar den aldizkotasunaz berrikusten ez badira, badirudi sistemak bizi-urte gutxi izango litzukeela; instituzioek ezingo lukete onespunik jaso gastuak aurrezteagatik, eta ondorioz gastuak murrizteko pizgarria murriztu egingo litzateke emeki-emeki.
- Matrikula-kopurua azkar handitzen duten erakundeek arazoak izan ditzakete epe motzera.

Eta hori horrela gertatzen da, finantzaketa output-arekin erlazionatzeko, “zerga-neurgailu”ak agintzen dituen ordainketa guztien proportzio bat finantzatzen delako bakarrik ikasle matrikulatuen kopuruaren arabera; gainontzekoa graduatzerakoan ordaintzen da. Hortaz, ikasle-en goraka handia duten erakundeek ez dute jasoko ikastaroen hasieran hezi edo prestatu behar duten ikasle-kopuruaren araberako finantzaketarik; eta horrek arriskuan jartzen du beren eguneroko kudeaketa.

Iturria: OCDE. 2001. *Economics and Finance of Lifelong Learning*

3. alternatiba: finantzaketa deszentralizatzea. Administrazio zentralak banatzen dituen fondoak tokiko administrazioek kudeatzen dituzten zenbait herrialdetan, hezkuntza-erakundetako zuzendariak kexu dira dagoen burokrazia handia delako eta horrek zentroetan modu eraginkorrean erabil daitezkeen baliabideak zurgatzen dituelako eta gainera berrikuntza eta esperimentazioa oztopatzen dituelako. Errealitate operatiboko erabakiak hartzen dituztenengandik zenbat eta hurbilago, are eraginkorragoak izan daitezke inplementatzen diren eskuarteak, jada sarritan demostratu den bezala. Alabaina, administrazio zentralak ere nolabaiteko kontrola izan behar du fondo horietaz, ikasketa iraunkorreko programetan sartzen diren pertsona guztien berdintasun-printzipioa zaintzeko bada ere.

4. alternatiba: output-aren araberako finantzaketa. Gobernu batzuk derrigorrezko hezkuntzarako fondo publikoak banatzeko formulak berrikusten ari dira. Funtsean, input-ean oinarritzen den dirulaguntza-sistematik (finantzaketa ikasle-kopuruaren eta beste baliabide batzuen arabera egiten da, adibidez, irakasleen, eta abarren soldatak kontuan hartuz, historian zehar irakasleko ikasle ratioaren eta batez besteko gastuen arabera kalkulatu ohi direnak) output-ean edo jardueran oinarritutako eskemara aldatzen ari dira edo gutxienez horretan ari dira. Printzipioz, ildo horretako aldaketa batek pizgarri altuak bidera ditzake eraginkortasun handiagorako, sistema horrek hezkuntza-erakundeen kudeaketari buruzko kontabilizazio eta gardentasun handiagoak eskatzen dituelako. Alabaina, output-ean edo jardueran oinarritutako finantzaketak ere badu arazo bat: nola definitu output-a? eta nola neurtu hezkuntza-erakundeen kalitatea? Output-a zorroztasun handiegiaz zehazten bada, edo output guztiei (adibidez, irakaskuntza eta ikerkuntzari unibertsitateetan) ematen zaien pisua

Ikasle batek heziketa-erakunde desberdinetan aukeratzeko beta duenean, eta instituzioek ikasle matrikulatu bakoitzeko dirulaguntzak jasotzen dituztenean, dirulaguntza horiek hezkuntzaren kalitatea erakusteko balio behar dute

zehazten ez bada edo gizarte-ikuspuntutik begiratuta modu okerrean zehazten bada, lortu nahi ziren emaitzez bestelakoak ekar ditzake sistemak.

- **Lankidetzaren sareak sortzea.** Oro har ziurta daiteke munduko gobernu gehienek ez dutela gehiegirik nahastu nahi ondasunen eta zerbitzuen (horietakotzat jo behar da ikasketa iraunkorra) horniketean, eta horren ordeztan nahiago dutela prozesua bideratzeko edo arautzeko eginkizuna bete. Ez da espero, izatez, gobernuek ikasketa iraunkorraren hornitzaile bakar bihurtzea, ez eta ikasketa iraunkorra finantzatzeko erantzukizuna bereganatuko dutenik ere. Bizitzan zeharreko ikaskuntzari buruzko ikuspegi bat finkatzeko, gutxienez lehen eta bigarren mailaz haraindi dau den osagaiei buruzkoa, premiazkoa da jarrera, arau eta patroibatzuk zehaztea. Heziketa eskaintza bat finantzatzeko eta hornitzeak instituzioen partaidetza edo hitzarmen ia publikoak eskatzen dituzte. Elkarte horien garapenean arreta berezia eman behar zaio finantzaketa publiko eta pribatuaren arteko proportzioari, hala nola karga pribatua banatzeko moduari. Karga edo gastu horretatik gizabanakoak edo enpresak zer proportzio bereganatu behar duen zehaztea eztabaida-gai nagusi bihurtu da.

Hausnarketa horien argira, arrazoizkoa dirudi ikasketa iraunkorreko ekimen asko elkarte publiko-pribatuaren (EPP) bidez finantzatzeko. OCDEko herrialde askok egin dituzte era horretako itunak. Ekimen Pribatuko Britainiar Ekimena³⁹ da esandakoaren lekuko.

Hona arte, ekimen mota horiek gobernuen zenbait jardueratarako laguntza-zerbitzuak (catering zerbitzuak, eta ospitale eta eskolak garbitzeko eta mantentzeko zerbitzuak azpikontratatzeko) finantzatzera mugatu dira. Alabaina, ekimen horiek gobernuaren jite zentralerako beste jardueratan batzuetan ere ezartzea, hala nola, osasuna, hezkuntza, prestakuntza, presondegien zaintza, eta abar, eztabaidan dago nazioartean; hala ere oraindik eztabaidatu beharrekoa asko da.

Ikasketa iraunkorraren testuinguruan, premiazkotzat jotzen da jakitea ea mekanismo horiek ziurta ditzaketen printzipioek zein

Elkarte horien garapenean arreta berezia eman behar zaio finantzaketa publiko eta pribatuaren arteko proportzioari, hala nola karga pribatua banatzeko moduari. Karga edo gastu horretatik gizabanakoak edo enpresak zer proportzio bereganatu behar duen zehaztea eztabaida-gai nagusi bihurtu da

39. EPPa gobernu kontserbadoreak sartu zuen 1992. urtean eta laboristak mantendu eta zabaldu egin zuen. Elkarte publiko/pribatua (EPP) sektore publikoaren horniketarekin zerikusi duen diruaren balioa hobetzeko baliabidea da. 1999ko abenduan 250 akordio zeuden gobernu zentralak eta tokiko gobernuek sinatuta finantzaketa pribatuko proiektuetarako zerbitzuak lortzeko eta gainera era guztietako sektoreetakoak (errepedeak, trenbideak, ospitaleak, presondegiak, edo informazioaren teknologiak).

puntutaraino diren finkoak edota berdintasun- eta eraginkortasun-helburuak sustatzen dituzten. Gainera, elkarteak eztabaida gune bihur daitezke: ikertzaile batzuek baieztatzen dutenez, EPPek oso aurrezpen gutxi dakarte; beste batzuen iritziz, ordea, “elkarte-sektore” berri batek zerbitzu publikoen horniketa eta kalitatea eralda ditzake. Egungo egunetaraino ez dago praktika onik ondorio zehatzak ateratzeko modukorik; nolana ere, eta finantzaketa publikoa geroz eta gehiago itotzen ari dela kontuan izanik, badu nahiko arrazoi maila honetako esperimendazioak.

- Finantzaketarako estrategia berritzaileak: Gizabanakoaren Ikaskuntzarako Kontuak (GIK). Estrategia honekin ari dira OCDEko zenbait herrialdeetan, nahiz eta oraindik hastapenetan edota azterketa-fasean egon. Horregatik, zaila da bere eraginari buruzko ondorioak ateratzea. GIK delakoak finantzaketarako baliabide berriak dira, hain zuzen ere oraindik proiektu aitzindaritzat jotzen dira eta Erresuma Batuan, Suedian, Herbehereetan, Espainian edota Euskal Herrian ikerketa fasean daude.

BIKen oinarrizko printzipioa honakoa da: gizabanakoak beren dirusarreraren zatik bat etorkizuneko heziketarako ematen du, beste edozein jardueratarako aurrezten den moduan, adibidez, erretiroa hartzeko. Zenbait kolektibotarako jartzen diren lehentasunen arabera, eta sustatu nahi den ikasketa moduaren arabera, estrategia honek finantzaketa-baliabide eta iturri gama zabal bat (zerga-zamak arintzea, laguntza publikoak, lan-emailearen ekarpenak, eta abar) konbinatzea eta erabiltzea ahalbideratzen du. GIKen helburua pizgarriak banatzea da, pertsonaren aktibo-kartera areagotzeko, batez ere pertsona horiek era honetako ekimeneetan parte hartzen ez dutenak badira. Ezaugarri honetako politikek (aktiboetan oinarritzen direnak) aurrezpena eta inbertsioa sustatzen dituzte, eta dirusarrerak eta kontsumoa sustatzeko joera duten ohiko politikei kontrajarrira daude.

Ekimen hauek, izatez, berritzaileak badira ere, aktiboetan oinarritzen diren pizgarrien ideia ez da gauza berria. Hala, esate baterako, etxebizitzaz jabetzea edo erretiroa hartzeko planak aipa daitezke esperientzien artean. Alabaina, hipoteka-interesaren ordaintzeagatik edo erretiroa hartzeko planak ordaintzeagatik zergak arintzean oinarritzen diren politika hauek ohiz biztanleria-sektore pribilegiatuenei egiten diete mesede. Baliabide gutxi-ko gizarte-kolektiboek ez dute etxebizitzarik edo erretiroa hartzeko planik eta, badituzte ere, hain gutxi izatean, ezin dute plan

BIKen oinarrizko printzipioa honakoa da: gizabanakoak beren dirusarreraren zatik bat etorkizuneko heziketarako ematen du, beste edozein jardueratarako aurrezten den moduan, adibidez, erretiroa hartzeko

horiei dagozkien zergarik arindu. Gizarteko desberdintasunak GIKetan eta Gizabanakoaren Garapen Kontuetan (GGK) izan ditzakeen eraginaren ondorioz, hasierako eztabaidak dirusarrera txikiak dituzten etxeetan desberdintasun horiek duten eragina aztertzeraz bideratu dira. Hori dela eta, ekimen horiek abian jarri nahi dituzten gobernuek arreta berezia jarri behar dute zenbait gaitan, eragin horiek ahal denik eta txikienak izan daitezen; horietan aipagarri dira:

- **Sistemaren estaldura:** proposamen askok, Suediako GIKek, esateko, unibertsaltasuna lortu nahi dute, batez ere beren proiektu aitzindariak aztertu ondoren. Bestalde, GGK delakoetako programek murriztu egiten dute dirusarrera gutxiko taldeen aukeratzeko ahalmena.
- **Fondorako sarbidea eta horiek erabiltzeko permisibitatea:** aktiboak finkatzeko sektore publikoak ematen duen dirulaguntzak, ohiz, horiek pertsonaren bizi aukerak hobetzera bideratutako inbertsioak egitea eskatzen du, adibidez: negozio berriak hastea, prestakuntza-jardueretan parte hartzea, ondasunak erostea, pentsioak eta antzekoak. Alabaina, ez da bidezkoa aktiboaren hein bat inolako mugarik gabe xahutzea. Dirulaguntzen bidez eratutako aktiboak giza jokabide arduratsua egituratzea dute helburu, baita inbertsiorako erabakiak hartzen laguntzea ere.
- **Dirulaguntzen zenbatekoa:** gobernuek erabaki behar dute GIK programaren barruan emandako dirulaguntza zenbatekoa izango den. Dirulaguntzarik egokiena programako helburuk zehazteko aukeratu den bidearen (ikasketaren bidezko aurrezpen eta emaitzen arabera, adibidez) menpe dago, hala nola herrialdeko aurrekontuaren gorabeheren menpe.
- **Dirulaguntzak banatzeko baliabideak:** GIK eskemak dirusarrera txikiak dituzten familietara bideratzen diren heinean, arestian aipatu denez, zerga-sistemak are eraginkortasun gutxiago erakusten du. Kontu horiek (GIK) dituzten jende askok ez dute zergarik ordaintzen edota oso proportzio txikian ordaintzen dute, beraz ez dute zergak arintzearen onurarik jasotzen. Hori dela eta, gobernuek kontu horietara edo ondoen eratzen diren kontuetara hasiera batean ematen dituen dirulaguntzak dira baliabiderik egokienak.
- **Dirulaguntzaren iraunaldia:** Edozein dirulaguntzari honako galdera dagokio: hasierako ekarpen bat izan behar du edota kontuak bizi ziklo osorako jaso behar du laguntza? Interes-

Gizarteko desberdintasunak BIKetan eta Gizabanakoaren Garapen Kontuetan (GGK) izan ditzakeen eraginaren ondorioz, hasierako eztabaidak dirusarrera txikiak dituzten etxeetan desberdintasun horiek duten eragina aztertzeraz bideratu dira. Hori dela eta, ekimen horiek abian jarri nahi dituzten gobernuek arreta berezia jarri behar dute zenbait gaitan, eragin horiek ahal denik eta txikienak izan daitezen

garriago dirudi laguntza denboran zehar luzatzea, horrela kontuak bizirik mantentzen direlako eta, ondorioz, aurrezpen erregular eta etengabea bultzatzen delako.

- **Kontuetako titularren partaidetza eta inbertsio-erabakietarako laguntza:** Hasiera batean GIKak zenbait inbertsio-estrategietara lotuta egon daitezke, arrisku eta errentagarritasun maila desberdinak onartuz. Zer eginkizun bete behar dute kontu horien jabeek kontuen arrisku maila erabakitzerakoan? Galdera horri dagokion erantzunerako partaidetzak koherentea izan behar du aktiboak eratzeko/jabetzeko estrategien finantza- eta heziketa-helburuarekin.
- **Finantza-sektore pribatuaren partaidetza maila ideala eta gauzagarria:** Erresuma Batuko GIK sistemak holako aukerarik sustatzen ez badu ere, Estatu Batuetako GGKekin izandako esperientziek sektore pribatuko instituzioak lotu nahi dituzte era trinko eta sakonean. Partaidetza pribatuaren motibazio nagusia honako irizpidean oinarritzen da: esperientzia horien bidez finantza-erakunde pribatuak oso egoera onean koka daitezke gobernuaren jarrera zurrun eta erregulatzaileraren aurrean.

Aurrerago ere esan denez, era honetako ekimenak garapen-prozesu betean dauden; ondorioz, asko dira konpondu beharreko arazoak ekimenak behar bezala doitzeko. Alabaina, uste da egokia dela eztabaida horretara gehitzea gaur egunean indarrean dauden esperientziak, beren ezaugarriak eta lorpenak ezagutzera emateko.

Ikasketa Kontuen Europako Proiektua (*European Learning Account Project*)

Kalifikazio handiko giza baliabideen garapena sustatzeko, Erresuma Batuko gobernuak *Learning Account* (Ikasketa-kontua) ekimena jarri du abian. Ekimen hori proiekturik garrantzitsuenekotzat jotzen da “Bizitzan zeharreko ikasketa” programaren barruan, eta honako helburua du: lan jarduneko populazioaren gaitasunak garatzea.

Heziketarako kontua dirulaguntza da langileek beren ikasketak egiteko, kudeatzeko eta horretan inbertitzeko eta, azken finean, titularraren etorkizun profesionala eta lanbide-gaitasuna hobetzeko. Halaber, heziketarako kontuek langileen lan-munduan sartzeko aukera eta mugikortasuna areagotzen dute, eta langileek ez dute zorretan egon beharrik lan-emailearekin. Gainera, azken horrek kontuak bere langileen banakako ikasketan inberti ditzake, kontuetara fondo ekarpen bereziak eginez.

Ikasketa-kontua dirulaguntza da langileek beren ikasketak egiteko, kudeatzeko eta horretan inbertitzeko eta, azken finean, titularraren etorkizun profesionala eta lanbide-gaitasuna hobetzeko

Gobernu britainiarraren Hezkuntza eta Enplegu Ministerioak ekimen honetan dihardu esperientzia areagotzeko asmoa duten Europako beste bazkide batzuekin batera. Aipatu gobernua Ingalaterrako zenbait herrialdeetan burutzen ari den esperientzia horretan bazkide dira, besteak beste, Suedia, Herbehereak eta Espainia (Gipuzkoa).

Proiektu honen funtsezko helburua Europako Batasuneko herrialde kideetan esperientzia hau garatu beharra demostratzea da proiektu-gidariaren bidez, eta iritzi bateratua lortzea ikasketan izan beharreko partaidetzari eta gastuen banaketari buruz.

Funtsean proiektu honek lortu nahi dituen helburuak era honetara laburtu daitezke:

- Langileei ikasketara sartzeko aukerak areagotzea eta hobetzea.
- Ikasketa-kontuen bideragarritasuna erakustea Europako herrialde kideetan.
- Europako Batasunean ikasketan parte hartzea motibatuzko arrazoiei buruzko ikuspegi bateratua sustatzea.
- Ikasketa-kontuan esperientzia-gidari desberdinak garatzea, helburu desberdin eta berezietara egokiturik.
- Erakunde bultzatzaile bakoitzaren eginkizuna zehaztea (lan-emaileak, prestakuntza hornitzaileak, finantza-erakundeak).
- Inplementatzeko metodo desberdinak alderatzea.
- Praktika onak identifikatzea eta partekatzea.
- Bizitza osoan zeharreko heziketari eta enplegu-politikari buruzko Europako ikuspegia garatzen laguntzea.

Suediako ikasketa-kontuen sistema

Suediak duela urte batzuk jarri du martxan GIK ekimena proiektu gidari bezala; horregatik orain sistema egokitzen ari dira betebetan. Suediako gobernuaren helburua epe luzera GIK sistema erabat garatua finkatzea da, horretan interesa duen edozein herritarrek sartzeko modukoa. Suediako BIK modeloa funtsean honako ideian oinarritzen da: gizabanakoak daki inork baino hobeto bere ikasketa aukeratzen eta horretarako arauak jartzen, eta ikasketaren finantzaketak partekatua izan behar du. Gainera, eredu suediarrek aukera ematen die enpresariei sistema diruz laguntzeko.

Kontu mota hauek eratzeak titularrei zergak arintzeko aukera ematen badie ere, gastuak mugatuak dira herri-administrazioarentzat; izatez, epe luzera fondorik gehienek zerga-zamak jasotzen dituzte, erabiltzen hasiz gero. Ondorioz estatuko altxortegirako

Ikasketa-kontuek langileen lan-munduan sartzeko aukera eta mugikortasuna areagotzen dute, eta langileek ez dute zorretan egon beharrik lan-emailearekin. Gainera, azken horrek kontuak bere langileen banakako ikasketan inberti ditzake, kontuetara fondo ekarpen bereziak eginez

dirusarrerak sortzen dituzte. Hartara, zergetan murriztapen bakararra aplikatu beharrean horiek ateratzeaz, aukera izaten du kontuaren titularrak etekin batzuk ateratzeko. Bestalde, altxor publikoaren gastua gutxiago izatea gehienbat lehen fasean ematen da, eta poli-ki-poliki gutxituz joaten da sistema epe luzera sartzen den heinean.

Sistemak honako ezaugarri nagusiak dauzka:

- Ikasketa-kontuen kontribuzioek, gizabanakoak egiten dituenak zein lan-emailearenak, aitorpenean zergak arintzeko aukera ematen die kontuen titularrei.
- Gizabanakoek honako ekarpenak egin ditzakete: gehienez ere urtean USAko 2.100 \$ (2.226 € gutxi gorabehera).
- Enpresariak ekarpen gehigarriak egin ditzakete (batez besteko unitate gehigarri batekin) beren langileen kontuetara. Titularrek zergak arintzea lortuko lukete ekarpen horiengatik (lan-emailearen kontribuzioak ere gizabanakoei ematen zaien tratamendu bera jasotzen du).
- Alabaina, heziketa-jardueraren batean erabilitako fondoekin arrakasta lortu bada (esan nahi da titularraren gaitasunak areagotu egin direla) dirulaguntza jasotzen du titularrak zergak arintzeko sistemaren bidez (gaitasunak eskuratzegatik saria). Gaur egun murrizketarik handiena USAko 1.000 \$ (1.060 € gutxi gorabehera) izaten da.
- Bi bertsio aurreikusi dira gaitasunak eskuratzegatik saria banatzeko: bata, gobernuaren oinarritzko kontribuzioa USAko 300 \$ (318 € inguru) 35 eta 55 urte bitarteko pertsona guztientzat, baldin eta honako eskakizunak betetzen badira: urtean gehienez ere USAko 14.000 \$-ko (14.844 €) dirusarrera edukitzea, 2002. urtean kontu bat irekitzea eta gutxienez ere gobernuak jarri duen zenbateko bera jartzea fondoan. Bestea, enpresarientzat izaten da; horiek gizarte alorreko zametan %5-%10 bitarteko arintzea izaten du, langileak bere kontu pertsonalera egiten dituen ekarpenen arabera.
- 65 urtera iritsi aurretik erabili ez diren fondoak erretiro-planerako ekarpen bihurtzen dira.

IKASTXEKIN ekimena

Instituzioarteko jitea duen ekimen hau Eusko Jaurlaritzak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (Ekonomia eta Turismo Departamentua) sustatzen dute Europako Batasunaren

Suediako BIK modeloa funtsean honako ideian oinarritzen da: gizabanakoak daki inork baino hobeto bere ikasketa aukeratzeko eta horretarako arauak jartzen, eta ikasketaren finantzaketak partekatua izan behar du. Gainera, eredu suediarrek aukera ematen die enpresariei sistema diruz laguntzeko

laguntzaz (European Learning Account Project). Ekimenak, ikaske-
ta iraunkorra kudeatzeko moduak esperimentatzearen eta berritzea-
ren bidez, Lan Hezkuntzako eta batxilergo-zentroetako irakasleek
gaitasunak lortzea du helburu, betiere informazio eta komunikazio-
rako teknologia berrien alorrean.

Proiektu honetan parte hartu nahi duen pertsona bakoitzak kre-
ditu eta ikasketa-kontu bat izango du. Kontu horretan berak jarriko
du denbora eta heziketa-jardueren gastuaren %25a; hartara, titula-
rrak aukera izango du, informazio eta komunikaziorako teknologia
berrien alorreko prestakuntza-eskaintzari dagokionez, berak egoki-
ztat jo ditzakeen heziketa-ibilbidea, lekua eta epea erabakitzeke.

Irakaskuntza-sistema eta, zehazki, lanbide-hezkuntzako zentro
integralak, funtsezko agenteak dira bizitza osoan zeharreko presta-
kuntza informazioaren eta jakintzaren gizarte berriaren ardatz
bihurtzeko.

Lehen fase pilotu honetan, IKASTXEKIN programa Gipuzkoa-
ko Lanbide Hezkuntzako Zentroetako irakasleentzat antolatu da.
Bigarren fasean, ordea, lurralde horretako Lanbide Hezkuntzako
Zentroetako pertsonalarengana eta batxilergo-zentroetako irakasle-
riarengana bideratu da.

Ekimen hau informazio eta komunikaziorako teknologia berrien
alorraren barruan kudeatu da. Programan interesa duenarentzat edo
programari buruzko berriak jakina nahi duenarentzat [www.gipuz-
koa.net/ikastxeekin](http://www.gipuzkoa.net/ikastxeekin) weba ireki da; horretan interesatuak bere posta
elektronikorako kontua eskuratzen du eta horren bidez txeke-taloi-
tegi bat eska dezake berari interesatzen zaion ikastaroa egiteko.

Programari atxikitzen denak gehienez ere 901,52 euro jasoko
ditu 30 txekeko taloitegi baten bidez erabiltzeko. Txeke bakoitza
30,05 eurokoa da, eta horiek bakar-bakarrrik informazio eta komu-
nikazioko teknologia berrien alorreko hezkuntza⁴⁰ ordaintzeko era-
bil daitezke. Lehengo kreditua amaitzen denean, onuradunak beste
kreditu bat eska dezake proiektuak une horretan duen eskuragarri-
tasunaren arabera. Europako Batasuneko e-Learning ekimenarekin
bat datorren programa honetarako, Lanbide Hezkuntzako irakasle-
ek informazio eta komunikaziorako teknologia berrien alorrean
lortu dituzten lanbide-gaitasunak egiaztatzeke sistema bat asmatu

40. Dagoen heziketa-eskaintza homologatua: Erreminta erabilgarrien oinarritzko heziketa; Erre-
minta erabilgarrien heziketa aurreratua; Sistemak kudeatzeko eta mantentzeko oinarritzko hezike-
ta; Informazio eta komunikaziorako teknologia berriak heziketan erabiltzeko oinarritzko presta-
kuntza; IKTBak heziketan erabiltzeko prestakuntza aurreratua.

Proiektu honetan parte hartu nahi duen pertsona bakoitzak kreditu eta ikasketa-kontu bat izango du. Kontu horretan berak jarriko du denbora eta heziketa-jardueren gastuaren %25a; hartara, titularrak aukera izango du, informazio eta komunikaziorako teknologia berrien alorreko prestakuntza-eskaintzari dagokionez, berak egokitzen jo ditzakeen heziketa-ibilbidea, lekua eta epea erabakitzeke

da, 5 mailatan garatzen dena. Gaitasunak egiaztatzeko mailaketa horretara lotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko zentro homologatuetan ematen diren 50 ikastaro desberdinak.

Ikastxeekin ekimena heziketa-jardueren gastuak partekatzeko diseinatu da. Zentzu horretan, ikasketak egiteko ematen den kreditua heziketa-jarduera bakoitzaren kostuaren %75 ingurukoa izaten da, gainontzekoa ikastaroan parte hartzen duenak jartzen du esku-dirutan. Heziketa-eskaintza homologatuari buruzko informazioa ematen den atalean azalduko da ikastaro bakoitzaren gastua. Hori zehazteko zenbait alderdi izan dira kontuan, hala nola, heziketa-jardueraren konplexutasuna eta iraupena.

	20 ordu	30 ordu	40 ordu	60 ordu
I erako ikastaroak	150,25 €	225,38 €	300,51 €	450,76 €
II erako ikastaroak	180,30 €	270,46 €	360,61 €	540,91 €
III erako ikastaroak	228,38 €	342,58 €	456,77 €	685,15 €

Eskaintza hezkuntza-egituraren eskuragarritasunaren arabera eguneratuko da, eta interesatuek alde aurretik gastuari, ordutegiari, ikastaroaren hasiera eta amaierari, eta zentroari eta ikastaroa egiteko lekuari buruzko informazioa jaso dezakete. Programari atxikitzen zaion pertsona bakoitzak bere heziketa-ibilbiderako egokitzat jo ditzakeen heziketa-jarduera eta zentroa aukera ditzake.

Informazio-bilaketaren ondorioz, ikasleak berari interesatzen zaion ikastaroa antolatuko du. Heziketa-eskaintzaren arrazoiak tarteko, ikasle bakoitzak bi kastarotan eman dezake izena, hau da, bi heziketa-jardueratan egin dezake aurrematrikula. Matrikulazioaren gaineko alderdiak (sarrerako eskatzen diren heziketa-eskaerak balioztatzea, heziketa-jardueraren hasiera, matrikula ordaintzea, ikastegiak behar duen informazioa betetzea, eta abar) zuzenean kudeatzen dira aukeratutako zentroaren eta ikasketakredituaren titularraren artean.

Ebaluazioari dagokionez, esperientzia honek, bere jite berritzailegatik, ebaluazio eta segimendurako sistema integrala edukiko du, eta horrek kontuan izango ditu egindakoaren adierazleak, emaitzaren adierazleak eta eraginaren adierazleak. Zentzu horretan, ekimenaren garapenean zehar, ikasketakontuetako onuradunen eta heziketa-eskaintza osatzen duten erakundeen lankidetzak ukalezina eskatuko du, hala nola erakunde sustatzaileena, ekimena etengabe hobetu behar den prozesurako premiazkotzat jotzen den informazioa biltzeko eta lantzeko.

Lehen fase pilotu honetan, IKASTXEKIN programa Gipuzkoako Lanbide Hezkuntzako Zentroetako irakasleentzat antolatuta da. Bigarren fasean, ordea, lurralde horretako Lanbide Hezkuntzako Zentroetako pertsonalarengana eta batxilergo-zentroetako irakasleriarengana bideratu da

*3. Informazioaren eta
komunikazioaren teknologia berriak
ikaskuntzaren eta prestakuntzaren
zerbitzura*

3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak ikaskuntzaren eta prestakuntzaren zerbitzura

Lehenengo kapituluan ikusi denez, bizitzan zeharreko ikasketa ez dago lotuta jakintzaren iturri-bideari, hau da, bizitzan zeharreko ikasketak ez du zerikusirik jakintza eskuratzeko erabiltzen diren baliabideekin (ohikoak, modernoak). Alabaina, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek badute eragina, handia gainera, jendea jakintzara iristeko eta ikasketa aukerak zabaltzeko.

Informazioaren gizartearen barruan etengabe ari dira sortzen eta garatzen ikasteko giro eta eszenategi berriak, pertsonari hezteko aukera anitzak eskaintzen dizkietenak eta aukera-berdintasunean oinarriturik jakintzarako bideak zabaltzen dituztenak. Ondoko orrialdeetan irakaskuntza irekiari buruzko, urrutiko irakaskuntzari buruzko eta e-learning delakoari buruzko kontzeptu eta praktikak aztertuko dira. Nolanahi ere, atal honen xedea ikuspegi orokor bat ematea da irakurlea prestakuntza eszenategi berrietara eta ez hain berrietara hurbil dadin.

3.1. HEZIKETA IREKI ETA URRUTIKO HEZIKETAREN KONTZEPTUETARAKO HURBILPENA

Heziketa irekiaren eta urrutiko heziketaren definizio bat aukeratzea (HIU hemendik aurrera)⁴¹ lan astuna eta nekea da egungo eskaintza kontzeptuala zabala delako. Ikerketa kontaezinak egin dira eta sortu den terminologia, amaigabea. Nolanahi ere, eta Baberá-k⁴² adierazten duenez, HIU ezin da jo kontzeptu iraultzailatzat, azken urteetan funtsean ez duelako aldaketarik izan. Baina benetan aldatu dena alderdi metodologikoa izan da, batez ere erabilitako baliabideei, interakziorako aukerei eta berriki informazioaren gehikuntzari dagokienean. Gainera, informazioaren gehikuntza hori oso denbora gutxitan gertatu da eta lurralde-inguru anitzetan, beraz ez da denborarik eta

41. Heziketa ireki eta urrutikoari buruz erabilitako terminologia zabala da oso, zabalegia, alegia. Batzuetan urrutiko heziketa hitza erabiltzen da, beste batzuetan heziketa irekia, urrutiko irakaskuntza, eta abar. Koaderno honetan Heziketa Ireki eta Urrutikoa terminoa aukeratu dugu horiek guztiak adierazteko, Europako Batzordeak Sokrates programan oinarrituz erabiltzen duen definizioarekin bat.

42. *La incógnita de la educación a distancia*. Barberá, E (Coord) Badia, A y Mominó J. Cuadernos de Educación. ICE-HORSORI. Bartzelonako Unibertsitatea, 2001.

Informazioaren gizartearen barruan etengabe ari dira sortzen eta garatzen ikasteko giro eta eszenategi berriak, pertsonari hezteko aukera anitzak eskaintzen dizkietenak eta aukera-berdintasunean oinarriturik jakintzarako bideak zabaltzen dituztenak

giza baliabiderik izan aldaketa horiek sakontasunez aztertu eta terminologia mailako adostasun tazitu bat lortzeko.

Heterogeneotasun hori kontuan izanik –asko dira egileak gai honi buruzko definizioak proposatu dituztenak-, atal honetan terminoaren ezaugarri eta bereizitasun nagusiak identifikatu baino ez da nahi egin, ondoren aurrerago garatuko diren edukiak testuinguru batean kokatzeko asmoz.

Europako Batasunean, HIUa ofizialki sartuta dago Europako Batzordeak sustatzen dituen heziketa-prestakuntza programetan, 1995⁴³. urtean SOKRATES programa martxan jarri zenetik. Urte horretatik aurrera prestakuntza modalitate hori erabat integratuta dago nazioz gaindiko lankidetzaren programetan.

*Hezkuntza ireki eta urrutikoa ekinbidean*⁴⁴ txostenak adierazten duenez, HIUak metodo berriak (teknikoak eta bestelakoak) erabiltzea eskatzen du, honako alorretan irakaskuntzaren malgutasuna areagotzeko: lekua, denbora, edukiak aukeratzea eta baliabide pedagogikoak. Halaber, urrutiko heziketa- eta prestakuntza-sistemetara iristeko bideak erraztu nahi ditu. *Heziketa ireki eta urrutikoaren sustapena* kontzeptuak bere barruan hartzen ditu multimedia zerbitzuak eta produktuak erabiltzea –edonola ere aukera emanaz prestakuntza-funtzioa ordeztzeko– eta urrutiko heziketaren zerbitzuetara iristeko bideak erraztea.

Ikerle askok HIUren zenbait ezaugarri eta bereizgarriak identifikatu dituzte. Hona laburbildurik ezaugarri horietako batzuk:

- **Irakasle eta ikaslearen arteko tartea**, denborari zein espaziorari dagokienez, edota bie batera dagokienez.
- **Instituzioen egiaztagiria**: hau da, ikasitakoa erakunde edo agintziaren batek egiaztatzen du. Ikasketa mota hau bestelakoa da norbere ahaleginaz eta hezkuntza eta heziketarako erakunderen baten onarpen ofizialik gabe egiten denaz.
- **Baliabide didaktiko asko erabiltzea**: baliabide inprimatuetatik hasi eta irrati, telebista eta ikus-entzunezko materialeraino, baita ordenagailua eta telekomunikazioak ere.
- **Bi norabideko komunikazioa**: ikasle eta tutoreek elkarrekin aritzeko aukera ematen duena. Komunikazioa, kasu honetan, asinkronoa eta/edo sinkronoa izan daiteke.

43. SOKRATES programa 1995eko martxoaren 14an jarri zen abian, 1995eko apirilaren 20ko 819/95/EBaren 1995eko apirilaren 20ko DOCE L87/10 Erabakiaren bidez.

44. Europako Komunitateen Batasuna. *L'Education ouverte et à distance en action*. ZN XXII-Hezkuntza, Prestakuntza eta Gazteria. A4 Unitatea: Hizkuntz gaitasunen sustapena, Ikasketa irekia eta urrutikoa hezkuntzaren alorrean, Helduen heziketa; "Sokrates eta Gazteria" laguntza teknikorako sailaren laguntza.

Hezkuntza ireki eta urrutikoak metodo berriak (teknikoak eta bestelakoak) erabiltzea eskatzen du, irakaskuntzaren malgutasuna areagotzeko honako alorretan: lekua, denbora, edukiak aukeratzea eta baliabide pedagogikoak. Halaber, urrutiko heziketa- eta prestakuntza-sistemetara iristeko bideak erraztu nahi ditu

- **Aurrez aurreko topaketarako eta tutoretzarako aukera:** ikasle-irakasle eta ikasle-ikasle arteko ekimena, bibliotekan ikastea edo laborategietako saioetan.
- **Prozesu instituzionalizatuak erabiltzea:** hau da, hein handi batean ikasketa ireki eta urrutiko operazioetan, eginkizunak banatu egiten dira eta zereginak ikastaroaren garapenerako taldeetan aritzen den beste pertsonal bati esleitzen.

URRUTIKO HEZKUNTZAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Keegan: urrutiko hezkuntzari buruz beste ikerlari batzuek (Holmberg, Petters, Moore) eman dituzten definizioetan oinarriturik kontzeptu honi buruzko bost alderdi nagusi identifikatzen ditu: ikaske-ta-prozesu osoan zehar irakasle eta ikaslearen artean ematen den urrutiratze ia iraunkorra; ikaske-ta-materialen plangintzan eta garapenean eta ikaslearentzako zerbitzu-aurreikuspenean urrutiko hezkuntzaren antolamenduaren eragina; teknologia-baliabideen erabilpena irakaslea, ikaslea eta edukiak elkarrekin hartu-emana izan dezaten; ikasle eta irakaslearen artean aldizkako elkarrizketak; taldearen bigarren mailako eginkizuna, horrek hezkuntza mota hau pertsona bakanengana zuzentzen du eta ez taldeengana.

Verduin eta Clark: lau ezaugarri nagusi bereizten ditu: irakaskuntza osoan zehar irakasle eta ikaslearen artean ematen den banaketa; ikasleari laguntzeko erakundearen eragina; irakaslea, ikaslea eta ikastaroko edukiak uztartzeko baliabideak erabiltzea; irakasle, tutore edo hezkuntza-agentziaren eta ikaslearen artean bi norabideko komunikazioa lortzea

Garrison: hiru irizpide erabiltzen ditu urrutiko hezkuntzaren prozesuak identifikatzeko: urrutiko hezkuntzan irakasle eta ikaslearen arteko komunikazioaren gehiena modu ez iraunkorrean ematen da; urrutiko hezkuntzak bi bide izan behar ditu kontuan irakasle-ikaslearen artean hezkuntza prozesuan; bi norabideko komunikaziorako bitartekotza egiteko teknologiak erabili behar ditu.

Sherry: hiru alderdi berezi bereizten ditu urrutiko hezkuntzan: irakasle eta ikaslearen arteko banaketa bai espazioari bai denborari dagokionez; ikasketak ikasleak berak bere borondatez kontrolatuak, irakaslearengana duen tarte baina garrantzitsuago baillitza; ikasle eta irakaslearen arteko komunikazio ez iraunkorra, inprimatutako baliabide edota teknologiaren beste bitarteko batzuen bidez.

García Areitio: ikastaro, programa edo erakunderen bat urrutiko hezkuntzaren alorrekotzat jotzeko, gutxienez ere honako lau ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Irakasle/hezitzailearen eta ikasle/partaidearen artean bereizketa ia iraunkorra bai espazioan bai denboran, baina kontuan izanik azken aldagai horretan interakzio asinkronoa gerta daitekeela.
- Ikasleak bere denbora, espazioa, ikasketaren zenbait erritmo eta, kasu batzuetan, ikasketaren ibilbideak, jarduerak, ebaluatzeko garaiak, eta abar kontrolatzen dituen ikasketa independentea. Ezaugarri horiek, gainera, halabeharrez ez bada ere, sozializaziorako eta partaidetzarako aukerak ematen dituzten topaketa fisiko edo elektronikoetako interakziozko aukerekin osa daitezke.
- Komunikazio bitartekaria, irakasle/hezitzailea eta ikaslearen artean modu bikoitzean gertatzen dena eta, zenbait kasutan, irakasle eta ikaslearen artean ematen dena zenbait baliabideren bitartez.
- Erakunde/instituzio baten laguntza, plangintza egiten duena, diseinatzen duena, materialak sortzen dituen (erakundearentzat edo kanpokoentzat), ebaluatzen duena eta ikasketa-prozesuaren segimendua egiten duena eta motibazioaz arduratzen dena.

Wedemeyer-ek⁴⁵, bestalde, eskakizun batzuk jartzen ditu urrutiko hezkuntzarako programak egiterakoan, eta horien artean honakoak dira aipagarrienak: ikasleria egon daitekeen edozein lekutan eskuragarri egotea; ikasleari erantzukizun handiagoa eskatzea bere ikasketak egiterakoan; ikasleari zein irakasleari aukera ematea prestakuntzako jardueretan denbora gehiago emateko; ikasleari aukera gehiago ematea metodologia, formatu, eduki eta abarri buruz; kalitatezko multimedia teknologia gehitzea. Teknologia hori irakaskuntzaren diseinuarekin konbinatu behar da bere erabilera egoki eta eraginkorra izan dadin; ikasle eta irakasleen kultur errealitate desberdinetara egokitzeo aukerekin jarraitzea; ikasleen ikasketak ahal denik eta hurbilenetik ebaluatzea; ikasleei aukera ematea ikasketekin hasteko, gelditzeko eta unean uneko premien arabera ikasteko.

Iturria: *La educación a distancia. De la teoría a la práctica*. García Areitio. Ariel Educación 2001; eta *La incógnita de la educación a distancia*. Barberá, E (Coord) Badía, A y Mominó J. Cuadernos de Educación. ICE-HORSORI. Bartzelonako Unibertsitatea 2001

HIUKO PROGRAMA DISEINATZERAKOAN KONTUAN IZAN BEHARREKO EGITURA-ELEMENTUAK

- a) **Hezkuntza-programa:** egin nahi den heziketa-eskaintzaren elementu nagusia da. Faktore honek berarekin bat dakar prestakuntzaren curriculum eta hori gaitan nola banatzen den. Era berean, asmoak eta helburuak programa osoaren diseinurako gidatzen hartzen dira.
- b) **Ebaluazioa:** elementu hau arestian aipatu den ataltzat jo daiteke. Alabaina, bere garrantziak eta zailtasunak analisi berezi bat eskatzen dute. Faktore honek ez du ukitzen bakarrik ikasketak-helburuen lorpen maila zehazteko arazoa, baita ebaluazio prozesuetan adineko pertsonak duten esperientziaren eta erantzukizunaren ezaugarriak gehitzea ere.
- c) **Sinkronia:** Ikasketak-jarduerak garatzeko ikasleei leku jakin batera edo ordu jakin batean bertaratzea edo ez bertaratzeari buruz HIUKO programak izan ditzakeen eskakizunei buruzko aipamena egiten du.
- d) **Materialak:** heziketa-jarduerak bakoitzak material kopuru jakin bat behar du inprimatua zein digitalizatua (adibidez, aldizkari zientifikoetako artikuluak, liburuetako kapituluak, irakasleen apunteak...).
- e) **Denbora:** Holako ezaugarritako jarduerak bat diseinatzen hasterakoan, funtsezkoa da ikaslaroaren helburuak lortzeko, ikasleak batez beste sartu behar dituen ordu-kopurua zehaztea.
- f) **Ikasleria:** funtsezkotzat jotzen da, halaber, zer motatako ikaslearengana bideratuko den jakitea argi eta garbi. Prestakuntza-programa ororen ezaugarriak erabat aldatuko dira kolektibo-helburuaren arabera. Ikasgelako prestakuntzan gertatzen den bezala, arrakastak hein batean zerikusi handia dauka ikasleak motibatuta mantentzearekin, baita ikasleei beren betebeharrak etengabe eskatzearekin ere.
- g) **Kontrola:** prestakuntza-jardueran ikasleek izan behar duten partaidetza maila zehaztu behar da, hala nola, ikasleen erantzukizunak. HIUKO programaren malgutasuna bere jarraitbideek agintzen duten kontrol mailaren arabera dago.
- h) **Teknologia:** HIUKO programetako teknologiak geroz eta garrantzi handiagoa dauka honako hiru alderdietan: baliabidea (ikasleei programako materialak, aginduak eta materialak tr-

45. En *Theory and practice of distance education*. Holmberg, B. Routledge. Londres 1995



katzeko premia guztiak beren helburuetara iristeko erabiliko den teknologia adierazten du); komunikazioa (ikasle, irakasle eta materialen arteko interakzioan erabili beharreko teknologia aipatzen da); eta softwarea (urrutiko ikasketa gauzatzea ahalbideratuko duten materialak eta jarduerak antolatzeko eta tutoreekin edozein unetan iruzkinak trukatzeko aukera emango duten programak).

Iturria: *Procesos críticos de la educación a distancia*. Antonio Millán. Instituto Tecnológico y de Estudios Superiores de Monterrey, ITESM.

HIU kontzeptuari buruz nahasketa dagoela esan behar bada, modalitate honetako metodo eta jardueren tipologia homogeneizatu gabe dagoela ere esan behar da. Jarduera hauek deskribatzeko erabiltzen diren terminoak oraindik ere nahiko ilunak dira; eta berez hori gutxi balitz, geografiaren araberako aldaketek are gehiago iluntzen dituzte aipatu terminoak (adibidez, Estatu Batuetan eta Europan). Honakoak dira jarduera hauek izendatzeko gehien erabiltzen diren terminoak: *posta bidezko hezkuntza; etxeko ikasketak, aparteko ikasketak; autoprestakuntza; helduen heziketa; teknologian oinarritzen den heziketa; ikasketa elektronikoa edo birtuala; ikasketan oinarritzen den hezkuntza; hezkuntza irekia; ikasketa zalua edo ikasketa banatua*, eta holakoak.

ADIERAZLEA	ADIERAZPENA ETA JATORRIA
Posta bidezko heziketa edo ikasketa	Posta bidez ematen den hezkuntza, paper eta entzunezko materialaren bidez (Europa)
Urrutiko irakaskuntza	Metodo didaktikoetan oinarritzen den heziketa (Europa)
Urrutiko ikaskuntza	Ikaslearengan oinarritzen den hezkuntza formala (EEBB)
Aparteko ikasketa	Batez ere goi-milako ikasketari buruzkoa (EEBB)
Kanpoko ikasketak	Unibertsitate-ikasketak lerroan, unibertsitatean bertan egiten diren eduki eta ebaluazio bereko ikasketen paraleloak (Australia)
Norbere etxean egiteko ikasketak -home study-	Norbere etxean edota bestelako zentroetan egiten diren ikasketak
Heziketa irekia	Norbere borondatez egiten den ikasketaren aldikotasuna eta edukia bateratzen dira
Urrutiko heziketa (teknologiakoa). Irakaskuntza eta ikaskuntzaren testuinguru birtualak	Definizio sakonagoan irakaskuntza eta ikasketaprozesuak (teknologiaren bidezkoak) sartzen dira.

Iturria: *La incógnita de la educación a distancia*. Barberá, E (Coord) Badia, A eta Mominó J. Cuadernos de Educación. ICE-HORSORI. Bartzelonako Unibertsitatea, 2001

Atal honi amaia emateko, urrutiko ikasketari buruz Areitiok mahairatzen dituen abantaila eta eragozpen batzuk ematen dira, laburbildurik bada ere.

Atal honi amaia emateko, urrutiko ikasketari buruz Areitiok⁴⁶ mahairatzen dituen abantaila eta eragozpen batzuk ematen dira, laburbildurik bada ere.

URRUTIKO HEZKUNTZAREN ABANTAILAK:

Ikasleak aukera dauka honetarako:

- Modu irekian lanbide-gaitasun, trebetasun, jarrera eta abarretarako aukera gehiagotara iristea.
- Oztopo geografikoak, norbere mugak, gizarte eta kulturaren oztopoak edo hezkuntza-azpiegituren eragozpenak gainditzea.
- Ikasketak eta laneko edo familiako betebeharrak batera eramatea.
- Pertsona ikasketaren benetako protagonista izatea, ikasketa beregain oinarritzen delako.
- Norbere ikasketaren edukiak eta erakundea bera ere aukeratzea.

Enpresek honako aukerak dituzte:

- Lanbide-gaitasun berriak eskuratzeko behar diren prestakuntza-jarduerak antolatzea lantokian bertan, horrela malgutasun handiagoa lortzen da.
- Era askotako gastuak (hezitzaileak, bidaiak, mantenua, eta abar) ekiditea.
- Inbertsio-gastuak elkarrekin banatzea (dirua enpresaren aldetik eta denbora langilearen aldetik), helburu komunak lortzeko. Horrela egiteak produktibitatea areagotuko du eta laneko komunikazioa eta gaitasunak areagotu egingo dira.
- Langile guztiei maila berdintsuko lanbide-gaitasuna ematea, nahiz eta langileak enpresaren kokapen geografiko desberdinetan banatuta egon.
- Maila bereko langileak prestatzea, maila eta premia desberdinetako langileek beste ikastaro batzuen bidez jaso dezaketen prestakuntzarekin batera.

Gobernuek, ordea, honako aukerak dituzte:

- Heziketara iristeko aukera ematea, ohiko bideetatik heziketarako sarrera mugatuta duten sektore eta kolektiboek.
- Herritarrei heziketa iraunkorrerako, birziklatzeko, kultur sustapenerako eta pertsonalki aberasteko aukera gehiago eskaintzea.

Urrutiko hezkuntzaren abantailak ikasleak, enpresak eta gobernuek ukitzen dituzte eta honako gaitan gauzatzen dira: espazio eta denborari dagokienez malgutasun handiagoa; ekonomiako eta giza baliabideetako inbertsioak areagotzea; eta populazio-sektore berriei heziketara iristeko bideak erraztea

46. *La educación a distancia. De la teoría a la práctica.* García Aretio. Ariel Educación 2001

- Heziketaren gastuak arintzea.
- Heziketa-eskaintzak ugaltzea; heziketa iraunkorra areagotzea eta sendotzea.

DESEGOKITASUNAK ETA ZAILTASUNAK:

- Arazoak sortzen dira gizarteratze-helburuak lortzeko, hala nola, afektibitate eta jarreraren alorrekoak, ikasleriaren prestakuntza eta jarrerak aldatzekoak eta psikomotrizitatekoak.
- Irakasle-ikaslearen artean heziketa alorrean ematen diren harremanen abantaila murriztu egiten da (*feed back* delakoa oso motela delako edo izan daitekeelako).
- Ikerle askok zalantzak dituzte, urrutiko hezkuntzako sistemak jarraibide edo edukien transferentzia hutsaz gain beste zerbait izan daitekeenaz.
- Arriskua dago materialen homogeneotasunari dagokionez –ikasle guztiek gauza bera ikasten dute-, agindu-paketearen prototipo bakarra delako eta irakaslearekin interakziorako aukera gutxiago dagoelako.
- Internet bidez urrutiko hezkuntzara iristeko aukera giza talde jakin batzuetara mugatzen da.
- Ebaluazioaren emaitzak ez dira izaten ikaslearen presentziaz egindako ebaluazioaren emaitzak bezain fidagarriak, salbu ikaslea ebaluazioan egotea eskatzen den urrutiko hezkuntzan.
- Denengana iritsi nahi izateak abandonu masiboak, desertzioak eta porrotak sortzen ditu. Ohiz urrutiko hezkuntzan askoz ere gehiagok uzten du ikasketa bertan egotea eskatzen den hezkuntzan baino.
- Urrutiko hezkuntzan gastu arruntak murriztuzkoak badira ere, kontuan izan behar dira hasierako inbertsio-gastu ikaragarriak.
- Uz da erraza modalitate honetako baliabideak diseinatzeko eta produzitzeko teknologiak ezagutzen dituzten profesionalak bilatzea, ez eta jite birtualeko irakaskuntzara doitutako materialak egiteko prestatu daudenak ere.

Ikasteko aukerak zabaltzeaz erakundeak egoera pribilegiatuan daude beren langileen gaitasunak eskakizun berrietara egokitzeko leku bihur daitezten

3.2. ERAKUNDEEN ROLA HEZIKETA IRAUNKORREAN

Ikasteko aukerak zabaltzeaz erakundeak egoera pribilegiatuan daude beren langileen gaitasunak eskakizun berrietara egokitzeko. Jakina, erakunde bakoitzak era berezian antolatzen du heziketan dagokion eginkizuna edo rola, eta hori enpresa bakoitzaren tamaina, etorkizunerako estrategia, barruko eta kanpoko hartu-eman, lankidetzak eta

aliantza-sare, berrikuntza maila, eta abarren baitan dago. XXI. mendeko erakundea bere barruan eta kanpoan eraturako sareen bidez finkatzen diren hartu-eman multzo bezala agertzen da, aldi berean fluxu fisiko (materialak, produktuak eta zerbitzuak) eta fluxu ez materialak (informazioa, asmoak, jakintza) kudeatzeko gai den antolamendu bezala, alegia.

“Erakunde autohezlea” edo “jakintza-kapitala duen enpresa” izan nahi duen erakundearen arazorik garrantzitsuena ez da bakarrik begirada langileen lanbide-gaitasunen (gizabanakoaren adimena) garapenera zuzentzea, baita estrategia hori eta etengabe kolektiboaren garapena bilatzeko estrategia elkarrekin konbinatzera ere. Erakunde horiek, bada, beren esperientziatik ikasi behar dute, irakaskuntza horiek eguneroko produkzio-prozesuetara eta/edo zerbitzuetara gehitzen dituztelako: pertsonak erakundearen testuinguruan edo sistema orokorrean hezten dira. Nyhan-ek dioenez, erakundearen eraginkortasuna eta gizabanakoaren ikasketa elkarri lotutako faktoreak dira; erakundearen eraginkortasunak, halaber, gizabanakoaren ikasketak bultzatzen ditu, eta horrek erakundearen eraginkortasuna areagotzen laguntzen du.

Sauter -ek adierazten duenez, lanean integratutako prestakuntzak baditu zenbait helburu eta abantaila eta aldi berean zenbait oztopo. Ikus ditzagun horietako batzuk ondoko laburpenean:

LANEKO HEZIKETA INTEGRATUAREN ABANTAILAK

- Eraginkortasun handiagoa aplikazio praktikoari esker. Gaitasunak eta jakintza lortzeko aukerak ematen ditu bai aplikatzerakoan bai erabiltzerakoan, eta egoera berezietan aplikatzearen arazoak eta teoria eta praktikaren arteko frikzioak ekidin daitezke.
- Lanera joan gabeko aldiak eragiten duen gastua txikiagoa da. Erakundetik kanpoko programetan burutzen diren heziketa-aldiek arazo larriak sortzen dituzte erakundeetan, batez ere horiek mikroak, txikiak eta ertainak badira. Soldatapekoen lanera ez agertzeko aldiak murriztea lortzen bada, gutxienez soldata-gastuak murrizten dira. Gastu horiek, %48 ingurukoak, erakundeek ikasketa iraunkorrean gastatzen dutenaren zati handia dira. Erakundetik kanpoko heziketan aurrezten denak erakundearen integratutako prestakuntzaren beste gastu batzuk baino gehiago merezi duen jakitea oraindik ez da kalkulatu.
- Just-in time-ko eta aisialdiko heziketa. Laneko heziketa egokiagoa da erakundeentzat hobeto doitzen delako bertako denbora eta premietara. Gainera, heziketa-modalitate honek heziketa-prozesuei jarraipena emateko aukera dakar, kanpoko heziketarekin gertatzen denaren kontra.

47. Nyhan B.-k erabilitako kontzeptuak bere artikulu honetan: *Cómo construir organizaciones autoformativas: comprobaciones prácticas de la teoría*. Formación Profesional aldizkaria. Cedefop. 1999

48. *Riesgos y oportunidades de la formación en el proceso de trabajo*. Sauter, E. Agora II. Cedefop

- Lanbide-gaitasun txikia dutenentzat irismen handiagoa. Erakundeko kolektibo guztiak parte hartzeko oztopoak kanpoko heziketan baino askoz ere txikiagoak dira. Heziketa-esperientzia ezkorrak handicap izaten dira lanbide-gaitasun formalik ez duten taldeentzat heziketa iraunkorrean parte hartzeko, eta talde horiek ez dira inolako arazo izaten heziketa lanean bertan antolatzen denean. Kolektibo horrentzat abantaila handia izango litzateke erakunde barruko heziketaz lortutako gaitasunak egiaztatzeko ziurtagiriak eskuratzea, eta horiek, gainera, lan-merkatuan ohikoak diren titulazioak lortzeko kreditu bezala erabili ahal izatea.

LANEKO HEZIKETA INTEGRATUAREN OZTOPOAK

Badira adierazle batzuk geroz eta zailtasun handiagoa erakusten dutenak heziketa-prozesuetan, lanaren trinkotasuna areagotzen ari den heinean. Zenbat eta lan gehiago egin behar are denbora gutxiago heziketarako eta langileak ere gutxiago. Zehazki, laneko heziketarako oztopo horiek honako arrazoiengatik izaten dira:

- Jarduerak beste erakunde batzuetara eramateko joera; horren ondorioz, lanaren edukia murriztu egiten dira, eta informazio eta lankidetzaren fluxuak oztopatu.
- Jjust-in-time delakoaren printzipioa: lanak prestatzeko denbora murriztu egiten du eta ondorioz prestakuntza ere murriztu egiten da, batzuetan desagertzeraino.
- Tele-lanaren agerpenaz langileen atal handi bat komunikazio eta ikasketa-prozesu informaletatik kanpo gelditu da.
- Langileria finkoaren eta aldi baterako langileen arteko desberdintasuna. Horren ondorioz, langile finkoek oro har lehentasuna izaten dute heziketara iristeko.

Iturria: AGORA II. *El papel de la empresa en la formación permanente*. Cedefop Panorama. Luxemburgo 1998

Alabaina, erakundeei dagokien heziketa-eginkizunak etorkizunean izango duen garapenak zenbait arazori egin behar die aurre, hala nola:

- Erakundeetan behar bezala gaitutako giza baliabideak (tutoreak, bitarteko arduradunak, eta abar) egokitu behar dira, gainera gaitutzeko langileei gaitasunak erakusteko prest daudenak.
- Erakundeek dauzkaten helburuen eta langileen asmoen arteko adostasun eta orekarako maila batzuk jarri behar dira.
- Zenbait erakundeetan heziketa iraunkorrari buruz dauden zalantzak zuzendu behar dira, batez ere tamaina txikikoetan.
- Heziketaren eginkizunean erakundea osatzen duten guztiak nahastea, hau da, zuzendaritza, produkzioa, administrazioa, logistika, giza baliabideak, eta abar; halaber, dinamika hori kolektibo guztietara zabaltzea, hau da, langile finkoengana, aldi baterako langileengana, tele-langileengana, eta abar.
- Erakundearen barruan egindako ikasketen agiriak sustatzea, eta hala lortutako tituluek gizartean onespina izateko ahaleginak egitea.

Desegokitasunak eta zailtasunak, ordea, hauekin dute zerikusi: irakasle eta ikasleen arteko harremanen mugarekin –desegokitasunek eta zailtasunek modu nabarmenean mugatzen dituzte horien arteko harremanak; urrutiko hezkuntzan parte hartzen duten agente guztiak ukitzen dituen muga teknologikoarekin, eta hasieran behar diren inbertsio ekonomikoen bolumenarekin

- Erakundeak jakintza tazitu eta esplizituen transferentzia sustatzea lankidetzazko izaerako metodologiak (praktika-komunitateak, eta abar) erabiliz, eta erakundera, egoki balitz, transferentzia horretarako egokiak izan daitezkeen teknologia berriak gehitzea.
- Heziketa iraunkorra erakundeak sortzen dituen produktu edo zerbitzuak hobetzeko prozesuan kokatzea.

Azkenik, adierazi behar da, lanean integratutako heziketan ikus daitezkeen abantailak handiak eta ugariak badira ere, premiazkoa dela barruko eta kanpoko neurriekin osatzea, bai langilearen bai erakundearen gaitasunen garapen betea lortzeko, horretarako bidea edozein delarik ere. Gainera, gaur egun lanaren alorrean dagoen malgutasuna kontuan izanik, egokitzat jotzen da zenbait metodologia erabiltzea, adibidez, on-line, edo autoheziketa, simulazio jokoak, neurri-rako heziketa, eta abar, langileak bere lanpostuan hartzen duen presuntakuntza osatzeko teknika lagungarri bezala.

Azkenik, adierazi behar da, lanean integratutako heziketan ikus daitezkeen abantailak handiak eta ugariak badira ere, premiazkoa dela barruko eta kanpoko neurriekin osatzea, bai langilearen bai erakundearen gaitasunen garapen betea lortzeko, horretarako bidea edozein delarik ere

HEZIKETA IRAUNKORRA SINDIKATUEN IKUSPEGITIK

Sindikatuaren ikuspegitik⁴⁹ elkarrizketa eskatzen da, alde batetik, langileen eskubideak eta lanpostuak bermatzeko eta hobetzeko, eta bestetik, erakundeek proposatzen dituzten heziketa-premiei buruzko analisiaz abaltzea. Elkarrizketa hori eraginkorra izan dadin, honako bost mailatan eman behar da:

- Erakunde ertain edo handien mailan, beren berritze-asmotarako estrategietara gaitasun berriak lortzeko aurreikuspenak gehituz, helburuak esplizituki betetzeko. Maila honetako elkarrizketetan behar den gardentasunerako lekua, behar-beharrezkoa erakundearen edozein garapen prozesutan, negoziazio kolektiboa da, betiere erakundearen barruan. Heziketa-programa erakundeak eta langileen legezko ordezkariak erabakiko dute.
- Sektore mailan: orientatzeko eta lehentasunak zehazteko, batez ere enpresa ertain eta txikietan. Alde batera utzi behar dira heziketa-programa estandarizatueta oinarritzea. Sektore mailan antolatzen diren bitako erakundeek premiak atzeman behar dituzte, alor konkretura jaitsi, alegia, baina aurreikuspenak ere egin behar dituzte aurrera begira.
- Herrialde eta eskualde mailan. Sektore mailan antolatutako bitako erakundeek eskualdeko langileen heziketari laguntzeko sektore artean dauden premiak atzeman behar dituzte eta heziketa-erakundeekin batera sektoreetako aldakuntzetara doitzeko prozesuak sustatu behar dituzte.
- Nazio mailan. Elkarrizketak erakundeaz gaindikoa egituratu egin behar dira premiak eta gai-

49. *La formación continua: un conflicto con solución*. Blanca Gómez. CC.OO. Agora II. Cedefop

tasunak identifikatzeko, heziketa-azpizistematik eratzeko eta negoziazio kolektiboetan lanbide-gaitasunak egituratzeko; azken finean, Gaitasunen Institutu Nazionala gorpuzteko.

- Europa mailan. Batasuneko herrialde kideetan lanbide-gaitasunak onartzeko eta bateratzeko sistema sortzeko hutsean gelditu ziren asmoak berriro suspertu behar dira.

3.3. IRAKASKUNTZA IRAUNKORRERAKO ESZENATEGI BERRIAK ETA BALIABIDE BERRIAK

Aurreko orrialdeetan adierazienez, HIUa irakaskuntza-prozesuetan historia luzea duen modalitatea da. Duela hamarkada batzuetatik hona, denok ezagutzen dugu prentsa eta telebistaren bidez iragarritako ekimen eta esperientziak, zenbait jarduera sektoretan lanbide-gaitasunak garatzeko, eta irakasle eta ikasle-en arteko harremanetarako posta bidezko prestakuntza erabili dutenak.

Bestalde, kontuan izan behar dugu XXI. mende bete-betean gaudela ikaskuntza-eszenategiak aldatu eta zabaldu egin direla modu nabarmenean. Ohiz eskola berariaz ikaskuntza-prozesua mamitzen zen gunea izan bada ere, gaur egun pertsonaren gaitasunak eta abilitateak garatzen diren espazioak askoz ere ugariagoak eta irekiagoak dira: prestakuntza-zentroa, lanpostua, etxea, eta abar. Baina horrez gain beste ikasketa-eremu berri batzuk ari dira sortzen, hala nola, ziberespazioa, hau da, erreala ez den espazioa delarik, komunikazio mediatiko interaktiboak⁴⁷ garatzeko lekua.

Ohiz eskola berariaz ikaskuntza-prozesua mamitzen zen gunea izan bada ere, gaur egun pertsonaren gaitasunak eta abilitateak garatzen diren espazioak askoz ere ugariagoak eta irekiagoak dira: prestakuntza-zentroa, lanpostua, etxea, eta abar. Baina horrez gain beste ikasketa-eremu berri batzuk ari dira sortzen, hala nola, ziberespazioa

URRUTIKO HEZIKETAN ERABILTZEN DIREN ZENBAIT TEKNOLOGIA BALORATZEKO OHARRAK

TEKNOLOGIA-BALIABIDEA	DESKRIBAPENA	HEZIKETA ONURAK	ERAGOZPENAK
Ohiko postaz (aplikazioa: posta bidezko ikasketak)	Ikasgaiak posta bidez bidaltzen zaizkie ikasleei eta horiek bide horretatik itzultzen dizkio- te irakasleei zuzentzeko. Jarraibide linealak edo programatuak erabil daitezke.	Heziketara iristeko bide bakarra denean. Jarraibide programatua ondo aplikatua bada, ondo egoki daiteke ikasleen mailara eta ibilbidera.	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasle-ikaslearen arteko harremanetan denbora asko itxaron behar. • Atzera-hornitze baxua. • Interakzio orokor urria eta desegokia.
Aurrez grabatutako baliabideak (aplikazioa: autoikaskuntzan erabiltzen diren kaseteak)	Material idatziarekin batera aurkezten dira eta gidari baten laguntza izaten dute.	Irakaskuntza eta ikaskuntzarako bideak handitu egiten dira eta, ondorioz, gaitasunak garatzeko aukerak ere ugaltu egiten dira.	<ul style="list-style-type: none"> • Materiala itxia izaten da. • Ikasle guztientzat material berdina erabiltzen da.

50. *El ciberespacio: el no lugar como lugar educativo*. Cabero Almenara, J. Sevillako Unibertsitatea. (www.uib.es/depart/gte/cabero.html webean eskuragarri)

URRUTIKO HEZIKETAN ERABILTZEN DIREN ZENBAIT TEKNOLOGIA BALORATZEKO OHARRAK (II)

TEKNOLOGIA-BALIABIDEA	DESKRIBAPENA	HEZIKETA ONURAK	ERAGOZPENAK
Bi noranzko audioa (aplikazioa: audiohitzaldiak; telefono eta irrati bidezko klaseak).	Irakasleak irrati eta telefono estandarrak dauzka eta horiek erabiltzen ditu ikasgaiak azaltzeko, irakurtzeko eta eztabaidak proposatzeko. Ikasleek entzun eta parte hartzen dute. Ohiz material idatzi lagungarria bidaltzen zaio ikasleari.	Erantzunak berehala eman daitezke, eta horrela irakasle eta ikaslearen arteko harremanetan eta sinkronian irabazi egiten da. Sistema honek irakasle-ikasle arteko harremanetarako aukera ematen du, nahiz eta harreman horiek zuzenekoak ez izan.	<ul style="list-style-type: none"> Entzunezko klaseak dira, baina horietan (irratia) harremana nahiko azalekoa da. Partaideen arteko lankidetzak partziala da, txanda hartzea ezin da kontrolatu eta azkenean produktu indibiduala lortzen da.
Bi noranzko audioa grafikoekin (aplikazioa: aurrekoaren berdina, baina grafikoen softwarea erabiliz)	Software berezi bat behar da irakasle eta ikasleen artean material grafikoa eta ikustekoa partekatzeko.	Ikusizko materialari buruzko eztabaidak telefonoz egiten dira. Ikaskuntza bideak zabaldu egiten dira eta ikusizko materialaren (grafikoak, bideoak, mapak, eta abar) interpretazio eta analisisan irabazi egiten da. Ezinbestekoa gai batzuetarako eta diziplina bakoitzeko espezializatorako egokitasun handiagoa.	<ul style="list-style-type: none"> Ikusteko gaitasunaren garapenak mugak ditu, maila honetan bi leku baino gehiago ezin direlako jarri harremanetan. Software itxia. Oraindik interakzioa baxua da eta aurreikus daitekeena.
Noranzko bakarreko bideoa (aplikazioa: satellite bidez igorritako programa itxiak)	Telebista bidezko irakaskuntza, euskarriztat material deskribatuarekin. Zenbait alditan, irakasleak telefonoz ematen dute arreta, baina sistema gehienek postaz bidaltzen dituzte bisualizazioa eta erantzunak. Badira bertsio batzuk bideoan, programa jarraitu ezin izan dutenentzat.	Iturri dokumentalak askoz ere aberatsagoak dira eta gainera testuinguru errealek sar dituzkete. Ikus-entzunezko materiala teknologia-mugarik gabe erabiltzeak, beste era batera azalduz ulergaitzak izango liratekeen segida logiko luzeak eta prozesu korapilatsuak ulertzeko aukera ematen du. Azalpen gehigarriak ere gehi daitezke eta aldi berean jarduerak erakutsi.	<ul style="list-style-type: none"> Irakaskuntza argi eta garbi ikasketatik aske dagoen hartze-ematezko interakzioa da. Denbora mugatua da eta ikasleak ez du horretan inolako kontrolirik. Prozesu didaktikoa oso luzea da eta hezkuntza-jarduera bakoitzaren artean denbora asko igaro daiteke: ikusi –irakurri, alderatu-, jarduerak bidali eta jaso.
Bi noranzko audioa eta noranzko bakarreko bideoa (aplikazioa: telebista eta telefonoaren erabilerak koordinatua)	Uhin edo kable bidezko telebista erabiltzea, herrialde desberdinetan ikastaroak sinkronikoki emateko. Ikasleek materialak, gida-liburuak eta harremanetarako telefonoa daukate, klasean bertan eta, jakina, klasea amaitu ondoren erabil dezaketena.	Interakzio didaktikoan denbora aurrezten da eta programen oinarritzko segida ohiz berdina bada ere, partaideek aukera dute ikastaroaren garapenean eragiteko beren galderen bidez.	<ul style="list-style-type: none"> Inbutuaren efektua sortzen da: irakaskuntzaren irispina oso altua denez (ikasle askok hartzen dute aldi berean ikasgaia), irakasle asko jartzten ez bada edo galderak jasotzeko sistema on bat jartzten ez bada, sistemaren balizko plastikotasuna irrealak gertatzen da.
Bi noranzko audioa eta bideoa (aplikazioa: bideoemanaldietako sistema orokorra).	Klabe bidezko telebista erabiltzea, beste teknologia batzuekin batera, hala nola, telefono konbentzionala eta sare telematikoa.	Teknologia desberdina integratzeak segida didaktiko aberatsak egiteko aukera ematen du, baita interakzio azkarragoa eta maila handiagokoa ere. Mundu mailako esperientzia eta adituekiko komunikazioa ahalezkoa da, baita talde-lana ere, nahiz eta oraindik nolabaiteko ahaleginak egin behar.	<ul style="list-style-type: none"> Bidaltzeko egoitza bat behar da eta beste bat jasotzeko, nahiz eta telebistaz ere bidali ahal den; nolana ere azken bide horrekin interakzio maila galtzen da.

URRUTIKO HEZIKETAN ERABILTZEN DIREN ZENBAIT TEKNOLOGIA BALORATZEKO OHARRAK (III)

TEKNOLOGIA-BALIABIDEA	DESKRIBAPENA	HEZIKETA ONURAK	ERAGOZPENAK
Bi noranzko audio eta bideo pertsonalak (aplikazioa: bideoemanaldi pertsonala)	Barruko eta kanpoko sare informatikoak garatzen dira ordenagailuen bidez; horiek ikasle eta irakasleak lotzen dituzte audio eta bideo bidezko klaseak emanez. Audio eta bideo-materiala ordenagailuz egindakoa izaten da, nork bere etxean egindakoa.	Informazio-bilaketa eta hautaketa sustatzen da. Ondo erabiltzen bada, sistemak denbora komunikazio indibidualizatuan kontzentratzeko aukera ematen du, eta horrek garapen pertsonalizatua sustatzen du, ikasle guztiengana banan banaka iristen delako. Harreman didaktikoa idatzizko komunikazioan osatzen bada, komunikazioa askoz ere erreflexiboagoa bihurtzen da eta heziketak sakontasuna irabazten du.	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio-iturrien kalitate-kontrol baxua. • Arreta galerazle gehiago eta garrantzi gutxiako edukiak. • Helburu garbiak behar dira eta sareak eta oro har komunikabideak erabiltzeko protokoloak. • Ahozko komunikazio soila bada, gogoetatsua ez izatea gerta daiteke.
Urrutiko hezkuntzarako klaseak (aplikazioa: klase fisikobirtualak)	Egoitzak ondo hornitua behar du, ahal den teknologia guztiarekin (era guztietako grabazioak eta birproduktzioak egiteko, zuzeneko loturak, banda anitzeko komunikazioa, arbel elektronikoak, klase presentzialekin batera eramatekoak, eta abar). Egoitza horretan irakasleak erabakiko du momentu bakoitzean zer teknologia erabiliko duen eta nola erabiliko duen.	Irakasleak edozein momentutan erabaki dezake klasearen garapena, baita zati batzuk grabatuta uztea ere. Holako kasuetan irakasleak zenbait baliabide eta irisbide ematen dizkie. Lankidetzaren gehiago bultzatzea daiteke, ikasleen arteko komunikazioa gairik garrantzitsuenetakoa delako eta hori kontrol-panelen bidez zaindu daitekeelako edota klasean erabiltzen den teknologia guztiarekin.	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleak egoitza bakar bat erabiltzen du une oro, baina ondo ekipatua –bere jarduerak jasotzen dituzten kamara eta guztibaina ikasleek askoz ere teknologia zurrunagoa dute. • Baliabideen konplexutasun handiagoak irakasleak gida-laguntza handiagoa eman beharra dakar, eta horrek ere era anitzean prestatuta egon behar du.

Iturria: *La incógnita de la educación a distancia*. Barberá, E (Coord) Badia, A y Mominó J. Cuadernos de Educación. ICE-HORSORI. Bartzelonako Unibertsitatea, 2001.

Ikasketa-prozesua burura eramateko erabiltzen diren espazioekin zein baliabideekin hainbat bertute eta akats eskaintzen dituzte, eta ikasketa-prozesuaren egokitasuna, hein handi batean, lortu nahi diren helburu eta heziketaren xedeko kolektiboen baitan dago.

Alabaina, ahalezko eszenategiak anitzak badira ere, orrialde hauetan ikaskuntza-girorik berritzaileen inguruko arazo batzuk aztertuko ditugu, esan nahi da, ikasketa birtuala/Internet bidezko prestakuntza.

IKTB delakoen garapenak iraultza bat ekarri du heziketaren alorrera eta eskaintzaile eta erabiltzaileen esku jarri du teknologia-baliabide ugari, ikasketa-prozesuak aurrera eramateko. Aurreko atalean ikusi denez, teknologien erabilerak ezaugarri berezi batzuk eskaintzen ditu, jakintzara hurbiltzeko bidea aparteko moduan errazten dutenak.

Informazioaren eta teknologiaren gizartearen barruan IKTB delakoek modu nabarmenean zabaldu dituzte hezkuntza-prestakuntzaren eszenategiak. Adell⁵¹-ek adierazten duenez, teknologia berriak ez dira gehituko bakarrik heziketara ikasi beharreko eduki bezala edo lortu beharreko trebezia bezala, eta geroz eta gehiago erabiliko dira heziketaren zerbitzura dagoen komunikabide bezala, hau da, irakaskuntza/prestakuntza prozesuei bide emango dien testuinguru bezala. Miller⁵²-ek, bestalde, teknologien interaktibitateko aukerei buruzko elkarrizketa mahairatzen du:

1. Ikasketaren denbora laburtzea.
2. Gastua murriztea.
3. Heziketaren koherentzia.
4. Intimitatea
5. Ikasketa menderatzea.
6. Erretentzioa areagotzea.
7. Segurtasuna gehitzea, esperimentu batzuk pertsonak arriskuan jarri gabe egin daitezkeelako.
8. Irisgarritasunak heziketaren demokratizazioa ahalbideratzen du.
9. Heziketa suspergarriak askoz ere gehiago motibatzen du, ikasleak bere ikasketa-erritmoa kontrola dezakeelako.

Baieztapen horietako askok ikerketa-oinarri sendorik ez badu ere (adibidez, galdetu behar dugu ea nora arte demokratizatzen den heziketa edo ikasteko denbora zenbat murrizten den), badirudi, Areitiok⁵³ dioen bezala, Internetek berretsi eta indartu egin dituela heziketa ireki eta urrutikoari ikasketa-metodo horren aldekoek esleitzen dizkieten abantaila guztiak: irekitasuna, malgutasuna, eraginkortasuna, pribatasuna eta, batez ere, interaktibitatea.

Internet-ek pertsonen artean komunikazio interaktiboa (ikasle, irakasle, lankidetzataldeak, nazioarteko adituak, erakunde espezializatuak, eta abar) ahalbideratzen du zuzenean zein zeharka, ahozko eta idatziko hezkuntzaren bidez. Eskuragarri dauden erreminten katalogoan, Areitiok⁵⁴ dioenez, bi talde bereiz daitezke: bata komunikazio asinkronoa (zeharka) ahalbideratzeko gaitasuna dutenena eta, bestea, komunikazio sinkronorako (zuzenean edo denbora errealean) gaitasuna dutenena:

51. *Tendencias en educación en la sociedad de las tecnologías de la información*. Adell, J. Grup de Noves Tecnologies aplicades a l'Educaió. Universitat Jaume I. EDUTEC. Revista electrónica de tecnología educativa. Nº 7. 1997ko azaroa.

52. *Ten good reasons. Learning benefits of interactive technologies*. Miller, R.L. 1990

53. *Formación a distancia para el nuevo milenio. ¿Cambios radicales o de procedimiento?*. García Areitio, L. (www.teleformacion.edu/informa.htm webean eskuragarri)

54. *La educación a distancia. De la teoría a la práctica*. García Areitio. Ariel Educación 2001

Teknologia berriak ez dira gehituko bakarrik heziketara ikasi beharreko eduki bezala edo lortu beharreko trebezia bezala, eta geroz eta gehiago erabiliko dira heziketaren zerbitzura dagoen komunikabide bezala, hau da, irakaskuntza/prestakuntza prozesuei bide emango dien testuinguru bezala

- Komunikazio asinkronorako erremintak: posta elektronikoa, banaketa-zerrendak, albiste-zerrendak, eztabaida foroak.
- Komunikazio sinkronorako erremintak: elkarrizketa idatzia (chat), audio-hitzaldiak, bideo-hitzaldiak.

Erreminten tipologia horiek elkarrekin nahastuz edo bateratuz erabiltzen hasi dira erakunde eta entitate publiko eta pribatuak (aurrerago ikusiko dugun bezala) beren heziketa ekintzan antolatzerakoan. Zentzu horretan, premiazkotzat jotzen dugu unibertsitateek, unibertsitate birtualek edo campus birtualek, alegia, burutzen ari diren jardueri buruz hausnarketa labur bat egitea.

Egia da irakaskuntza eta teknologiaren arteko sinbiosi handiena lortu den eremuetako bat unibertsitateko irakaskuntza dela. Prestakuntza-eredurik tradizionalenak alde batera utzi gabe, unibertsitate kopuru handi bat campus birtualak sortzeko eginkizunean murgildu da. Sektore honetan ematen den lehiakortasunak unibertsitateak merkatuaren eta erabiltzaileen eskakizun berrietara egokitzea behartu ditu; unibertsitateek beren eskaintza integratu egin behar izan dute, eta lizentziaturak eta diplomaturak eskaintzeaz gain, langile (heziketa iraunkorra), adineko jende, eta abarrentzako ikastaroak ere antolatu behar izan dituzte, alor jakin batzuetan espezializatuz. Aldaketa-eremu horretan, unibertsitate askok heziketa birtualera jo behar izan du. Carrillo⁵⁵ irakasleak egokitze horren zergatiak ematen ditu, horiek direlako, azken finean, unibertsitate eta holako erakundeek jakintzaren gizartean bizi-rauteko behar dituzten arazoak:

- a) Deseskolatzea: hau da, unibertsitateek prest egon behar dute birtualtasunaren analisisian baztertu daitezkeen ohitura akademiko gehienak alde batera uzteko.
- b) Unibertsitateek beren prozesuen gaitasunak ziurtatu behar dituzte: unibertsitateen denbora eta ahalegina jaten dituzten eginkizunik gehienak baztertzeko modukoak izaten dira birtualtasunaren analisisian. Unibertsitateek beren gizarte-eginkizuna berreskuratu behar badute, jakintzaren gizarte-dinamika eta dinamika ekonomikoa bereganatuz eta modu egokian erantzunez izan behar da. Bestelako jakintza-prozesu adierazgarriak administratzeaz gain, gizarteak ikaskuntza ere administratu beharra dauka; ikaskuntzak horrela garrantzi ekonomiko handiagoa bereganatuko du. Baina horrez gain, erronka ikaragarriei egin beharko die aurre, hori lortzeko eskatzen diren teknikiei dagokienez. Horiek diag-

Sektore honetan ematen den lehiakortasunak unibertsitateak merkatuaren eta erabiltzaileen eskakizun berrietara egokitzea behartu ditu; unibertsitateek beren eskaintza integratu egin behar izan dute, eta lizentziaturak eta diplomaturak eskaintzeaz gain, langile (heziketa iraunkorra), adineko jende, eta abarrentzako ikastaroak ere antolatu behar izan dituzte, alor jakin batzuetan espezializatuz. Aldaketa-eremu horretan, unibertsitate askok heziketa birtualera jo behar izan du

55. *Naturaleza y contexto de la universidad virtual*. Carrillo, FJ. Centro de Sistemas de Conocimiento. ITESM. Campus Monterrey. Mexico.

nostikatzea, diseinatzea, erraztea eta ebaluatzea eginkizun azpi-garatuak eta ondu beharrekoak dira, baliabide elektronikoen berriak modu emankorrean gehitu aurretik. Biziraupenak izen bat dauka erakunde guztien iritziz: beren prozesuetara balioa gehitzeko gaitasuna. Ohiko unibertsitateek modu egokian erantzuten ez badute, jada sortzen ari diren alternatibek ordeztuko dituzte: hezkuntza-zerbitzu elektronikoak, unibertsitate korporatiboak, ikastetxe komunitarioak eta, generikoki, norbere neurria egokitutako ikasketa-sistemak.

- c) Gaitasun garrantzitsuak identifikatzea eta garatzea. Gizarteak geroz eta zorrotasun handiagoz aztertuko du jada dauden erakunde bakoitzak ekarritako balioa horren gastua estali aurretik. Edozein enpresak bezala, unibertsitateek puntualki identifikatu behar dute beraiek betetzen duten eginkizuna eta hori asetzeko menderatu behar dituzten gaitasun garrantzitsuenak. Unibertsitateek honako zerbitzuak eman ditzakete helduen bizitza osoan zeharreko ikasketa-prozesuari buruz: kontzeptualizazioa, diseinua, produkzioa, instrumentalizazioa, erraztea, ebaluatzea, egiaztatzea eta garatzea. Baina horretarako, gizartearentzako zerbitzu hori betetzean lan lehiakorra burutzeko indarrak eratu behar dituzte. Teknika horiek garatzea eta gaitasun horiek ikastea erronka ikaragarria da hezitzaileentzat.
- d) Zikloaren denbora laburtzea: kontuan izanik gaur egun jakintzak zabala eta espezializatua izan behar duela eta jakintza orokorraren zikloak, gaur egun zazpi urtekoak direnak, laburtzeko joera dutela, aldaketari hobeto erantzuteko eskemak landu beharra dago, gaitasun generiko eta aldagarrietan gehiago oinarritzen direlako.
- e) Birtualizatzea: hau da, jakintza administratzeko eta ikasketa-prozesuaren garapen teknikoari buruz gizarteak dauzkan premiak ziurtatzea.

Alabaina, unibertsitateak eta heziketa-erakunde guztiek erronka teknologiko berri honetara egokitu behar dute ere, ikasketa birtualak ikerkuntza-esparru handiago behar du, baita bere giza baliabide guztiak kalitateko heziketa-zerbitzuak eskaintzeko prestatu ere. Ikasketa modalitate honek, halaber, heziketa tradizionalago baten osagarria izan behar du, hau da, alternatiba izan behar du nolabaiteko zailtasunak dituzten kolektiboak hurbiltzeko, baina ez sistema presentziaduna ordezkatzeko.

Alabaina, unibertsitateak eta heziketa-erakunde guztiek erronka teknologiko berri honetara egokitu behar badute ere, ikasketa birtualak ikerkuntza-esparru handiago behar du eta bere giza baliabide guztiak kalitateko heziketa-zerbitzuak eskaintzeko prestatu behar ditu

3.4. IKASKETA BIRTUALERAKO PRAKTIKA ONAK

Kapitulu honi amaia emateko, eta esperientzia interesgarri batzuk aurkezteko asmoz, ikerketa bat egin da Sarean heziketa-erakundeak eta jarduerak identifikatzeko, betiere koaderno honetako argumen-tuen harira datozenak badira: pertsona guztientzat ikasketa iraunko-rra eta, gainera, ikasketa birtuala.

Nabaria denez, Interneten heziketa-ikastaroei buruzko bilaketa egi-tea lan neketsua da, bilaketa findu gabe emaitzak anitzak izan daitez-keelako: milaka eta milaka organizazio eta erakunde daude, batzuk publikoak eta beste batzuk pribatuak, badira txikiak eta handiak, eta badira beste batzuk jarduera-sektore guztietan lanbide-gaitasunak garatzeko ekintza birtualak eskaintzen dituztenak. Horregatik, gutxien-go kalitatea eskaintzen duten heziketa-jardueraren bat aukeratzeak, alde batetik, orduak eta orduak sartzea eskatzen du, eta bestetik, hezi-keta-jarduera horietakoren baten egokitasuna eta ezaugarriak txekea-tzeko behar diren adierazle berrien gama oso bat erabiltzea maila guz-tietan (pedagogikoak, edukienak, teknologikoak, eta abar guztiak).

Zentzu horretan, mota honetako eskuartzeak bermatzen dituzten erakundeek eta/entitate publikoek implementaturiko jarduerak auke-ratu ditugu. Aukeraketa, nolana ere, zabalagoa izan zitekeen, baina kontua ez da ikastaroen katalogo amaigabe bat eskaintzea, ikasketa birtuala gaur egun hartzen ari den garrantzia agerian uztea baizik. Eginkizun horretan ari dira gure inguru hurbileneko eta nazioarteko instituzio, erakunde eta enpresarik garrantzitsuenak ere.

 **UOC** Universitat Oberta de Catalunya

<http://www.uoc.es/web/cat/index.html>

Kataluniako Universidad Oberta da unibertsitate mailan berariaz heziketa irekia eta urrutikoa ematen duten ikastegiaren eredurik bikaine-netakoa. Unibertsitateko hezkuntzaren kontzeptu berri bat da sortzen ari den jakintzaren sozietate global eta unibertsalaren premiei erantzute-ra datorrena. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera trinkoan oinarriturik, Kataluniako Universidad Ober-ta-k espazioaren eta denboraren oztopo guztiak gainditzen ditu, Inter-neten oinarritutako heziketa-ereduak eskainiz. Unibertsitate horretan, Campus birtualaren bidez, ikasleek oso erraz sartzen dira, dauden lekuan daudela, ikasteko esperientzia dinamiko honetara. Unibertsita-teak badu berariaz horretarako irakasle-talde gaitua, eta baliabide eta zerbitzu didaktiko berritzaile eta egokiak. Nazioarteko jakintza-sare nagusienekin harremanak ditu eta mundu osorako ematen du hezkun-

Aukeraketa, nolana ere, zabalagoa izan zitekeen, baina kontua ez da ikastaroen katalogo amaigabe bat eskaintzea, ikasketa birtuala gaur egun hartzen ari den garrantzia agerian uztea baizik. Eginkizun horretan ari dira gure inguru hurbileneko eta nazioarteko instituzio, erakunde eta enpresarik garrantzitsuenak ere

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera trinkoan oinarriturik, Kataluniako Universidad Oberta-k espazioaren eta denboraren oztopo guztiak gainditzen ditu, Interneten oinarritutako heziketa-ereduak eskainiz. Unibertsitate horretan, campus birtualaren bidez, ikasleek oso erraz sartzen dira, dauden lekuan daudela, ikasteko esperientzia dinamiko honetara

tza hainbat hizkuntzatan. Bai unibertsitate-ikasketak (diplomaturak, lizentziaturak, ingeniariak, graduatu osteko prestakuntza, doktoretzak), bai unibertsitate aurrekoak. Berebat, unibertsitate-ikasketak areagotzeko zentro bat dauka eta Udako Ikastaroak antolatzen ditu.



<http://www.open.ac.uk/>

Open University, 1969an sortua, Erresuma Batuan diren urrutiko unibertsitate handiena eta berritzaileena da, eta onespenez handia irabazi du nazioarteko mailan bere irakaskuntza-materialagatik eta bere metodoen eraginkortasunagatik. Open University-ko ikastaroak ikasleek beren etxeetatik edo lantokietatik, beren arauetara egokitutako ikasketak egiteko diseinatuta dago bereziki. Ikastaro horietan baliabide didaktiko asko erabiltzen dituzte: unibertsitateak berak egindako testu-liburuak, telebista eta irrati-programak, bideo eta audio zintak, softwarea eta esperimentaziorako kit-ak. Harreman pertsonalak eta ikasleen laguntza edozein lekutan dauden tutoreen bidez egiten da, horretarako Erresuma Batuan bertan edo kanpoan banatuta dauden 330 zentro errejonaleko era askotako metodologiak erabiltzen dituen sarearen laguntzaz; horien artean aipagarriak dira honakoak: tutoretza birtualak, eztabaida guneak, zalantzen kontsulta elektronikoa, multimedia-irakaskuntzarako materialak, hitzaldi birtualak, eta abar. Unibertsitateak, bestalde, 360 ikastaro eskaintzen ditu honako gaietan graduatu aurrekoak edo ostekoak: artea, hizkuntza modernoak, gizarte-zientziak, osasuna eta gizarte-ongizatea, zientziak, matematikak eta informatika, teknologia, enpresen administrazioa eta kudeaketa, heziketa eta zuzenbidea. Goi-mailako ikasketak egiten dituzten ikasleek gain, unibertsitate ireki honetako ikasle askok lanbide-garapenarekin eta bizitzan zeharreko ikasketarekin zerikusi duten ikastaroak egiten dituzte. Ikastaro horien bidez lanbide-gaitasunetako ziurtagiri bereziak jasotzen dituzte. Azkenik, aipatu du behar da unibertsitate honek arreta berezia ematen diela elbarrituen taldeari: ia 8.000 ikasle ari dira egoera horretan daudenak.

FONDO  FORMACION

<http://www.telefondoformacion.com/>

Fondo Formación Espainiako laneko heziketako enpresarik handiena da, eta orain badu Interneten zentro birtual bat ere. Zentro birtual horretako prestakuntza-jarduerak metodologia ireki eta malgua-

Ikastaro horietan baliabide didaktiko asko erabiltzen dituzte: unibertsitateak berak egindako testu-liburuak, telebista eta irrati-programak, ikus-entzunezko materialak, softwarea eta esperimentaziorako kit-ak. Harreman pertsonalak eta ikasleen laguntza edozein lekutan dauden tutoreen bidez gauzatzen dira

ren atzetik antolatu dira, ikasle bakoitzari bere premietara egokitu-tako ikasketa emateko; zentroak, halaber, ikasketen segimendu etengabea egiten du tutoretza-sistema konplexu baten bidez. Ikastaro guztiek egitura didaktiko bera dute eta ikastaroan egin behar diren orduak Heziketarako Baldintza Pleguan edo ikastaroaren deskribapen-agirian zehazten dira. Matrikulatutako ikasleak heziketa jarduera amaitzerakoan ebaluatzen dira eta jaso duten heziketari dagokion ziurtagiria hartzen dute. Material didaktikoa, webean eskuragarri dagoena, ziklo, modulu eta unitate didaktikoetan eratu-ta dago. Ikastaroaren iraupena heziketa-programa bakoitzaren arabera zehazten da. Unitate didaktiko bakoitzak bere ebaluazio-sistema dauka, eta ebaluazioa zuzenketa automatikoko galdetegi bereziki egiten da. Zentro birtualak, bestalde, badu tutoretza-sistema indartsu bat, honako hiru elementuetan oinarritzen dena: on-line tutoretza: ikastaro bakoitzak bere gela dauka (“Chat-room”) tele-tutoreak eta ikasleek elkarrekin komunikatzeko eta harremanak edukitzeko; posta elektronikoa: sistemaren barrukoa da; hartara ikasle bakoitzak bere korreoa hartzen du ikastaroan matrikulatzen denean. Irakaslearen ohola: tele-tutoreak hor jartzen ditu ikasleentzat ohiko galderak bakoitza bere erantzun eta guzti. Zentro birtualak departamentuak, hitzaldi-aretoak eta beste zerbitzu osagarri batzuk jartzen ditu ikasle matrikulatuen eskura beren ikasketa indartzeko. Honako ikastaroak ematen dira urrutiko ikastegi honetan: Domotika: eraikin eta etxebizitzetako instalazioak; prestatzaile eta gestoreen prestakuntza; bitarteko arduradunen prestakuntza; ingurugiroaren kudeaketa; kalitatearen antolamendua eta kudeaketa; laneko arriskuen aurrezaintza; salmentarako teknikak.



<http://www.sitea.net>

Tele-heziketa Aurreraturako Sistema Integratua (SITEA: Sistema Integrado de Teleformación Avanzado) Redox, S.A.-ren produktu bat da eta autohezkuntzako prozesuetan emaitzarik onenak lortzeko eratu-ta dago. Urrutiko heziketa eta tutoretzarako aukera ematen du, heziketa prozesuaren segimendu eta kontrola egiteko prozedura orokorren barruan; horretarako, inguru ofimatikoan (Internet, Intranet,

Zentro birtual horretako prestakuntza-jarduerak metodologia ireki eta malguaren atzetik antolatu dira, ikasle bakoitzari bere premietara egokitutako ikasketa emateko; zentroak, halaber, ikasketen segimendu etengabea egiten du tutoretza-sistema konplexu baten bidez

Prestakuntza-jarduera horiek egoera didaktiko berriak sortzen dituzte, hau da, inguru berriak sortzen dituzte ikasle-erabiltzailearentzat eta, ondorioz, egoera didaktiko desberdinak antolatzen dira: lan autonomoa, ikasleak etxean bertan,

LAN, CD-ROM) informazioa transmititzeko eta eskuz aldatzeko dauden hedapen-euskarriak erabiliz. Produktua merkaturatzeak aukera eman du bera eszenategi anitzetan konfiguratzeko eta horrekin balizko erabiltzaileei (enpresa pribatuak eta publikoak edozein delarik ere beren tamaina, erakundeak, prestakuntza-zentroak eta enpresak, erabiltzaile finalistak, eta abar). Berebat, jakintzaren eremu asko eta askorako garatutako produktuen eskaintza zabala egiten du sistema honek: informazioaren tratamendua, enpresen kudeaketa eta administrazioa, kalitatearen kudeaketa, ingurugiroaren kudeaketa, eta abar. Nolanahi ere, produktu honen metodologia SITEA berak diseinatu du bere heziketa eskaintzaren ereduera egokiturik; horrekin bat, berak antolatzen dituen ikastaroak etengabe ikuskatzen eta eguneratzen dira.



<http://www.uned.es/webuned/home.htm>

2000-2001 ikasturtean UNEDek birtualizazio plan bat jarri zuen martxan; hasiera batean plan hori Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako eta Ekonomiako lizentziaturako eta Kudeaketa-Sistemen Informatikako diplomaturako lehen ikastaroetan hasi ziren erabiltzen. 2001-2002 ikasturtean beste asignatura batzuetara ere hedatu zuten sistema, hala nola, Psikologia, Psikopedagogia, Pedagogia, Giza Hezkuntza, Historia, Filologia ingelesa eta Filologia hispanikoa. UNEDek, bere irakasle adituen ardurapean, tutoretza telematikoa ematen du, urrutiko unibertsitatearen irakaskuntza-eginkizunetarako; eta aldi berean, Sareak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen ditu, urrutiko hezkuntzaren metodologian sakontzeko. Ikastaro hauek erabiltzeko behar den informatika-jakintza oinarri-oinarrizkoa da. Interneteko edozein erabiltzaile erdipurdikoak ez luke inolako jakintza gehigarri beharko zerbitzu hauetaz aprobetxatzeko. Ikastaroak aurrera eramateko, UNEDek zenbait erreminta jarri ditu eskura: edukien erremintak: material idatzien (programa, egutegia, edukiak, glosategia, bilatzaileak) edukiak osatzen dituztenak; komunikaziorako erremintak: ikastaroan zehar Egoitza Akademikoko irakasle-taldeak banatu nahi dituen jakinarazpenak edo zirkularrak zuzenean jasotzekoak (posta elektronikoa, eztabaida-foroak, chat...); ikasketarako erremintak (ikasleen orriak, lan-taldeak, nire aurrerapena, kontseiluak); ebaluazio eta autoebaluaziorako erremintak (lanak, autoebaluazioa, azterketak, nire kalifikazioak).

lantokian edota multimedia-baliabideko zentroetan egin dezakeena; jarduera presentzialak; talde-lana (konbentzionala eta komunikazioaren eta sareko lankidetzan lanaren bidez egin daitekeena); tutoretzako praktikak; eta sistema telematiko edo tokiko sistemen bidez (edozein lekutatik egin daitekeen tutoretza)

UNEDek, bere irakasle adituen ardurapean, tutoretza telematikoa ematen du, urrutiko unibertsitatearen irakaskuntza-eginkizunetarako; eta aldi berean, Sareak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen ditu, urrutiko hezkuntzaren metodologian sakontzeko



Z A B A L N E T
FORMACIÓN PROFESIONAL ABIERTA
LANBIDE HEZIKETA IREKIA

<http://www.zabalnet.com/>

Lanbide heziketa irekiko zentro birtual hau instituzio publiko eta pribatuek, lanbide hezkuntzako zentroek eta teknologia hornitzaileek abalatzten dute. Zentro honek ikasketa-prozesu berritzailea, eraginkorra eta kalitatekoa ematen du. ZabalNet-ek Interneten ikasteko aukera ematen du, multimedia materialak eta teknologia telematikoak eskaintzen dituzten abantailak aprobetxatuz. Urrutiko hezkuntza tradizionalarekin gertatzen denaz bestela, ZabalNet inguruan dabilen ikaslea benetako hezkuntza-komunitatean sartuta dago eta horrek taldean ikasteko aukera ematen dio, lankidetzaren esperientzia baikorra sortzen du, irakaslearen lana arintzen du eta beste jarduera batzuekiko harremanak sendotzen ditu. Badute campus birtuala, eta horretan honako ikastaroak antolatzen dituzte: Ofimatika, Komunikazio eta Informazioaren Teknologia Berriak, Mantenimendua eta industriadiseinua, Zuzendaritza-gaitasunak eta Laneko segurtasuna eta osasuna.



CAMPUS EXTENS
campus extens



<http://campusextens.uib.es/> Campus Extens⁵⁶

Balear Iretako Unibertsitatearen ekimena da eta bere burua irakaskuntza irekiaren printzipioak jarraitzen dituen irakaskuntza erdi-presentzialeko proiektu bezala definitzen du. Funtsean honako asmoak ditu: Balear irltako ikasle guztien aukera-berdintasuna lortzea, herritarrei goi-mailako hezkuntzara iristeko aukera ematea eta lanbide-gaitasunak etengabe hobetzeko bideak eskaintzea. Eta esperientzia honen helburuak dira: Balear Iretan irakaskuntza ireki eta malgurako hezkuntza-zerbitzu berritzailea diseinatzea eta ezartzea; gradu eta graduatu osteko ikasketa arautuetarako hezkuntza erdi-presentzialeko zerbitzua ezartzea; informazio eta komunikaziorako teknologia berrien laguntzaz ikasketa autonomoetarako estrategiak sustatzea; ikaslearengan teknologia berrien ezagupena sustatzea; eta irakaskuntza-ikaskuntzako metodo interaktiboak sustatzea. Campus Extens-ek inplementatu duen hezkuntza-ereduan zera aurreikusten da: alde batetik, ikastorduen %70 jarduera sinkronoak dira, honela banaturik: bideo-hitzaldietako klaseak, aldizkako mintegiak eta

Urrutiko hezkuntza tradizionalarekin gertatzen denaz bestela, ZabalNet inguruan dabilen ikaslea benetako hezkuntza-komunitatean sartuta dago eta horrek taldean ikasteko aukera ematen dio, lankidetzaren esperientzia baikorra sortzen du, irakaslearen lana arintzen du eta beste jarduera batzuekiko harremanak sendotzen ditu

Prestakuntza-jarduera horiek egoera didaktiko berriak sortzen dituzte, hau da, inguru berriak sortzen dituzte ikasle-erabiltzailearentzat eta, ondorioz, egoera didaktiko desberdinak antolatzen dira: lan autonomoa, ikasleak etxean bertan, lantokian edota multimedia-baliabideko zentroetan egin dezakeena; jarduera presentzialak;

56. Modelos mixtos de formación universitaria presencial y a distancia: el Campus Extens. Salinas Ibáñez. Cuadernos de Documentación Multimedia.

ohiko klaseak tokian tokiko irakasleekin. Urruti dauden ikasleek asteen bideo-hitzaldien ordu kopuru jakin bat entzun behar dute, eta hilean behin irakasleak unibertsitatearen ordezkarietara joaten dira urrutiko ikasle horiei mintegi presentzialak emateko; bestetik, ikasleak autoikasketarako materialen eta baliabide osagaien bidez osatzen du heziketa. Material eta baliabide horiek Campus Extens-eko irakasleek eta horretako Unitat de Suport Tecnicopedagògic (USTP) atalak egiten dituzte. Prestakuntza-jarduera horiek egoera didaktiko berriak sortzen dituzte, hau da, inguru berriak sortzen dituzte ikasle-erabiltzailearentzat eta, ondorioz, egoera didaktiko desberdinak antolatzen dira: lan autonomoa, ikasleak etxean bertan, lantokian edota multimedia-baliabideko zentroetan egin dezakeena; jarduera presentzialak; talde-lana (konbentzionala eta komunikazioaren eta sareko lankidetzaren bidez egin daitekeena); tutoretzako praktikak; eta sistema telematiko edo tokiko sistemen bidez, edozein lekutatik egin daitekeen tutoretza.



<http://www.gruposti.com/>

Aholkularitza eta Prestakuntza zerbitzuen multzo zabal bat bideratzea eta koordinatzea da STI taldearen helburua, batez ere Informazio eta Komunikaziorako Teknologien aprobetxamendua bultzatuz eta emaitzak hobetzeko konponbideak eskainiz. Taldeak berebiziko lana egiten du I+Gn, teknologiaren alorrean, eta punta-puntako ikerketa eta proiektuak lantzen ditu, baita batzuetan Europako Batasunaren arteztarauetan iradokitzen edo proposatzen direnak ere.

Hain zuzen ere, Europako Komunitateen Batzordearen Komunikazio batek, segur aski ekainaren 20-22an Sevillan egingo den Gailurrak onartuko duenak, ikasketa iraunkorraren Europako eremua egia bihurtzeko baliabideak garatuko ditu. Jada gehiagorik luza ezin den ikasketa iraunkorraren errealitate hori, besteak beste, Informazio eta Komunikaziorako Teknologietan (e-Learning ekimena) oinarrituko da, horiek ikasketaren prozesu didaktikoak berririko aztertze eta planteatzeko potentzialtasun handia erakusten dutelako.

Ildo horretan, STI taldeak, Pertsonalaren Garapenean berezitatutako talde baten lankidetzaz, bere I+Gko baliabideen zati bat bideratu du OCDEk berriki egin duen ikerlan batek funtsezkotzat jo duen alderdiaren tratamendurako: literazia, edo etxeko eguneroko eginkizunetan

**talde-lana
(konbentzionala eta komunikazioaren eta sareko lankidetzaren bidez egin daitekeena);
tutoretzako praktikak;
eta sistema telematiko edo tokiko sistemen bidez (edozein lekutatik egin daitekeen tutoretza)**

Aholkularitza eta Prestakuntza zerbitzuen multzo zabal bat bideratzea eta koordinatzea da STI taldearen helburua, batez ere Informazio eta Komunikaziorako Teknologien aprobetxamendua bultzatuz eta emaitzak hobetzeko konponbideak eskainiz

edo lantegian edo gizartean informazio idatzia ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna, edo bakoitzak bere helburuak lortzeko eta nork bere jakintza eta bere potentziala garatzeko gaitasuna.

INEMentzat garatu duen proiektu batean STIren lana lan-merkatu iristeko zailtasunak dituzten kolektiboen literazia maila neurtzera bideratu da, baita, arazo hori konpontzeko asmoz, prestakuntza paketeetan bil daitezkeen jarduera pedagogikoak garatzera ere.

Gainera, Informazioaren Gizartearen garapenak finkatzen duen hazkunde-erritmoari jarraitu ahal izateko eta, bakoitzak bere kabuz egiten duen ikasketaren garrantzia kontuan izanik, neurketa hori bera jardunean ari diren langileei ere egin ahal izateko, beste lan-ildo bat ireki du aipatu taldeak. Emaitzek esango dute zehaztasun osoz inkestatuek erakusten dituzten gaitasunak, eta aldi berean lana bilatzeko prozesuaren arrakastaren pronostikoa emango dute, baita enpresek espazioan eta denboran errendimendu handiagoak lortzeko behar duten informazioa eta prestakuntza nola diseinatu ere.



www.tt.mtas.es/dgas/

Gizarte, Adin-txikiko eta Familia Ekintzarako Zuzendari Nagusiak telehezkuntza-programa bat jarri zuen martxan 1998an. 1992tik bultzatzen ari den Heziketa Egitasmoaren barruko programa hori, beren funtzioen artean gizarte-arretaren eginkizun zailaz arduratzen diren tekniko eta profesionalak heziketa iraunkorrerako sarrera bermatzeko asmoz sortu zuten, hala nola, tekniko eta profesional horiek ikasleen lekuetara joateko zeuzkaten zailtasunak gainditzeko. Programa honen bidez, egoera berezian dauden profesionalen heziketa erraztu nahi dute, hau da, beren lanagatik edo lan egiten duten lekuagatik ikastaro presentzialeko ohiko ikastaroetara joan ezin dutenen heziketa. Proiektu honekin, beraz, etapa berri bati ekin zaio, Prestakuntza Iraunkorreko Planetan geroz eta kalitate maila altuagoak lortzeko zereginen aurrera egiteko, eta aldi berean profesionalak teknologia berriek heziketaren alorrean eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzen eta aprobetxatzen prestatzen dira. Programa hauekin lortutako arrakastak bide onetik doazela adierazten du. Ildo horretan, ikastaro berriak inplementatu dituzte, sistema honen bidez modulu-eskaintza zabal bat lortzeko eta gizarte-zerbitzuetako profesionalak, dauden lekuan daudela, beren lanbideak birziklatzeko, esperientziak elkarri trukatzeko eta beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera eskaintzeko.

Proiektu honekin, beraz, etapa berri bati ekin zaio, Prestakuntza Iraunkorreko Planetan geroz eta kalitate maila altuagoak lortzeko zereginen aurrera egiteko, eta aldi berean profesionalak teknologia berriek heziketaren alorrean eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzen eta aprobetxatzen prestatzen dira



www.comunet.es

ComuNET 1994. urtean sortu zen, beren heziketa-prozesuetan informazioaren teknologiak zuzenean erabiltzeko xedea duten hezikuntza-sektoreari lotutako enpresa, instituzio eta erakundeei konponbide integralak eskaintzeko asmoz. Bere Education Solution atalaren bidez sortutako proiektu handietakoa da NETcampus. Tele-hezikuntzarako plataforma integral hau ez da bakarrik softwareko aplikazio hutsa, metodologia eskaintza eta lan-sistema ere bada, honako prozesuak garatzen laguntzeko: ikastaroen kudeaketa, administrazioa, diseinua eta sorkuntza, hala nola, horiek guztiak ikasgela birtualean emateko modua.

ComuNET-ek, bere aholkularitza eta prestakuntza-departamentuen bidez, metodologiak, edukiak, sistema pedagogikoak, eta abar inguru birtual edo on-line motako ingurura egokitzera bideratutako zerbitzuak eskaintzen ditu, eta aldi berean aipatu prozesuekin zerikusi duen pertsonalaren prestakuntzarako behar den euskarria eskaintzen du, hala nola hori guztia erakunde bakoitzaren premien arabera ezartzeko behar den estrategia.

ComuNET-ek, bere aholkularitza eta prestakuntza-departamentuen bidez, metodologiak, edukiak, sistema pedagogikoak, eta abar inguru birtual edo on-line motako ingurura egokitzera bideratutako zerbitzuak eskaintzen ditu

KONTSULTARAKO BIBLIOGRAFIA

OCDE. *Economics and Finance of Lifelong Learning*. 2001

OCDE. *Education at a Glance-OECD Indicators*. 2000

OCDE. *Lifelong learning for all: meeting of the Education Committee at ministerial level, 1996ko ekainaren 16-17*. Paris.

OCDE and STATISTICS CANADA. *Literacy Skills for the Knowledge Society*, OECD/Human Resources Development Canada and Statics. Kanada. 1997

Europako Komunitateen Batzordea (1973) *For a Community policy on education (the "Jane report")* Bulletin of European Communities, 10/73 gehigarria.

Europako Komunitateen Batzordea. *Memorándum sobre el Aprendizaje Permanente*. SEC (2000) 1832. Bruselas 2000.10.30

Europako Komunitateen Batzordea. *Hacer realidad un espacio europeo del aprendizaje permanente*. Batzordearen Jakinarazpena, 2001.

Europako Komunitateen Batzordea. *Futuros Objetivos precisos de los Sistemas Educativos*. 2001

Europako Komunitateen Batzordea. *E-Learning: Concebir la educación del futuro*. Batzordearen Jakinarazpena. COM (2000) 318 amaierakoa. Bruselas 2000.5.25

Europako Komunitateen Batzordea. *Etorkizunaren hezkuntza sortzea. Teknologia berriekin berrikuntza sustatzea*. Batzordeak Europako Kontseiluari eta Parlamentuari egindako txostena. COM (2000) 23 amaierakoa. Bruselas 2000.1.27

CEDEFOP. *Making Learning Visible: Identification, assesment and recognition of non-formal learning in Europe*. 2000

CEDEFOP. *E-Learning: What is the extent of eLearning in Europe?*. Special report. European eLearning Summit. Brussels, 2001eko maiatzaren 10-11

CEDEFOP. *Identificación, evaluación y reconocimiento de los aprendizajes no formales: tendencias europeas*. Bjornavold. Berlin.

CEDEFOP. *Zenbat dakigu? Jakintza, lanbide-gaitasunak eta abileziak lan-merkatuan neur-tzea*. Europako Aldizkaria Lanbide Hezkuntza. 12 zk. 1997

CEDEFOP. *AGORA II: El papel de la empresa en la formación permanente*. Salonika. 1997ko azaroaren 17 eta 18. Cedefop Panorama. Mintegia. Luxemburgo. 1998

EURYDICE. *Lifelong Learning: the contributions of education systems in the Member states of the European Union*. Bruxelles 2000

EURYDICE. *Apprendre tout au long de la vie*. Bruxelles 2001

EURYDICE. *Les technologies de l'information et de la communication dans l'éducation*. Bruxelles 2001

EURYDICE. *Les technologies de l'information et de la communication dans l'éducation*. Bibliographie Thématique. Bruxelles 2001

UNESCO. Goi-mailako Hezkuntzarako Dibisioa, Hezkuntzaren ikerkuntza eta berrikuntzarako saila. *Urrutiko Ikasketa Irekia*.

E-Learning for the workplace. Creating Canada's lifelong learners. The Conference Board of Canada. Kanada. 2001

Solutions for employers: effective strategies for using learning technologies in the workplace. Knowledge Review Report. The Conference Board of Canada. Kanada 2000

IVAC-KEI. Gobierno Vasco. *Aprendizaje permanente: la clave del futuro*. Documento de trabajo basado en el Memorandum de la Comisión Europea sobre el aprendizaje permanente. Bilbao. Enero 2001

Departamento de Tecnologías de las Comunicaciones, Universidad Carlos III de Madrid. *Informe sobre el estado de la Teleducación en España*. Asociación de Usuarios de Internet, 2001.

Barberá, E.; Badia, A.; Mominó, J.: *La incógnita de la educación a distancia*. Cuadernos de Educación 35. ICE, Universidad de Barcelona. Barcelona 2001

Dohmen, G. *The future of continuing education in Europe. Lifelong learning for all in changing learning environments*. Bonn, Hezkuntza eta Ikerkuntzarako Ministerio Federala. 1998

García Aretio, L.: *La educación a distancia. De la teoría a la práctica*. Ariel Educación. Barcelona 2001

Polanyi, M. *The tacit dimension*. 1996

Rowley, J., Lujan, D.H., Dolence, M.G. *Strategic choices for the academy- how demand for lifelong learning will create higher education*. San Frantzisko, Jossey-Bass Publishers. 1998

ARTIKULU INTERESGARRIAK

Adell, J.: *Tendencias en educación en la sociedad de las tecnologías de la información*. Castelló de la Planako Jaume I.a Unibertsitatea.

Boshier, R. (1998): *Edgar Faure after 25 years: down but not out*. EN: Holford, J. Et al. International perspectives on lifelong learning. Londres, Kogan Page. 3-20 or.

Cabero Almenara, J.: *El Ciberespacio: El no lugar como lugar educativo*. Sevillako Unibertsitatea.

Cabero Almenara, J.: *Las posibilidades de las nuevas tecnologías de la información y la comunicación para los desafíos de la educación de las personas adultas*. Sevillako Unibertsitatea.

Carrillo Gamboa, F.J.: *Naturaleza y contexto de la Universidad virtual*. Centro de Sistemas de Conocimiento. ITEMS. Mexiko.

De Benito Crosetti, B.: *Herramientas para la creación, distribución y gestión de cursos a través de Internet*. Edutec. Revista Electrónica de Tecnología Educativa 12 zk. 2000ko ekaina.

European Higher Education Expert Forum: *Increasing Lifelong Learning in European Higher Education: The challenges and the Prospects*. Contribución al Forum del Professor Edward Thomas, Unibertsitate eta Heziketa Iraunkorraren Europako Sarearen (EUCEN) Idazkari Nagusia. 2000ko ekainaren 24a.

Fernández Panadero, M.C.; Santacruz Valencia, L; Torres Barberis, L.; Delgado Kloos, C.: *Una Propuesta Tecno-Pedagógica para la Educación Virtual en Internet*. Komunikazioa, Teknologia eta Hezkuntzari buruzko Nazioarteko II. Kongresua, Oviedo. 1998ko urriaren 27-30a. <<http://www.it.uc3m.es/~sebas>>

García Aretio, L.: *Formación a distancia para el nuevo milenio. ¿Cambios radicales o de procedimiento?*. UNED.

Jónasson, J.T. *Traditional University responds to society?* Lifelong Learning in Europe, 4 zk. 1999

Marcelo García, C.; Lavié, J.M.: *Formación y nuevas tecnologías: Posibilidades y condiciones de la teleformación como espacio de aprendizaje*. Sevillako Unibertsitatea.

Millán, A.: *Procesos críticos de la educación a distancia*. Instituto Tecnológico y de Estudios Superiores de Monterrey (I.T.E.S.M.). Mexiko

Nyhan, B.: *Cómo construir organizaciones autoformativas: comprobaciones prácticas de la teoría - algunas enseñanzas extraídas de empresas europeas*. Lanbide Hezkuntza aldizkaria. Cedefop 16 zk. 1999

Rubio Gómez, M.J.: *Las nuevas tecnologías y el futuro de la educación a distancia COIE*. Balear Irletako Centro Asociado de la Universidad Nacional de Educación a Distancia.

Salinas Ibáñez, J.: *Enseñanza flexible, aprendizaje abierto. Las redes como herramientas para la formación*. Balear Irletako Unibertsitatea.

Salinas Ibáñez, J.: *Modelos mixtos de formación universitaria presencial y a distancia: el Campus Extens*.

Salinas, J. *Nuevos ambientes de aprendizaje para una sociedad de la información*. Revista Pensamiento Educativo. PUC Txile. 20, 81-104. 1997. <<http://www.uib.es/depart/gte/ambientes.html>>.

Suzi Halimi. *European Conference on Lifelong Learning Inside and Outside Schools Lifelong Learning for Equity and Social Cohesion: A new challenge for Higher Education*. <<http://www.erill.uni-bremen.de/lios/plenary/halimi.html>>.